

Emakume bertsolari-irakasleen ekarpen metodologikoa egungo bertso-eskoletan

Doktorego-tesia

Saila: Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpenaren Didaktika

Doktorego-programa: Psikodidaktika: hezkuntzaren psikologia eta berariazko didaktikak

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Zuzendariak

Maria Teresa Vizcarra Morales

Amaia Álvarez-Uria

Vanesa Fernández Rodríguez

2021

Ikerketa honek EHUko ikerketa proiektu baten babesarekin jaso zuen 2015ean eginiko deialdi lehiakorrean, honako izenburu honekin: “Bertsolaritza eta generoa: bertso-eskolak” eta honako kode honekin: (EHU 15/27). Ikertzaile nagusia Gema Lasarte Leonet izan zen.

Aldi berean, ikerketa hau **IkHezi ikerketa taldearen** babesarekin egin zen. Ikerketa talde hori Eusko Jaurlaritzako talde kontsolidatua da **IT1304-19** kodearekin. Ikertzaile Nagusia: Maria Teresa Vizcarra Morales da.

Porque hay una historia que no está en la historia y que solo se puede rescatar escuchando el susurro de las mujeres.

(Rosa Montero)

ESKER ONAK

Tesi bat egitea nahiko prozesu bakartia eta luzea da. Urte askotako lana denez, bidean zehar hainbat gorabehera izan dira nire bizitzan. Batzuetan tesia bazter batean uzteko gogoia izan dut, batez ere une gogor edo kritikoetan. Nik uste dut, askori gertatu zaigula hau, baina prozesu pertsonala denez, bakoitza dituen erremintekin saiatu behar da bere bidea egiten. Era berean, antsietatearekin, segurtasun faltarekin eta beldurrarekin dantza egiten ikasi behar da.

Hala ere, atal hau idazten ari naiz momentu honetan, eta horrek esan nahi du nire emozioak egoki kudeatzeko gai izan naizela eta erronka gainditzea lortu dudala. Horregatik, ikerketaren munduan murgiltzeaz gain, esan nezake prozesu honek pertsona lez garatzen lagundu didala, izan ere, emozioen kudeaketa funtsezkoa izan da eta nire burua hobeto ezagutzeko parada izan dut.

Ezin ditut ahaztu egitasmo honetan bidaide izan ditudan pertsonak. Horietako askok tesiarekin animatu naute, eta oztopoak gainditzen lagundu didate, eta beraz, atal honetan eta uneoro eskerrak eman nahi dizkizuet horregatik bi tesi zuzendariei, Mariate Bizkarrari eta Amaia Alvarez-Uriari eskerrak eman nahi dizkiet haien laguntzarik gabe nire tesia ez nukeelako inoiz bukatuko. Hasieratik amaiera arte nirekiko konfiantza adierazi duzue eta hortxe egon zarete beti animoak ematen. Eskerrik asko erakutsi didazuen guztiagatik, nire erreferenteak zarete. Zuentzat da lan berezi hau.

Atal honetan, Gema Lasarteri eskertu nahiko nioke proiektu eder honetan parte-hartzeko aukera eman izana eta beti hor egon delako. IkHezi ikerketa talde osoari, maitasun handiz hartu nautelako, beti lagundu didate gauza guztietan, eta ikerketaren arloan egiten dituzten ekarpenak miresten ditudalako.

Quería dedicárselo también a mis padres por quererme como soy, por el gran apoyo que me han dado y por confiar siempre en mí. Vuestras palabras de ánimo y vuestro amor han sido imprescindibles. Pese a no conocer el proceso de una tesis y lo que ello comporta,

me habéis apoyado en toda decisión. Gracias por todo.

A mi hermana por decirme que nunca desistiera, que siguiera haciendo el camino y que algún día recogería los frutos. Gracias por estar siempre a mi lado y por todos los buenos y felices momentos que me has dado.

A Iban, por depositar toda la confianza en mí, incluso cuando yo no lo hacía. También quería agradecerte que siempre has entendido mi pequeño mundo. Este trabajo también te lo dedico a ti.

Para mis amigas por confiar siempre en mí y porque estaban deseando que terminara la tesis. En especial a Silvia y a Esti. También va para vosotras.

A toda mi familia de Galicia, vuestro apoyo y amor han superado todas las distancias. Tampoco puedo olvidarme de las personas que faltan, y que nos dejaron por el camino muchos aprendizajes y lecciones de vida. En especial a ti, abuelo, que nos dejaste no hace mucho, a ti también te lo dedico.

Azkenik, bertsolaritzaren munduko pertsona guztiei, bereziki lan honetan lagundu didaten emakume bertsolari-irakasleei, zuen hausnarketek nire bizitzako egoera asko zalantzan jartzen eta birpentsatzen lagundu didatelako. Miresgarria da egiten ari zareten lana, opa dizuet indar horrekin jarrai dezazuela oztopo guztiak gainditzen. Lan hau zuentzat ere bada.

AURKIBIDEA

Aurkibidea

ESKER ONAK.....	3
Aurkibidea.....	7
Sarrera	13
Ikerketaren zergatia.....	14
Dokumentuaren antolakuntza.....	16
1.-Emakumeak bertso-eskoletan	21
1.1.-Oinarri teorikoak. Zer da bertsolaritza?	21
1.1.1.-Nola sailkatu da bertsolaritza?	23
1.1.2.-Zer dira bertso-eskolak?	25
1.1.2.1.Hasierako bertso-eskolak	25
1.1.2.2.-Gaur egungo bertso-eskolak	28
1.1.3.-Bertsolaritza hezkuntza arautuan	30
1.1.4.-Emakumea bertsolaritzan	32
1.1.4.1.-Emakume bertsolarien historia, laburpen txikia.	32
1.1.4.2.-Emakume bertsolarien identitatearen eraikuntza	34
1.1.4.3.-Aurrekariak eta ikerketak	36
1.2.- Helburuak	38
1.3.- Metodoa	40
1.3.1.- Informazioa biltzeko erabiliko diren partaideak eta tresnak	42
1.3.1.1.-Eztabaida taldeak	43
1.3.1.2.- Elkarrizketa sakonak	44
1.3.1.3. Behaketak	45
1.3.1.4.- Grabazioak eta landa oharrak	46
1.3.1.5. Galdetegia.....	46
1.3.2. Ikerketarekin prozedura eta analisisa	47
1.3.3. Kategoria sistemak eta kodeak.....	49
1.3.4. Egiatzotasuna	52
1.4. Ikerketen antolakuntza.....	53
1.5. Erreferentziak	56
2. Las mujeres Bertsolaris, agentes en su incorporación a la escena pública.....	65
2.1. Aproximación al concepto de bertsolarismo.....	65
2.1.1. Mujeres bertsolaris	66
2.1.2. Empoderamiento, agencia y cuerpo.....	67
2.2. Método para conocer el perfil de las bertsolaris.....	71
2.3. ¿Cuál es el perfil de las mujeres bertsolaris?	73
2.4. Conclusiones sobre el perfil de las bertsolaris	81
2.5. Rerefencias	84
3. Women bertsolaris: reclaiming the past and singing the present.	91
3.1. What is <i>bertsolaritza</i> and improvisation?.....	92
3.2. The history of women <i>bertsolaris</i>	95
3.3. The image of women in the history of men and women <i>bertsolaris</i>	98
3.4. Background	102
3.5. Objectives	103
3.6. Method	103

3.6.1. Participants	104
3.6.2. Data collection tools	105
3.6.3. Working procedure.....	106
3.6.4. Analysis tools: Category system	107
3.7. Interpretation	108
3.7.1. Women as a theme.....	108
3.7.2. Theme types	111
3.7.3. Roles suggested in the themes	115
3.7.4. Style categories.....	117
3.8. Discussion and conclusions.....	121
3.9. References	126
3.10. Glossary	130
4.- Poto berriro ez egiteko. Bertso-eskoletako emakume bertsolari-irakasleen ekarpen metodologikoa.	135
4.1.- Irakaskuntza tradizioaletik irakaskuntza berritzailera.....	137
4.1.1.- Erreformatzaile handiak	137
4.1.2.- Irakaskuntzaren kontzepzio berri baterantz	138
4.1.3.- Kontzientzia eta ikuspegi feminista	140
4.1.4.- Bertsolaritza hezkuntzan: euskal curriculumean, metodologia eta baliabideak.....	144
4.2.- Metodoa	149
4.4.1. Kasu-azterketa	149
4.4.2. Testuinguruaren deskribapena.....	150
4.4.3. Partaideak eta informazioa jasotzeko estrategiak	150
4.4.4. Prozedura eta analisirako tresna	151
4.5.Emaitzak.....	152
4.5.1. Emakume bertsolariek ikasle gisa jasotako metodologia.....	152
4.5.2.Emakume bertsolariek irakasle gisa erabilitako metodologia.....	154
4.5.2.1. Irakaskuntza metodoak	154
4.5.2.2. Metodologia aktiboak eta lidergo motak	156
4.5.2.3. Kontzientzia feminista/pedagogia feminista	159
4.5.2.4. Bertsolaritza hezkuntzan: euskal curriculumean, baliabide eta materialak.....	164
4.6.- Eztabaida eta ondorioak.....	166
4.7. Erreferentzia bibliografikoak	170
5.- Bertso-eskolak: alderdi sozio-emozionalaren garrantzia ahalduntze prozesuan	177
5.1. Adimen emozionala	178
5.2. Emozioen kudeaketa bertsolaritzan	180
5.2.1. Bertsolari(gai)aren trebetasun pertsonalak	181
5.2.2. Bertsolari(gai)aren trebetasun sozialak.....	182
5.3. Agentzia eta ahalduntzea	184
5.4. Metodoa	187
5.4.1. Kasu-azterketa	188
5.4.2. Testuinguruaren deskribapena.....	188
5.4.3. Partaideak eta informazioa jasotzeko estrategiak	189
5.4.4. Prozedura eta analisi tresna	189
5.5.- Emaitzak: Hezkuntza-arautua eta bertso-eskolen metodologia	191
5.5.1.Erabilitako metodologia	191
5.5.2. Aspektu sozio-emozionalaren zaintza (ikasle-irakasle)	192
5.5.2.1.Feedback.....	193
5.5.2.2.Agentzia	193
5.5.2.3. Segurtasuna, autokonfiantza.....	194

5.5.3. Aspektu sozio-emozionalaren zaintza (taldekoa)	196
5.5.3.1. Talde lana, kohesioa	196
5.5.3.2. Generoaren trataera.....	197
5.6. Ondorioak	198
5.7. Erreferentziak	200
6.- Eztabaida eta Ondorioak	207
6.1.- Eztabaida	207
6.2. Helburuen asetze-maila.....	213
6.3. Ondorioak	214
6.4. Epilogo: hausnarketak, eskerrak eta erronkak	216
7. Bibliografia	221

SARRERA

Sarrera

Atal honi hasiera emateko, esan beharra dago inoiz ez dudala pentsatu horrelako doktorego-tesi bat aurkeztuko nuenik. Vanesa Fernández Rodríguez naiz, eta Lehen Hezkuntzako gradua bukatu eta gero, Psikodidaktikako masterra egitea pentsatu nuen, nire formakuntza hobetzeko asmoarekin. Master horretan, Mariate Bizkarra ezagutu nuen, zorte hori izan nuen, nire irakaslea izan baitzen. Masterra bukatu eta gero Mariatek aukera bikaina eskaini zidan ikertzen jarraitzeko: erakunde autonomo batek finantzaturako ikerketa batean lan egiteko aukera eskaini zidan. Proiektu horrek bertsolaritza eta generoaren gaia jorratzen zuen eta Gema Lasarte izan zen horren arduraduna. Baietza eman ondoren, IkHezi ikerketa taldearekin hasi nintzen lanean proiektu horretan eta nire ardura, batez ere, landa-lanean oinarritu zen. Taldearekin lanean hasi eta hortxe Amaia Alvarez-Uria ezagutu nuen, taldeko kide da bera. Esan beharra dut asko lagundu zidala bertsolaritzaren gaian sakontzen. Bertsolaritza jarraitzera animatu ninduen, nire inguruko bertso ekitaldien berri emanez eta bertsolaritzari buruzko materiala helaraziz. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finalean, 2017an, elkarrekin ikusi genuen Maialen Lujanbio bere bigarren txapela irabazten.

Mundu berri batean murgildu nintzen, garai hartan euskal kultura eta bertsolariak miresten nituen, baina ez nuen emakume bertsolarien ibilbidea ezagutzen, ezta bide horretan emakumeek egindako ahaleginak eta ekarpenak ere. Niretzat deskubrimendu handia izan zen eta gaiak erakarri ninduela aitortu behar dut. Proiektu horretan emakume horien bizipenak eta hausnarketak kontuan hartu genituen eta ulertu genuen emakume bertsolariek eremu ez oso abegikor batean euren burua nola indartu zuten eta nola lortu zuten kontzientzia kolektibo bat sortzea eremu maskulinizatu batean jarduten zuten bitartean. Horrela, IkHezi taldeak egindako lanak ikerketarako bide berriak zabaldu zituen. Hezkuntza eta feminismoa dira nire intereseko bi gai nagusiak, hezitzailea naiz eta feminista, eta bide horretan ikertzen jarraituko dut; izan ere, bide horretatik etorri ziren beste bi proiektu eta bi horietako azkenekoan kokatzen da nire tesia, ikuspegi feminista batetik bertso-eskoletara eta hezkuntza arautura hurbiltzeko ahalegina egiten duena. Lehen esan bezala, nire lana ezinbestekoa izan zen hasierako proiektu hori burutzeko, tesi

bat egingo nuela jakin gabe. Hemen aurkezten diren lehenengo bi artikulua proiektu horren emaitza direla egiaztatu daiteke, eta nire lanaren oinarri lez erabili dira.

Ikerketaren zergatia.

Lan hau nire hondar alea da ikusezina izan dena ikusarazteko bidean: emakumeek ere historia eraiki dutela erakutsi nahi izan dut, nahiz eta ikasi dugun historiarekin bat ez datorren jarraian irakur daitekeena. Eremu publikoan badaude emakumeak eta urratsez urrats mundua aldatzen ari dira. Ikerketa xume honekin emakumeak izateagatik bertsolari eta bertso-irakasle batzuek bizi izan dutena ulertzeko azterketa egin da eta arau sozialek ipinitako mugei eta oztopoei aurre egiteak eta bere burua ahalduntzeak ekarritako hausnarketa eta kontzientziazio prozesua ulertzea izan dut helburu. Beraz, bakarrik eta isolatuta sekula konektatu ezingo genituzkeen puzzlearen zatiak elkarrekin lotzera gonbidatzen zaituztet.

Bertsolaritza gizonen jarduera izatetik emakumeen jarduera ere izatera igaro dela (Larrañaga, 2013) esan daiteke. Emakumearen presentziarekin, besteak beste, bertsolaritzaren eredu tradizionala egunez egun zabalduz joan da eta bertsotan aritzeko beste modu batzuk jarri ditu agerian. Egungo bertsolaritzaren irakaskuntza modua ere aldatu da; bertso- eskoletako irakasleen artean emakume bertsolariak daude eta emakume bertsolari horiek egun erreferente garrantzitsuak dira euskal kulturaren.

Xabier Aierdi, Juan Aldaz, Eider Alkorta, Alfredo Retortillo eta Harkaitz Zubiriren (2007) hitzak gure eginez bertsolaritzan tradizioaren modernizazioa gertatzen ari dela esan daiteke, eta modernizazio horrekin bertsolaritzaren mediatizazioa eta jendarteratzea etorri dira. Komunikabideetan, txapelketetan, kultur ekitaldietan, bertso-saioetan, eta hezkuntza eremuan lantzen da bertsoa. Bertsolaritzaren irakaskuntza bertso-eskoletan eta hezkuntza arautuan bermatzen da, izan ere, egun ikasle askok bertsoaren inguruko formazioa jasotzen dute.

Euskal gizartean oro har, eta bertso-eskoletan zehazki, aldaketak eman dira, horren ondorioz, emakumeen presentzia etengabe handitzen ari da azken bi hamarkadetan bertsolaritzaren alorrean (Erkiaga, 2008).

Gizonezkoen esparrua izan da tradizionalki eremu publikoa, kulturaren arloan ez zelako apenas emakumeentzako lekurik utzi; hala ere, XX. mende amaieratik ahanztura eta isiltasunetik ahots propioa eduki eta erabiltzera pasatzen ari dira emakumeak bertsoaren munduan. Izan ere, Carmen Larrañagak (1995) aipatzen duen bezala gizonari bertsolaritzaren balio preziatuenak atxiki zaizkio eta hortxe ditugu arrazoiketa, hitza, eta pentsamendua, eta emakumeei dagokienez, zaintza, sentimendua eta maitasuna erantsi zaie (Larrañaga, 2013), elkar ukatzen eta bereizten duten bi unibertso eta eremu sortuz, elkar ezin uki dezaketenak.

Lehen esan lez, gizartean eman diren aldaketek eragina izan dute bertsolaritzaren garapenean (Artetxe, 2019), eta aldaketa horiek, bertsolaritzaren ikaskuntza-irakaskuntzan islatu dira. Hori horrela izanda ere gauzak aldatzen ari dira, esan bezala, emakume bertsolariak badirelako han eta hemen, gero eta gehiago, eta bertso-eskoletan presentzia handia dutelako. Emakume horiek eredu hegemonikoa ikasi eta erreproduzitu ondoren, denborarekin bertan egokitzen ez zirela konturatu ziren, eta horrek eragindako inflexio-puntua edo identitate-krisia bizi izan zuten (Lasarte, Álvarez-Uria, Ugalde, Lekue eta Martínez, 2016). Krisi edo aldaketa horren ondorioz kontzientzia kritikoa eraiki dute, bertsolaritzan sartu eta berehala eredu tradizionala ezagutu eta jarraitu ostean badakitelako zeintzuk izan ziren bertsolaritzaren eredu horrek dituen hutsune eta gabeziak.

Esan daiteke, sozialki diskriminatuta egon den kolektibo honek aukera berdintasuna eta bere eskubideak erdiesteko jardun behar izan duela bidea urratzen azken urteotan eta horrek paradigma aldaketa ekarri duela. Egun euren metodologia propioa erabiltzen dute, bizitako ahalduntze bide horretan osatu dutena, eta etorkizuneko inprobisatzaileak formatzen ari dira bertso-eskoletan eta hezkuntza arautuan. Emakume bertsolariek diskurtso berriak sortu dituzte eta bertsolaritza gaurkotu, eraldatu eta haren kalitatea hobetzen laguntzen ari dira; lanketa hori irakasteko estiloetan, baliabideetan eta bertsoak osatzeko gaietan islatuko da (Zubiri, Aierdi eta Retortillo, 2019).

Aurrera eraman nahi den ikerketa honetan garrantzitsutzat eta ezinbestekotzat dugu ezagutzea aztertutako bertsolari-irakasle emakumeek zer-nolako bizipenak izan

zituzten bertso-eskoletan zeudenean eta horiek nola erabili dituzten haien eredu pedagogikoa eratzeko. Honela, bere irakasteko modua martxan jartzeko eredu nagusi horretatik zer aldatu nahi izan duten arakatu nahi izan da, era berean, irakasleek gaur egun bertso-eskoletan zein hezkuntza arautuan erabiltzen dituzten metodologiak eta estiloa ezagutu nahi izan da.

Gainera, genero ikuspegia ere kontuan izango da, emakume diren neurrian eta kontzientziario eta ahalduntze prozesuak bizi izan dituztenez, haiek norabide horretan egindako ekarpenak ere jaso nahi izan dira. Azkenik, emakume bertsolari eta irakasle horien asmo eta ekintzen arteko koherentzia analizatu da, hots, irakasle roletik zer egin nahi duten eta zer egiten ari diren alderatuko dugu diskurtsoen eta praktiken arteko aldeak aurkitu nahian, halakorik baldin balego. Helburu horiek aurrera eramateko eztabaida taldeak, elkarrizketa sakonak eta behaketak egin dira. Egindako lana nola egituratu den jakiteko, kapituluaren antolakuntza aurkezten da jarraian.

Dokumentuaren antolakuntza

Doktorego-tesi honen egitura osatzen duten atalak irakurtzen ari zareten sarrera kapitulu honekin hasi dira, eta sarrera honetan azaldu da zein izan den nire motibazioa ikerlari gisa lan honetan aritzeko, gaiaren garrantzia zein den eta, orain azaltzen ari garena, hau da, nola dagoen antolatuta irakurtzen ari zareten lana.

Lehenengo kapituluaren azaltzen da zer den bertsolaritza, bere sailkapena, bertso-eskoletako filosofia, eta hezkuntza arautuari dagokion atal bat ere agertzen da. Emakume bertsolarien laburpen historiko txiki bat egiten da bertan eta gai honi buruz egindako ikerketak eta aurrekariak biltzen dira. Atal horrekin bukatzeko, lan honetako helburu guztiak eta jarraitu den metodoa deskribatzen dira.

Bigarren kapituluak lehenengo artikularen berri ematen du, orduan egungo emakume bertsolarien profila zein zen ezagutu nahi genuen, eta emakume horiek ahalduntze bidean izandako elementu erraztatzaileak zein izan diren, horren ondorioz, gorputzak eremu publikoan duen garrantzia azpimarratu genuen. Ikerketa hori *Boletín de Literatura Oral* aldizkarian publikatu zen 2020an “*Las mujeres bertsolaris, agentes en su incorporación a la escena pública*” izenburuarekin. Artikulu horretan nire ekarpena landa-

lana egitea izan zen, materiala bildu, aztertu, antolatu, emaitzen interpretazioa egin eta artikuluari forma ematen lagundu nuen, laburtuz, esan daiteke lanaren oinarria nik egin nuela eta lan horretan lau tesi zuzendari izan nituela.

Hirugarren kapituluaren emakume bertsolarien rola, tematikak eta kantu-estiloak buruz aritu ginen. Ikerketa hori *Prisma Social* aldizkarian publikatu zen 2019an, aurreko artikulua baino lehenago, izan ere, aldizkariaren erritmoak eta ikertzaileenak ez dira askotan nahi bezala uztartzen. Haren izenburua "*Women bertsolaris: reclaiming the past and singing the present*" izan zen. Lan horretan landa-lan guztia egiteaz gain, datuak bildu nituen eta emaitzen analisia eta emaitzen idazketan jardun nuen nagusiki, ondoren artikulua sinatzen genuen guztien artean lana gainbegiratu zen. Bigarren kapituluaren bezala, lau zuzendari izan nituen berriro eta proiektutik ateratako datuak argitaratzea lortu genuen.

Laugarren kapituluaren bertso-eskoletan eta hezkuntza arautuan zentratu ginen eta leku horietan emakume bertsolari-irakasleen metodologia dialogiko eta feministaren berri eman genuen, hortaz, emakume bertsolariek irakaskuntzan egindako ekarpenaren ingurukoak irakur daitezke bertan. Oraindik argitaratu gabeko artikulua da, argitaratzeko bidalia izan da eta ebaluazioaren zain gaude. *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariara bidali da "*Poto berriro ez egiteko. Bertso-eskoletako emakume bertsolari-irakasleen ekarpen metodologikoa*" izenburuarekin. Artikulu honetan nik egindako elkarrizketak eta behaketak agertzen dira, artikulua lan guztia nire esku egon da, tesi zuzendarien berrikusketarekin batera.

Bosgarren kapituluaren, tesi honetarako eginiko azken artikulua aurkezten da eta hau ere irakaskuntzaren eremuan kokatzen da. Alderdi sozio-emozionalaren lanketari eta ahalduak eta agentzia prozesuei begiratu zaie. Aurreko kapituluarekin gertatzen zen bezala, oraindik argitaratu gabeko artikulua da eta ebaluazioaren zain dago, *Revista de Lenguas y Literaturas Catalana, Gallega y Vasca* aldizkariara bidali da "*Bertso-eskolak: alderdi sozio-emozionalaren garrantzia ahalduak prozesuan*" izenburuarekin. Artikulu honen lanketa nire ardura izan da eta, aurreko artikuluan bezala, ikerketaren prozesu guztia nire ardurapean geratu da, tesiko zuzendarien berrikusketarekin batera.

Seigarren kapituluaren ordura arte azaldu diren lau artikuluek uztartzen dira eztabaida orokor bat osatzeko, helburuen asetzeko-maila gainbegiratzeko eta ondorio orokor

batzuk zerrendatzeko. Bertan lan honen ekarpena azpimarratzen da, eta baita lanak izan dituen mugak ere.

Zazpigarren kapituluaren tesin honetan erabilitako erreferentzia bibliografiko guztiak biltzen dira eta, bukatzeko, zortzigarren kapituluaren eranskinak, publikatuak izan diren artikulatuak daude hurrenez hurren.

1.KAPITULUA

EMAKUMEAK BERTSO ESKOLETAN, OINARRI

TEORIKOAK, HELBURUAK ETA METODOA

1.-Emakumeak bertso-eskoletan

Atal honetan, gaiaren kokapena egin nahi da eta horretarako oinarri teoriko batzuk aurkeztuko dira. Horrela, bertsolaritzaren definizioa, bere sailkapena, bertso-eskolen izaera eta funtzionamendua eta hezkuntza arautuari bertsolaritzak egiten dion ekarpenari buruzkoak irakur daitezke. Puntu honetan, ezinbestekoa da emakume bertsolarien historiaren zertzelada batzuk ematea. Bide horretan orain arte egin diren lanak ere azaltzen dira horrenbestez.

Marko teorikoarekin bukatu ondoren, lau artikuluei bidea ematen dieten helburuak ezagutu daitezke. Bertan kapitulu bakoitzaren helburu orokorrak eta berriazko helburuak azalduko dira. Jarraian metodoa azalduko da eta bertan lau ikerketetan erabilitako tresnak, prozedurak, eta kategoria sistemak definituko dira, besteak beste. Bukatzeko, ikerketen antolakuntza azaltzen da irakurleak hurrengo kapituluak hobeto uler ditzan.

1.1.-Oinarri teorikoak. Zer da bertsolaritza?

Atal honi bertso batekin eman nahi izan diogu hasiera, baina ez edozein bertsorekin, izan ere, Xabier Amurizak asmatutako bertso bat da eta bertsolaritza zer den definitzen du bertan:

Neurriz eta errimaz

kantatzea hitza

horra hor zer kirol mota

den bertsolaritza.

Era berean, Joxerra Garzia, Andoni Egaña eta Jon Sarasuaren *Bat-bateko bertsolaritza* liburuan (2001) kantatuz, errimatuz eta neurtuz sortzen den berbaldia lez definitzen da

Amurizak 'hitzaren kirola' deitzen duen hori. Horren ondorioz, doinua, errima eta neurria dira bertsolaritzaren alderdi teknikoak.

Gaiak ere aipagarriak dira, baina zeri buruz abesten du bertsolariak? Bertsolariak bere inprobisazioan poesia, gogoeta edo txantxa eginez, hainbat arlotako informazioa eskaintzen du eta publikoarekin komunikatzen da. Bertsolariaren ekarpena, hain zuzen, maila desberdinen erabilera sortzaile eta erakargarrian datza: gizarte albisteak, politika aipamenak, sexu-kontuak, kultura printzak, herriko gorabeherak. Ikus-entzuleen egoerari buruzko aipamenak tartekatuz testuingurua aintzat hartzen dute eta aldi berean bertsoa beste bertsolariek esandakoaren aurkako bat-bateko erantzun eta zirikadez ziprizzintzen dute (Garzia, 2011).

Doinuari dagokionez, bertsolariak inprobisatzean beti abesten du doinu jakin batean bere hitzak bermatuz eta "a capella". musika tresnen laguntzarik gabe. Doinuak eredu metrikoa ezartzen du, alegia, bertsoen silaba kopurua; halere, bertsolariak ez ditu zenbatzen silabak, bertsoa aukeratutako doinuaren barnean egokitu besterik ez du egiten. Jatorriaren arabera, bertso doinuak hiru kategoriatan sailkatzen dira:

- Usadiozko doinu herrikoiak (gehiengo handia)
- Neurritik datozen doinu berriak
- Propio sortutako doinuak

Errimari erreferentzia egiten diogunean esan daiteke doinuak markatzen duela, eta errima kontsonante edo osoa izan daitekeela. Honako hauek dira bat-bateko bertsolaritzan sarrien erabiltzen diren neurriak (Garzia, 2011):

- Zortziko handia: hamazortzi silaba ditu eta hamar eta zortzi silabako bi lerrotan idazten dira guztira lau puntu edo lerro eginez. Puntu bikoitietan egiten da errima.
- Zortziko txikia: hamahiru silabako lau puntu ditu. Puntu bakoitza hurrenez hurren zazpi eta sei silabako bi lerrotan idazten da. Seiko lerro edo puntuen amaieran dago errima edo oina.
- Hamarreko txikia: zortziko txikiari puntu bat gehituz sortzen da (bi lerro, hamahiru silaba, dagokion errimarekin).

- Hamarreko handia: zortziko handiari puntu bat gehituz lortzen da.

Aipatutako *neurriak* dira plazaz plazako jardunean gehien erabiltzen direnak. Hala ere, badira beste neurri batzuk, adibidez koplak, tradizio handia dutenak eta oso erabiliak direnak eskerako eta errondarako (Agate deuna egunean, adibidez).

- Kopla handia: lau lerro ditu, bi puntu eta bi oin (neurria 7-6).
- Kopla txikia: lau lerro ditu, bi puntu eta bi oin (neurria 10-8).

Gaur egun, bertsoaren modernizazioarekin, hainbat ekitaldi eta saio berezi eskaintzen ari dira, baina aurrerago sakonduko da puntu horretan.

1.1.1.-Nola sailkatu da bertsolaritza?

Manuel Lekuonak (1974) bertsolaritza ahozko literaturaren azpisail bat dela adierazi zuen, hots, idatziz sortzen ez den literatura mota bat. Herri literatura edo herri poesia ere deitu zion (Lasarte, et al., 2016). Lekuonak bertsolaritzari buruzko deskribapena egin zuen eta hurrengo ezaugarriak eman zizkion: pentsamenduaren irudi azkartasuna, izaera dialektala eta bat-batekotasunaren izugarritzko indarra (Larrañaga, 2013). Honela, bertsolaritza XX. mende amaiera bitartean Euskal Herriko literaturaren azpisail bezala agertu izan da beti, eta ikertzaileek honela ulertu dute bertsolaritza denbora luzean zehar.

Koldo Mitxelenak herri literaturaz hitz egin zuenean, bertsolaritza ahozko literatura zela aipatu zuen (Larrañaga, 2013). Lekuonak, esan bezala, ahozko eta bat-bateko lan horretan bertsolarien antolaketa eta teknika azpimarratzen zituen: bertsolariak esan behar duena hasieran pentsatzen du eta mekanismo hori da bat-batekotasunaren ezaugarri nabarmenena (Larrañaga, 2013).

Ildo horretan, 2013. urtean Xabi Payak (1.1 taula) ahozko literaturaren antologia antolatu zuen eta sailkapen hori burutzeko kontuan hartu zituen, besteak beste, genero bakoitzaren lekua, publikoa eta literaturtasuna (Lasarte et al., 2016).

Orain arte agertu dugun eredu paradigmaticoa, hau da literaturaren baitako azpisaila izatearena, Joxerra Garziak zalantzan jarri zuen mende berriaren hasieran, eta bat-batekotasunerako marko teoriko berria proposatu zuen. Hortaz, Garziaren esanetan (2001 eta 2012), bat-batekotasunaren xedea ez da prestigiozko testu literarioak sortzea,

baizik eta entzunlengan emozioak eragitea. Autore honek aipatzen du bat-batekotasuna ezin dela testura bakarrik mugatu, bertsoa testuan amaitzen ez delako, kantua ere badago (doinua, ahotsa) eta bertsoa publikoarekin, testuinguruarekin osatzen da (Garzia et al., 2001, in Lasarte et al., 2016).

1.1. taula. Ahozko literatur generoen sailkapena (Paya, 2013:25; Iturria: Lasarte et al., 2016:66)

Generoa	Azpikategoriak
Bertsolaritza	Bat-bateko bertsolaritza
	Bertso-paperak
Koplak	Kopla zaharrak
	Dantza koplak
	Errondako koplak
Genero epiko-lirikoa	Herri lirika
	Alegiak, ipuinak eta ele zaharrak
	Kantu epikoak
	Baladak
Herri antzerkia	Pastorala
	Maskaradak
	Irri antzerkia
Heziketa generoa	Haur jolasak
	Sehaska kantak
	Igarkizunak
Egunerokoak	Txisteak
	Zirtoak
	Atsotitzak
Genero errituala	
Genero aplikatuak	Sermoiak
	Besteak

Horrela, Gartzia literaturatik baino, genero komunikatibo-erretorikotik hurbilago ikusten du bertsolaritza. Hartara, bertsolaria aipatu moldearen barneko “emozioen kudeatzailea” izango litzateke (Garzia, 2012; Lasarte et al., 2016).

1.1.2.-Zer dira bertso-eskolak?

Bertso-eskola bertsotan egiteko lekua da, eta horrekin batera, bertsotan nola egiten den ikasteko eskola da (Agirre, 2014; Lasarte et al., 2016). Bertsolaritza euskal kulturaren fenomeno bezala eta komunikatzeko tresna bezala uler dezakegu. Bertso-eskolak, horrenbestez, bi iturburu izan behar ditu: soziala eta pedagogikoa, euskal kantu inprobisatuaren iraupena eta transmisioa bermatu ahal izateko.

Ainhoa Agirreazaldegik eta Arkaitz Goikoetxeak (2007) argi dute zer-nolako egoera eskaini behar duten bertso-eskolek: leku aproposa izan behar du balio eta garapen sozialen lanketarako ezinbestekoak diren ezagutzak eta trebetasunak jorrazteko. Gainera, aisialdiko jarduera jakin batean talde lanak duen garrantzia irakatsi behar du.

Ildo honetan, Xabi Payak ondo deskribatzen du azpimarratzen saiatu garena: "Bertso-eskola? Herri batean bertsolariak eta bertsozaleak sortzeko xedea duen ente autonomoa da" (2000: 20). Laburbilduz esan daiteke bertso-eskolak bertsozaleak sortzeko tokiak direla.

1.1.2.1.Hasierako bertso-eskolak

Bertso-eskolen sorrera baino lehen, plazaz plaza eta elkarri desafioka ibiltzen ziren andre eta gizon bertsolariak (Lasarte et al., 2016). Lehenengo bertso-eskola lez Garrikako bertso-eskola aipatu ohi da, 1958. urtean taberna batean sortutakoa, baina ordurako ez zegoen aktibo bertso-eskolen mugimendua. Garai horretan, bertsolaritzaren transmisioa leku informaletan gertatzen zen, sagardotegi eta tabernetan besteak beste, bertan bertsolaritzaren zaletasuna eta pasioa konpartitu egiten zuten askok. Bertso zaharrak ezagutu, ikasi eta kantatzen zituzten (Agirreazaldegik et al., 2007; Lasarte et al., 2016).

Bertsogintzaren urbanizazioa 1960ko hamarkadan kokatzen da; sozializazio modu garaikideak kontuan hartuta ikerketak eta teorizazioak data horretan kokatu izan du (Lasarte et al., 2016).

Hala ere, zaila da zehatzak izatea bertso-eskolen mugimenduari buruzko hasiera data bat ezartzeko orduan. Eskolen alde pedagogikoaren hastapenak hamarkada horretan kokatzen dira (Aulestia, in Armistead eta Zulaika, 2005). Azkenean, bertso-eskolen mugimendua 1974-1983 bitartean sortu zela esan daiteke (Lasarte, et.al, 2016) ikastolen sorrerarekin batera, diktadura bukatu eta gero.

Une hartan, diktaduraren hondarrean, euskara eta euskal kultura sustatzea zen helburua, eta kontuan izan behar da bertsolaritza kultur-erreferentzia handia zela, eta gaur egun ere badela, euskal kulturarentzat eta euskararentzat. Hala, eskoletan inprobisazioa aisialdiko jarduera gisa erabiltzen hasi zen, eta gainera, bertso eskolen kopurua handitu egin zen.

Azpirarratzekoa da Leintz bailarako Almen ikastolakoa, Patxi Goikoleak, Xanti Iparragirrek eta Juanito Akixuk zuzendutakoa. Lehen bertso-eskola hartako ikasleen artean honakoak ditugu: Sarasua Anaiak, Felix Iñurrategi eta Arantzazu Loidi -bertso-ekoletako lehen emakume-ikaslea. Patxi Goikoleak bertsolaritzan formatzen zituen ikasleak eskolaz kanpoko jardueretan.

Aipagarriak dira, era berean, garai horretan Basarrik eta Uztapidek egindako bertso saioak. 125 pertsonarekin hasi ziren eta doinu tradizionalak erabiltzen eta ezagutarazten zituzten, tabernaz taberna bat-bateko bertsoak kantatzen zituztenean (Larrañaga, 2013; Lasarte et al., 2016). Jarduera horri esker, hilabete baten buruan gaztetxoek txapelketak antolatzen hasi ziren; ondorioz, lehenengo eskolarteko txapelketa 1981. urtean kokatzen dugu bertsolaritzaren kronologian.

Bertso-eskolen mugimendua areagotzen hasi zen eta horien artean lehenetariko bat Santutxuko bertso-eskola izan zen, 1979-1980. urte artean sortutakoa. Helduen talde bat lanean jarri zen eta hainbat autorek landutako lanak kontuan hartu zituen honako jardun hau egiteko: aldeztutako bertsoak kantatu, arazo teknikoak azterketa teorikoa egin, musika landu eta lan praktikoa burutu.

Bertso-eskolen metodologiari dagokionez, Fito Rodriguezen tesia (1998) erreferente garrantzitsua da. Eskolen arteko emaitzetan datu nahiko berdintsuak lortu ziren; eskolen metodologia oso antzekoa zen orduan, bertso idatzia asko lantzen zuten eta bertsolaritzaren historia irakasten zen. Laburbilduz, alde teknikoaren lanketa egiten zuten; bertso zaharrak lantzen zituzten, bertsoak entzunez eta abestuz ikasten zituzten doinu berriak. Behin pauso hori emanda, teoriari garrantzia ematen zioten, bertso tipologia ezagutu eta askotan bertso neurriak aztertzen zituzten (kopla txikia, zortziko txikia, hamarreko handia).

Baliabide materialei dagokienez, Xabier Amurizaren *Zu ere Bertsolari* (1982), *Hitzaren Kirol nazionala* (1981), *Hiztegi errimatua* (1981), edo Joanito Dorronsororen *Bertsotan I* (1981) eta *Bertsotan II* (1988) lanekin aritzen ziren.

Bertso-eskolen mugimenduaren ondoren gertaera azpimarragarri bat azaldu behar da; Bertsozale Elkartearen sorrera 1987ko ekainaren 18an (Agirreazaldegia, et al., 2007; Armistead eta Zulaika, 2005; Lasarte, et al., 2016). Jon Sarasuaren esanetan (2007) Bertsozale Elkartea ezinbesteko mugarrria izan da bertsolaritzan gertatu diren aurrerapenetan bertatik proposatu diren ekimenengatik: ikerketari begira, dokumentazio zentroa sortu eta ikerketak, lehiaketak, jarduerak eta programak bultzatu dituzte, esaterako.


Bertsozale Elkartearen zeregina bertsolaritzaren transmisioa bermatzea da, hortaz lehentasuna eman die bertso-eskolei (Agirrealzaldegia et al., 2007). Elkarte honek ahaleginak egin ditu bertsolaritzaren ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan materialen sorkuntza, irakasleen formakuntza eta bertso-eskolen komunikazio sareak mantentzen. Bertsozale Elkartek, eragile guztiekin batera, bertsolaritza zaindu, sustatu, ikertu eta bere transmisioa eta etorkizuna bermatzea du helburu. Eta hori lortzeko 2006. urtean ia 1800 bazkide zeuden Bertsozale Elkartean (Sarasua, 2007); baina Bertso Elkarteko 2020ko udaberriko txostenean diotenaren arabera, gaur egungo bazkideak 2.540 dira guztira (Bertsozale Elkartea, 2020).

1.1.2.2.-Gaur egungo bertso-eskolak

1980ko hamarkadatik hona bertso eskolen mugimenduak garapen handia izan du. Areagotu dira bertso-eskolak, izan ere, aisialdirako leku aproposak dira ehundaka haur eta gazte, heldu, eragile, irakasle, guraso eta bertsozale batzeko eta bertsozaletasunaz gozatzeko.

Bertso-eskolen helburuak, esan bezala, anitzak dira; eskola batzuek bertsolariak prestatzen dituzte, beste eskola batzuek ordea, izaera informalagoa dute, aisialdiarekin lotuago daude. Kasu batzuetan taldeak txapelketak prestatzeko elkartzen dira bat-batean aritzeko. Beste kasu batzuetan aldiz, euskararekin eta euskal kulturarekin kontaktuan egoteko eta bertso zaharrak eta berriak ezagutzeko, partekatze eta kantatzeko.

Bertso-eskolak sortu zirenetik kopurua handitzen joan da. 1.2 grafikoan behatu daitezke zer-nolako profila duten bertso-eskoletara hurbiltzen diren ikasleek. Bertan ikus daitezke bertso eskoletan gehien egiten dena bat-batean trebatzea dela eta ia bertso eskolen taldeen erdia hasberriekin osatuta daudela.



Grafiko 1.2. Bertso-eskoletako talde motak

Iturria: 2019-2020. Bertsozale elkarteak.

Bertsozale Elkarteak datuak eskutan oso baikorra da eta bertso-eskolen osasuna ona dela adierazten du (2019). Egungo bertso-eskoletan 1.800 lagun elkartzen dira 120 herritan dauden bertso-eskoletan (Bertsozale Elkarteak, 2020). Bertsozale Elkarteak hainbat datu

publikatu ditu (1.3 grafikoa): 1.300 haur eta 430 heldu elkartzen dituzte bertso-eskolek eta 120 irakasle aritzen dira bertsozaletasuna bultzatzen. Oro har, bertso eskoletan neska gehiago daude hasierako mailetan eta amaierako mailetan, berriz, mutilak dira nagusi. Oholtzara ematen den saltoa gizonaek egiten dute, batik bat.



1.3.grafikoa: Bertso-eskoletako partaideak adinka eta generoka

Iturria: 2019-2020. Bertsozale elkarteak.

Bertsozale Elkarteak, datu kuantitatiboak eskaini ondoren, hausnarketa sakona proposatzen du zenbakien atzean zer ezkututzen den ezagutze aldera:

Emakumeen eta gizonen kopuruak antzerakoak dira -%49 emakumeak; %51 gizonak-, baina oreka hori erabat hausten da adina tartean sartzen denean. 18 urtetik beherako taldeak aintzat hartuta, %56 dira neskak eta %44 dira mutilak; aitzitik, helduen taldeetan, %30 dira emakumeak eta %70 gizonak. Zenbakion atzean dauden errealitateak ulertzeko, azterketa gehiago beharko dira, datuok galdera asko pizten baitituzte: zergatik uzten duten emakume helduek bertso-eskola; bertso-eskolan elkartzeari utziagatik, bertso munduan jarraitzen duten ala ez (eta zaletasunari heldutasunean nola eta zein guneren bidez ematen dieten jarraipena); edota bertso-eskoletako ohiko dinamiketan zer aldatu genezakeen, emakumeen parte-hartzea sustatzeko. (Oihane Iguaran, 2020: 1)

1.1.3.-Bertsolaritza hezkuntza arautuan

Bertsolaritzak beste bultzada bat behar zuen, izan ere, ahozkoasuna eskolan landu behar zela eta bertsolaritzaren irakaskuntza izaera formalagora eraman behar zela erabaki zen. Joxerra Garziak (2007) "In the School Curriculum" artikuluan, gai honi arreta handia eman zion eta testuan zehar ideia hori azpimarratzen du behin eta berriro. Hortaz, fase berrirako jauzia egiteko lehenengo pausoa izan zen pedagogiaren hainbat elementuri arreta jartzea: hala nola, eskolen izaera, curriculuma, irakasleen prestakuntza, material didaktikoak, antolaketa, helburuak, edukiak eta jardueren proposamenak (Larrañaga, 2013).

Bertsolaritza esparru berrietara hedatu da eta hainbat ikastetxetan lantzen da Bertsozale Elkartearen eskutik. Zehazki, berezko eduki bezala Euskal Hizkuntza eta Literaturaren irakasgaien, bai Lehen Hezkuntzan, bai Bigarren Hezkuntzan (Armistead eta Zulaika, 2005; Sarasua, 2007).

Egun, praktika hezitzaile lez bi eremu mota ditugu: heziketa formala eta informala. Eremu formalari dagokionez, 2011-2012 ikasturtean akordio bat sinatu zuten Bertsozale Elkarteak eta Ikastolen Elkarteak, eta bertsolaritzari Curriculumean toki finko bat eskaini zioten (Lasarte et al., 2016). Bertsozale elkarteak (2021) emandako datuen arabera, 229 herritan eskaintzen da bertsolaritza hezkuntza arautuan, 53 irakasle dihardute lanean, eta 511 ikastetxek eta 29.500 ikaslek lantzen dute bertsolaritza.

Bertso-eskolekin jarraituz, toki garrantzitsuak dira ahozko poesia edo bat-bateko kantagintza, hots, bertsolaritza lantzeko, baina bertso-eskolaren antolakuntzan ohiko bertso bazkari, afari eta saioekin batera, saio informalagoak ere badaude, zaleen eta koadrilen artean antolatzen direnak, bertsolaritza aisialdiko jarduera bezala bizitzeko (Armistead eta Zulaika, 2013). Hainbat ekimen eta bertso formato desberdin sortu dira, gizartearen eskakizunetara egokituta.

Lehiaketekin batera, bertsoaren modernizazioaren haritik datozen zenbait ekintza esperimental aipatu beharrean gaude jarraian. Gema Lasartek eta bere kolaboratzaileek euren lanean horrela aipatzen dute gertaera hau: "Bertso tramak" adibidez, bertsolaritzaren ekitaldi bat da eta gai jartzaileak jarritako gai bati segika bertsolariek eta

gai jartzaileek istorio bat moldatuko dute, narrazio bat garatuko dute eta bide desberdinak har ditzakete” (2016:129). “Bertso Jazza” beste saio esperimental berezi bat da eta bertsoaren hitzak nahiz jazzaren musika inprobisatzen dira. Aldi berean egiten da bat-batekotasun hori eta gai-jartzaileek jartzen dituzte gaiak, inprobisaziorako abiapuntua izango dena. “Bertso tranpak” bi kultur adierazpen elkartzen ditu: bertsolaritza eta antzerkia hain zuzen, eta parte-hartzaileak antzezlea eta bertsolaria izaten dira. Azken urteetan “bertso rapa” gazteen artean egindako emanaldi mota sonatua da eta bertan rapa eta bertsoa konbinatzen dira. Izan ere, gero eta ohikoagoak dira bertso-kantaldiak eta beste hainbat saio berezi. Bertso saio musikatuak izugarri hedatu dira, eta horien artean “Ez da kasualitatea” izeneko saio feministak dira aipatzeko modukoak.

Azkenik, ezinbestekoa da egungo txapelketen garrantzia azpimarratzea. Txapelketetan bertsolariez gain, bertsolaritzaren sistema osoak parte hartzen du: komunikazio taldea, antolaketa taldea, epaileak eta gai-jartzaileak. Puntu honetan, laburki komentatuko dugu talde bakoitzaren eginbearra. Komunikazio taldeari dagokionez esan nahiko genuke eragile guztien funtzionamenduaz arduratzen dela eta talde horren beste helburu garrantzitsu bat dela transmisioan egin den lana erakustea. Antolatzaileen lana, berriz, Txapelketa Nagusiaren eta herrialdeko txapelketen antolakuntza da. Eta ezinbestekoa da talde horren lana, informazio guztia aurretik jakinarazi behar dietelako eragile guztiei. Epaileen taldean txapelketen funtzionamendua barrutik antolatzen dute eta bertsolarien lana ebaluatzen dute, besteak beste bertsokera eta estilo ezberdinak aztertzeko. Bukatzeko, gai-jartzaileen lana ezinbestekoa da bat-batekotasuna lantzeko eta etorkizunean gai eta roletan jarraitu beharreko ildoak edo aukerak markatzeko. Txapelketarako gaiak prestatzea lan handia da, eta lehendabizi ebaluatu beharra dago gaiak egokiak edo desegokiak diren txapelketetako fase bakoitzerako.

Gaur egun, 2.540 bazkide daude Bertsozale Elkartearen, bertsoaren arrimuan (Bertsozale Elkarte, 2020). Arlote edo baserritarren lana zena, euskal kulturaren oso jardueraren inportantea eta zentrala bihurtu da eta eginkizun honek milaka lagun biltzen ditu urtero bertso jardunaren bueltan saio, eskola, zein udalekuetan.

1.1.4.-Emakumea bertsolaritzan

Lehen aipatu den bezala, bertsolaritzak euskararekin eta euskal kulturarekin harreman handia du. Erreferentziala izan da gaur arte bertsolaritza euskal kulturaren, eta XV. mendetik aurrera ezagunak izan dira historian zehar inprobisatu zuten lehenengo emakumeak (Begiristain, 2011; Hernández, 2014; Larrañaga, 1995), baina ez zaie ahotsik eman, bertsolari lez ez dira aitortuak izan, bertsolaritzaren historian ez dira aintzat hartu eta ahanzturan geratu dira.

Plaza da eremu publikoaren sinboloa, gertaera sozial, politiko eta kulturalen kokapena, baita bertsolaritzaren gunea ere, eta hiztegien plazagizon bilatzen badugu erraz topatuko dugu, plazandrerekin duela oso gutxi arte gertatzen ez zen bezala. 2019tik aurrera topa dezakegu plazandre hitza Euskaltzaindiaren hiztegian eta honela definitzen du: *“jendaurrean edo jendartean askotan aritzen eta trebeki moldatzen den emakumezkoa”* (Euskaltzaindia, 2021).

Baina historiara bueltatzen bagara, hainbat alorretan lez, XX. mende hasieran ez zen emakume bertsolaririk ezagutzen bat-bateko bertsoaren munduan. Edonola ere, gauzak aldatzen ari dira, 2014ko datuen arabera bertso eskoletan aritzen ziren haurren %48 emakumeak direlako, eta esan daiteke azken urteotan emakumezkoen presentzia bertsolaritzan etengabe handitzen ari dela. Baina Izaro Zinkunegik (2015) azpimarratzen duen bezala, oholtzan oraindik emakumeen portzentajea gizonenarekin alderatuta baxua da, %20 edo %30 baitira. Izan ere, Nagore Soroak azaldu duen bezala, emakumeek bultzada handiagoa behar dute alor honetan (in Gaztelumendi, 2010).

1.1.4.1.-Emakume bertsolarien historia, laburpen txikia.

Emakume bertsolariak ahalduntze paradigma bilakatu dira mende berriarekin batera (Lasarte et al., 2016). Ahalduntze paradigma horrek hainbat ezaugarri ditu. Lehena, bertsolari emakumeen omisioa edo ahanztura argitan jartzea da, izan ere, ikerlari gutxik aipatzen dituzte emakume bertsolariak. Horrela, esan daiteke XVIII. menderako

bertsolaritza erabat sustraituta zegoela Euskal Herrian, ipar nahiz hego aldean, bai forma aldetik, baita sozialki ere; bertsoan gizonak nahiz emakumeak egiten zutelako (Ugalde, 2019). Hori horrela izanik ere, bertsolaritza, oro har, ez da maiz azaltzen dokumentazio iturrietan. Barandiaranek (2011) kontatzen duen bezala, bertsoan egiten zutenak mozkor, ezjakin edo arlotetzat hartu izan dira; leku kultuetan ez dute lekurik izan.

Aisialdiarekin lotutako lekuak izan ziren bertsolaritzaren eremuak: sukaldea, taberna eta sagardotegiak. Eta leku horietan, lehenengoan izan ezik pribatua izanik, emakumeak ez zuten sarbiderik izan, bertako langileak ez baziren bederen (Ugalde, 2018). Gizonezkoen bertsolaritzaren historia egitea zaila izan bada, emakumeena egitea nekezagoa (izan) da sexu/genero sistemak kokatzen zituen egoera soziala zela eta. Hastapenetan, Esteban de Garibayk (1854) aipatzen ditu XV. mendeko hiletetan kantuan azaltzen ziren eresiak eta haien egileak, eresigileak. Emakume hauek hildakoei kantatzen zieten. Artelanetan ere izan zuten lekua, beti ere heriotzaren inguruko errepresentazioetan. Horren lekukotza dugu Errioxako Cañasko Erdi Aroko monastegian: Urraca Díaz de Haro abadesaren hilobia (XIII. mendearen amaiera). Hilkutxaren eskuma aldean, gainean eta alboan azaltzen dira eresigileak (Lasarte et al., 2016).

Caro Barojaren esanetan (1972) XVI. mendean emakumeak desagertu ziren, baina egile berak beste lan batean (2000) adierazi zuen bazirela Bizkaian herriak XIX. mendearen erdialdean oraindik negar-kantari ziharduten emakumeak. Anabel Ugaldek aipatu zuen bezala emakume batzuek hiletetan kantatzen zuten eta beste batzuek zalaparta eta negar egiten zuten (2018).

Erdi Arokoek, Aro Modernoek, nahiz Historia Garaikideko andre bertsolariak badute antzeko ezaugarri bat: isilduak izan dira, bertsolaritza ezagutzen denetik bertsoan aritu badira ere (Hernández, 2014). Oso bertso gutxi ditugu historiaren joanean emakumearen irudia nola eraiki den erakusten digutenak, gizonak kantatutako bertso sorta gutxi batzuk kenduta. Emakume bertsolarien historiari begiratu eta historia garaikidera berriz hurbilduz, gizonzkoena izan den espazio publikotik edota kultura eta literaturatik, hots emakumeen isiltasun eta bazterketatik, ahotsa eta presentzia izatera pasatzen hasiko direla esan dezakegu, urratsez urrats. Emakume bakan batzuk ondorengo XIX. mendean ezagutzen hasiko dira: Joxepa Antoni Aranberri, Plazida Otaño edota

Joxepa Matea Zubeldia, besteak beste. 1980-1990eko hamarkadetan ordea, gora egiten du emakume bertsolarien ikusgarritasunak. Izan ere, 1985ean lehen aldiz agertu zen emakume bat txapelketa batean: Kristina Mardaras. Bertso eskoletan ere lehen emakume bertsolaria agertu zen: Arantzazu Loidi. Gaur egun zerrenda luzatu egin da, eta herri eta belaunaldi desberdinetako emakumeak dabilta bertsotan.

1.1.4.2.-Emakume bertsolarien identitatearen eraikuntza

Elaine Showalterrek (1983) emakume idazle britanikoen literaturan hiru etapa bereizi zituen haien identitate sortzailea eraikitze orduan, lehena, emakume idazleak gizonezkoen literatur lana imitatzen hasi ziren rol maskulinoari jarraituz edo haiei zegokien rol femeninoa performatuz. Bigarrena, ematen zitzaizkien aukera estu eta zurrunen aurrean protestatu zuten eta emakumezkoen eskubideak defendatu zituzten kokapen feminista batetik hitz eginez. Eta azkenik, hirugarrena, eredu hegemonikoa eta aldarrikapen feminista atzean utziz idazkera propioa sortu zuten, haien barruko ahotsaren bila joanez (Moi, 2006). Emakume bertsolariak ere bide hori egiten ari dira, gaur egun faseak aldi berean bizi direla esan daiteke, beraz azken fasera ailegatzeko hegemoniarekin, boterearekin eta tradizioarekin negoziatzen hasi dira. Horrela, bistan dago emakume bertsolarien hausnartze, deseraikitze eta saretze prozesua azkenengo hamarkadetan.

Gai honen harira, generoa bertsoaren munduan lantzeko ekimenak sortu dituzte emakume bertsolariak, bertsolaritzan genero ikuspegia eta feminismoa txertatzeko hain zuzen. "Emakumeak plazara" izeneko ekitaldia burutu zuten duela zenbait urte, eta "Ez da Kasualitatea" 2009. urtean sortutako emakumeen saio musikatua gaur egunera arte heldu da (Artetxe, 2019). Oso esanguratsua da, adibidez, Bertsozale Elkartek 2020ko udaberrian etorkizunera begira aurkeztu zuen proiektuaren hiru zehar-lerroetako bat feminismoa izatea (Bertsozale Elkartea, 2020). XXI. mendean emakume sortzaileek eremu publikoan egoteko eskubidea eta beharra aldarrikatu dituzte, gainera plazandre terminoa erabiltzen ari dira. Generoari buruzko hausnarketa kritikoa egin dute eta, ondorioz, euskal kulturak eta hizkuntzak duen ikuspegi androzentrikoa salatu dute.

Honela, bertsolaritza tradiziotik modernitaterako bidea egiten ari den bezala, emakume bertsolariak aldaketa prozesuan daude. Showalterren teoria kontuan hartuta (1983), esan daiteke, emakume bertsolariek ahanztura eta isiltasunetik ahots propioa aurkitu eta erabiltzeko bidean daudela.

Nancy Downing eta Kristin Roushek (1985) azaldu zuten identitate feminista eraikitzeko ezinbestekoa dela kontzientziarioa eta generoaren inguruan dauden aurreiritzi eta diskriminazioak gainditzea. Bertsolaritzaren alorrean zentratzen bagara, bide horretan hainbat lan eta hainbat estrategia aurki ditzakegu; esparru ezberdinetan genero perspektiba txertatzen ari baitira. Bertso-eskolek eragina izan dute garrantzi handia duten emakume bertsolarien bertsoekiko konpromisoan, bertan ezagutzera ematen direlako bertso hautatuak eta horien gaineko hausnarketa bultzatzen delako ikuspegi kritikoa sustatuz, bertso-eredugarri gisa buruz ikastearekin batera. Emakume askoren topagunea izan dira bertso-eskolak eta egun ere izaten ari dira; bat-batekotasuna eta sormena lantzeaz gain, emakume bertsolarien kontzientzia feminista eraikitzeko guneak direlako (Lasarte et al., 2016).

Emakume bertsolari askok kontzientzia feminista eraiki dute, edo eraikitzen ari dira, bertsolari izateko eredu hegemonikoa den plazagizona izan zuten erreferente horretatikaldenduz eta haien irudia sortuz, baina horra heldu ahal izateko krisi garai bat pasatu behar izan dute, aldaketarako inflexio puntua. Krisi horretan konturatu dira beren bertsolari-identitatea eta beren emakume-identitatea eraikitzen dituztela tradizioak emandako rol bereiztu eta menpekoetan oinarrituta, rol maskulinoa edota rol femeninoa desberdinduz (Lasarte et al., 2016). Horrez gain, konturatu dira ez dela arazo pertsonal eta bakan bat aipatutako rol murriztatzaileetan eroso ez sentitzea, baizik eta emakume bertsolari guztiei gertatzen zaiela emakume izateagatik, patriarkatua egitura sozial bat baita, sexista eta androzentrikoa. Ildo horretan, Laura Borràs-ek azaltzen du identitatearen kontzientzia hartzearen garrantzia:

Se trata en cierta manera de un paso necesario, de un acto de supervivencia que supone mirar hacia atrás con una conciencia atenta para releer y re-ver con ojos nuevos el viejo relato de los roles sexuales y sociales (Laura Borràs, 2000:18).

Esan daiteke, teorizazio zein praktika feministak presente daudela bertsolaritzan, eta

bertso-eskoletan eta hezkuntza arautuan dihardutela emakume bertsolari eta irakasleak norabide horretan lanean. Hori dela eta, doktorego tesi honek emakume bertsolarien ekarpena argitan ipini nahi du, ikusgarri egin, eta horretarako egungo bertso-eskoletan eta hezkuntza formalean emakume bertsolari-irakasleek egiten duten lanaren analisisan oinarrituko da.

1.1.4.3.-Aurrekariak eta ikerketak

Carmen Larrañagak (1994, 1995, 1997, 2000a, 2000b) bertsolaritzaren konplexutasunaren aldarrikapena egin du askotan, ikuspuntu historiko eta soziologiko batetik begiratu baitio arte horri. Egile hau izan da bertsolaritzaren historian emakumeen izenak idazten hasi zena, batetik, ikusezin zirenen egoeraren inguruko zergatia aztertu zuen, eta bestetik, 1990-1995 bitartean kantuan agertu ziren emakumeak izendatu zituen.

Xabier Aierdi eta haren kolaboratzaileen ikerketak (2007) bertsolaritzak modernizazio bidean bildutako ezaugarriak ikertu ditu. Horien artean, bertsolaritzaren prestigioaren gorakada, komunikabideek izan duten eragina, edo bertsolarien eta publikoaren profilen aldaketa daude. Ainhoa Agirreazaldegia eta Arkaitz Goikoetxearen “*Verse Schools*” (2007) artikuluan bertso-eskolen historia eta egungo bertso-eskolen ezaugarriak aipatzen dira. Eric Dicharryk 2013an bertso eskolen inguruan idatzitako *L’écologie de l’éducation: Un anthropologue à l’école du bertsularisme en Pays Basque* oso lan esanguratsua dugu. Egile honek bi bertso-eskolatan egin zuen bere ikerketa eta bertan bertsolaritzaren irakaskuntzari begiratu zion planteamendu berritzaileak aurkituz.

Esparru honetan, ezinbestekoa da aipatzea Gema Lasartek eta haren kolaboratzaileek Emakunderen eskutik aurrera eramandako lana: “Emakume bertsolariak: ahanzturatik diskurtso propiora” (2016). Bertan aipatzen dira emakumeak eremu publikora hurbiltzea ahalbideratu dituzten faktoreak. Faktore horien artean bertsolaritzaren modernizazioa, bertso-eskolen sorrera, generoaren inguruko kontzientziazioa, erreferenteen agerpena eta emakume bertsolariek aurrera eramandako ekimenak aletzen dira.

Emakume bertsolariak modernizazioarekin batera gradualki joan dira agertzen bat-batekoan. Emakumeen presentzia hau indartzera datorrena eta bertsolaritzaren modernizazioarekin lotura zuzena duena bertso-eskolen sorrera da, eta gai honen lanketa, besteak beste, Miren Artetxek (2019) eginiko tesian dugu. Bere lana Ipar Euskal Herriko bertso-eskoletan zentratu da eta bertan gazteen hizkuntza ibilbideak ikertu ditu. Ondorio lez, gazteentzat hizkuntza ohituren aldaketak batez ere gazte identitatea eraikitzekeko estrategiak dira eta horiek euskaraz egiteko aukera ematen dute bertso-eskolek.

Uxue Alberdik *Kontrako ezta* lanean (2019) hamabost emakume bertsolari elkarrizketatu zituen eta elkarrizketatuok jasaten dituzte eraso sexistak bildu ditu bere lanean. Baina autore honek aipatzen duen lez, edozein alorretan aurkitzen diren erasoak dira hauek, ez soilik bertsolaritzan, emakumea eremu publikoan egotea delako zigortzen den arau haustea.

Bertsolaritza Feminismotik (bir)pentsatzen (2019) argitalpena ere aipatu behar da. Miren Artetxek eta Ane Labakak publikatutako liburua da eta bertan bertsolaritza eta feminismoaren uztarketa egiten da; hausnarketarako hainbat kapitulu biltzen dira aurretik UEUK Katakragen 2018an antolatutako udako ikastaro batean oinarrituta: *Bertsolaritza genero ikuspegitik*. Dakigun bezala, perspektiba feminista zabaldu da bertsolaritzaren alorrean eta liburu honetan bertso-mundua feminismotik ikertzean ateratzen diren hainbat gogoeta islatzen dira.

Urte berean, *Jakin* aldizkariaren 231. alean, “Bertsoari neurria hartzen” monografikoa kaleratu zuten. Bertan, Zubiri eta Hernandezen ikerlanei leku egiten zaie eta mahai-inguru bat sortu zen bertsogintzatik azken ikerketei begiratzeko eta etorkizunerako erronkak marrazteko xedearekin, Andoni Egaña, Miren Amuriza eta Maialen Lujanbioren hitzak jasoz. Lan asko egiten ari dira azkenengo urteetan eta joera horren barruan kokatzen dugu gure lan hau.

1.2.- Helburuak

Hona hemen tesi honen kapituluetakoko helburu nagusiak, helburu orokor bakoitzari atxikitzen zaizkio berariazko helburu batzuk eta dagokion artikulua izena.

1.2.1. Lehenengo helburu orokorra: gaur egungo emakume bertsolarien profila ezagutzea, ahalduntzeko elementu erraztatzaileak eta gorputza oholtzan duen garrantzia ezagutzea. Helburu honi erantzuna emateko bigarren kapituluaren agertzen den artikulua egin zen: “Las mujeres bertsolaris, agentes en su incorporación a la escena pública”. Berariazko helburuak honako hauek dira:

- 1.- Egungo emakume bertsolarien profila ezagutu nahi da.
2. Elkarrizketatutako emakume bertsolariek dituzten ezaugarrien artean detektatu nahi da agentziaren dinamizatzaile diren edo izan daitezkeen elementuak.
3. Etorkizunean ahalduntze bidea erraztu dezaketen elementuei buruz hausnartu nahi da.
4. Gorputza agente gisa hartuta, ikus nahi da zer gorputz ibilbide landu dituzten elkarrizketatutako emakumeek ikuskizuneko emakume bezala egindako bidaietan.
5. Gorputza agente gisa hartuta, azken hamarkadetan ikertu nahi da nola lagundu duten emakumezkoek haien gorputzak indartzen.

1.2.2. Bigarren helburu orokorra: emakumeen rolak, emakumeen tematikak, eta emakumeen kantu-estiloa ezagutzea. Helburu honi erantzuna emateko hirugarren kapituluaren agertzen den ikerketa gauzatu zen, izenburua honako hau izanda: “Women bertsolaris, reclaiming the past and singing the present”. Berariazko helburuak honako hauek dira:

1. Bertsolariek tradizionalki emakumeak eta emakumezkoen gaiak nola irudikatu dituzten eta gaur egun nola egiten duten jakitea.
2. Bertsolaritzaren alorrean landutako gaiak genero ikuspegitik aztertzea eta gai horiek eta gaiak lotutako rolak identifikatzea.
3. Kantu-estilo zehatzak generoaren arabera baldintzatzen diren zehaztea, eta

hala bada, horiek aztertzea.

1.2.3. Hirugarren helburu orokorra: gaur egun bertso-eskoletan zer-nolako metodologia eta irakaskuntza estilo erabiltzen diren ezagutzea eta behatzea. Helburu honi erantzuna emateko laugarren kapituluan agertzen den ikerketa gauzatu zen, izenburua honako hau izanda: “Poto berriro ez egiteko. Bertso-eskoletako emakume bertsolari-irakasleen ekarpen metodologikoa”. Berariazko helburua honako hau da:

1. Emakume bertsolari-irakasleek bertso-eskoletan erabiltzen dituzten metodologiak (estrategia pedagogikoak, klaseratutako jarduerak, baliabide material eta didaktikoak), irakasteko moduak (estilo pertsonalak, komunikatzeko gaitasuna, motibatze trebetasuna, inplikazioa eta konpromisoa) eta erabilitako bitartekoak nolakoak diren ezagutzea.

1.2.4. Laugarren helburu orokorra: Zer-nolako aspektu sozio-emozionalak lantzen diren ezagutzea, ahalduntze prozesuan ikasten nola laguntzen den jakitea. Helburu honi erantzuna emateko bosgarren kapituluan agertzen den ikerketa gauzatu zen, izenburua honako hau izanda: “Bertso-eskolak: alderdi sozio-emozionalaren garrantzia ahalduntze prozesuan”. Berariazko helburuetan honako hau aztertu nahi izan dugu:

1. Bertso-irakasleek bertso-eskoletan eta hezkuntza arautuan zer-nolako metodologiak erabiltzen dituzten.
2. Bertso-eskoletako irakasleek zelan kudeatu duten aspektu sozio-emozionalaren zaintza.
- 3.- Nola adierazten diren ahalduntze eta agentzia prozesuak euren diskurtsoetan eta euren metodologietan.

1.3.- Metodoa

Lan honetan azaltzen den ikerketa metodologia kualitatiboan oinarrituta dago, hain zuzen kasu-azterketa baten aurrean gaudela esan daiteke, eta autore batzuen ustez, hauxe da gehien erabiltzen den estrategia ikerketa kualitatiboaren barnean (Colás, 1992). Hala, paradigma interpretatibo batean kokatuta dago eta bildu den informazio gehienak izaera kualitatiboa duela esan daiteke, errealitatean murgiltzeko eta hura ulertzeko aukera ematen baitigu (Denzin, 2000). Hortaz, ikerketa mota honek pertsonen motibazioak, interpretazioak eta hausnarketak ulertzen laguntzen digu (Latorre, 2005; Pérez Serrano, 2014).

Puntu honetan, aipagarria da Stake-k (1998) egindako sailkapena, non hiru kasu-azterketa mota bereizten dituen bere lanean: kasu intrintsekoa, kasu instrumentala eta kasu kolektiboa. Lehenengoan, esan daiteke, kasua emanda etortzen dela eta ikertzaileak kasu partikular hori ezagutu eta hobeto ulertu nahi duela. Bigarreanean, instrumentalean, ikertzaileak egoera bat ikertzen du, baina kasu honetan, pertsonak modu orokorrean ikertzeko beharra du. Beste era batera esanda, ikertzen duen kasu partikular horri esker egoera orokor bat ulertzeko aukera izango du ikerlariak eta azterketa mota hori izango litzateke kasu instrumentala. Azkenik, kasu kolektiboari dagokiona da, ikertzailearen xedea arazo orokor bat ulertzea da; horretarako kasu bat baino gehiago aztertzen ditu, ahaztu gabe problematika berbera analizatu behar duela kasu guztietan. Gure lanari begira esan dezakegu, kasu instrumental eta kolektibo bezala ulertu dezakegula gure ikerketa; kolektiboa hainbat audientzia kontsultatu baitira egoera bat modu orokorrean ulertzeko, eta instrumentala emakume bertsolariek oholtzan eta bertso-irakaskuntzan izan dituzten bizipenak entzun nahi izan direlako. Azken finean euren ahotsak entzutea ezinbestekoa da emakume horien egoera bertsolaritzan eta bertso-eskoletan irakasteko moduaren garapena ulertzeko.

Aztertzen den kasua (Sandin, 2003) emakume bertsolariek bertso-eskoletan egiten duten ekarpen metodologikoa da. Hainbat alderdi aintzat hartzen dituen ikerketa sistematikoa, zehatza eta sakona ezaugarri dituen arakatzeko-prozesua bezala definitzen da (Rodríguez-Gómez, Gil-Florez eta García-Jiménez, 1996). Ezinbestekoa da parte-hartzaile guztien ikuspuntuak kontuan hartzea, kasu azterketa deskribatzailea lortzeko. Azken

puntu honetan, ikerlariak hainbat estrategia erabili behar ditu informazioa eskuratzeko (Pérez Serrano, 2014). Metodologia hau egokia da jendartea eta hezkuntza uztartzen dituen egoerak deskribatze aldera edo hezkuntza-praktikak hobetzeko gakoak esplizitatzeko (Vázquez Recio eta Angulo Rasco, 2003).

Ikerketak lau fase edo ikerketa nagusi izango ditu. Lehenengo ikerketan emakume bertsolarien profila eraiki da galdetegi baten bidez. Bigarren ikerketan, aztertuko da nolakoak diren bertsoak egiten dituzten emakumeak, zer-nolako estiloak erabiltzen dituzten, tematikak, rolak... Horretarako elkarrizketak eta eztabaida taldeak erabili dira. Hirugarren ikerketan emakume bertsolariek bertso eskoletan erabiltzen dituzten metodologiak eta irakaskuntza estiloak ezagutu nahi izan ditugu. Laugarren ikerketan, emakume bertsolariek eskoletan erabiltzen dituzten baliabide sozio-emozionalak eta ahalduentzako baliabidea ezagutzea izan da xedea. Hala, euren esperientziak, iritziak, sentimenduak, hausnarketak jaso ditugu eztabaida-talde eta elkarrizketa sakonen bidez.

Eta behaketa eta elkarrizketen bidez honako informazio hau jaso da: emakumeen bizipenak bertso-eskoletan, haien emakume-bertsolari identitatearen bilakaeraren berri (krisia, barne-gatazkak eta kontzientziafazio faseak), euren sentimenduak eta pentsamenduak oholtza gainean, klasea ematean erabiltzen dituzten metodologia eta estiloak, eta irakaskuntzari buruz dituzten iritziak eta erronkak. Beste alde batetik, egungo emakumeek bertso-eskoletan erabiltzen duten metodologia aztertzeko eta euren ekarpena zuzenean ezagutzeko behaketa egin da.

Azkenean, errealitate baten ulermena eta interpretazioa egin nahi izan da, zehazki bertso-eskoletan eta hezkuntza arautuan emakume bertsolarien ekarpena, euren bertsolaritzaren irakaskuntza, nolakoa den ezagutu nahi izan da. Horrek eskatu du ikertzaileak testuinguruan murgiltzea, bertso-eskolak bisitatzea eta haiekin mintzatzea bertatik bertara errealitate hori ezagutzeko (Vallés, 2003). Zentzu honetan, elkarrizketatuaren eta ikertzailearen arteko harreman horizontala bilatu nahi izan da, non azken partaide honen boterea ikerketaren onurarako disolbaturik gelditu behar den benetako elkar ekintza komunikatiboa lortzeko (Barbour, 2013; Bodgan eta Biklen, 1982; Colás eta Buendía, 1992; Flick, 2014; Goetz eta Lecompte, 1988; Vázquez, 2003).

1.3.1.- Informazioa biltzeko erabiliko diren partaideak eta tresnak

Emakumeen iritziak ezagutzeko euren ahotsak entzutea posible egiten duten tresnak aukeratu dira, hala nola, galdetegi bat, narratibak, eztabaida taldeak, elkarrizketa sakonak, saioen grabaketak egin dira. Ikerketa hau bertsolaritzaren testuinguruan garatu da, eta bertan hainbat audientzia kontsultatu dira, haien artean, emakume bertsolariak, emakume bertso-irakasleak, bertsolaritzan adituak eta arituak eta bertso-eskoletako ikasle gazteak. Hala, 1.4. taulan ikus daiteke zer nolako parte-hartzaileak egon diren tresna bakoitzean.

1.4. taula: Partaide guztiak

Taldekoak	Banakakoak	Parte hartzaileen kopurua	Emakumeak	Gizonezkoak	Artikulua
	Galdetegia	121	121	0	1.artikulua
ET1		3	3	0	1 eta 2 art
ET2		5	5	0	1 eta 2 art
ET3		6	3	3	1 eta 2 art
ET4		4	4	0	1 eta 2 art
ET5		3	2	1	1 eta 2 art
	R (narrazioa edo errelatoa)	5	5	0	1 eta 2 art
	ES (Elkarrizketa sakona)	10	10	0	1,2,3,4 art
Behaketak B1 B2 B3 B4		4	4	0	3 eta 4 art

Iturria: norberak egin

Galdetegiak egin zirenean 200 emakume bertsolarirekin jarri ginen harremanetan, baina bakarrik 121 galdetegi etorri ziren bueltan eta emaitzak aztertzeko eta interpretatzeko SPSS.22 programa erabili zen.

Gure ikerketan bost eztabaida-talde osatu ziren. Lehenengoa emakume bertsolariekin egin zen (3 bertsolari aritu eta 2 bertsolaritzan aditu). Beste bi eztabaida-taldeak udal bertso-eskoletako ikasle gazteekin egin ziren (5 emakume eta 3 gizon). Eta beste eztabaida-talde bat bertsolaritzan aritzen diren emakume bertsolari eta emakume gai-jartzaileekin egin zen (4 emakume). Azkenengo eztabaida-taldea Bertsozale Elkarteko genero-taldearekin egin zen, hain zuzen ere bi emakume eta gizon batekin. Bi tresna

horiekin jasotako informazioa lehenengo bi artikuluetan ikus daiteke.

Elkarrizketak direla eta, gure ikerketan hamar emakume bertsolari elkarrizketatu dira. Elkarrizketatutako emakumeak bertsolariak izateaz gain bertso-irakasleak dira bertso-eskoletan eta hezkuntza arautuan.

Behaketak ikastetxe arautuetan eta bertso eskoletan burutu dira, hala, 4 emakume bertsolari-irakasle behatu dira eta haien ikasleak, guztira, 16 saioen behaketa egin da. Grabaketa horietan bertsolaritzaren irakaskuntza hezkuntza formalean eta eskolaz kanpoko jarduera bezala behatzeko aukera izan dugu. Hasieran, Hego Euskal Herriko herrialde bakoitzeko irakasle bat hautatu zen grabaketak egiteko, baina zailtasunak zailtasun, azkenean 4 irakaslerekin egin dira eskoletako behaketak: 2 Bizkaian, 1 Gipuzkoan eta 1 Nafarroan.

1.3.1.1.-Eztabaida taldeak

Eztabaida taldeetarako pertsonen hautaketa intentzionala izan da (Salgado, 2007), hautatu baita informazio egokiena eman zezakeen jendea, eta modu horretan, hainbat informazio sortuko da elkarrizketa gidatu batean (Krueger, 1991). Eztabaida-taldeak taldeko elkarrizketak dira. Sakon egindako elkarrizketen ezaugarriak dituzte, baina bertan pertsona bat baino gehiago elkartzen dira. Era horretan, aurretik jarritako helburuen erantzunak bilatu nahi izan dira planteamendu komunikatibo eta dialogikoen bidez (Aubert, García eta Racionero, 2009; Habermas, 1994). Erreminta horrekin honako informazio hau ezagutu nahi izan da: emakumeen bizipenak bertso-eskolan, emakume-bertsolari bihurtzeko jarraitu duten prozesuan izandako kontzientziazio faseak, barne-gatazkak eta krisia, eta euren pentsamendu eta sentimenduak oholtza gainean.

Metodologikoki, hortaz, eztabaidak informazioa eskuratzeko aukera ematen digu, taldean sortzen den solasaldiak gogoaz piztu behar die bertan parte hartzen dutenei; horretarako bertsolariei, bertsozaleei, gai jartzaileei eta elkartekideei galdetu zaie. Limon eta Crespok (2002) esan lez, eztabaida guztietan moderatzaileak adieraziko du elkarrizketaren bidez elkarrekiko errespetua lortu nahi dela. Ildo honetan, Angrosinok (2012) eta Rapleyk (2014) aipatzen duten bezala, datuak biltzea xede duen eztabaida

talde batean ez dago behin-betiko erantzunik, ez bada horiek testuinguruaren eta beste solaskideekiko adierazpenen arabera zentzuz hornitzen direla. Eztabaida taldeak egiteko gidoia ikerketa-taldean adostu da.

Puntu honetan, eztabaida-taldeak emakume bertsolarien gorputzaren presentzia eta haien bertsokerei buruzkoak ezagutzeko erabili ziren. Lehenengo puntuan gorputza oholtzan nola dagoen ezagutu nahi genuen eta horretarako gorputz horien presentzia, irudikapena eta lanketa kontuan hartu dira. Bigarren puntuan bertsotarako gaiak, rolak eta estiloak landu dira (ikus 1.5 taula).

1.3.1.2.- Elkarrizketa sakonak

Elkarrizketetako galderak irekiak dira. Elkarrizketetan emakume bertsolarien testigantzak jaso dira; elkarrizketa sakonak bide zuzena dira pertsonen mundua nola esperimendatzen eta ulertzen duten jakiteko (Kvale, 2011). Elkarrizketa sakonetan pertsona bati eginiko elkarrizketa baten ondorioz eskuratzen da informazioa, horrela gizartearen diagnosiak egin daitezke (Bisquerra eta Sabariego, 2004; Elliot, 2010).

Elkarrizketetan informazio esanguratsua lortu daiteke: sinesmenak, iritziak, esperientziak, eta sentimenduei buruzko datuak, besteak beste (McMillan eta Schumaker, 2005). Elkarrizketa sakonak hausnarketa kritikoa bultzatzen du; elkarrizketatzaileak pertsonen interesak detektatu behar ditu eta balioa eman behar die ekarpen guztiei, errelatu narratiboak sortzen baitira horri esker (Bolívar eta Gijón, 2008).

Elkarrizketak bi multzotan banatuta daude testuinguruaren arabera, bertso-eskolak eta ikastetxe publikoak. Honela, burututako elkarrizketak hainbat ardatz nagusiren bueltan formulatu dira:

- Bertsolaritzan emakume bertsolariek nola irakasten duten eta irakasleok erabiltzen dituzten metodologiak zeintzuk diren (estrategia pedagogikoak, irakasteko moduak) (hauek 1. eta 2. artikuluetan erabili dira).
- Emakume bertsolari-irakasleen lidergoa, estiloa eta begirada nolakoak diren. Gai honen inguruko euren iritziak eta pentsamenduak zeintzuk diren

ezagutuko nahi izan da, (hauek 3., eta 4.artikuluak egiteko erabili dira).

- Bertsolaritza irakasteen lantzen dituzten edukiak eta harremanak
- Baliabide material eta didaktikoak.
- Alderdi sozio-emozionalaren zaintza.

Elkarrizketen erantzunetatik ateratako informazioa edo diskurtsoa alderatu da irakasleen praktikaren behaketarekin.

1.3.1.3. Behaketak

Behaketa etnografikoa erabili da ikasgelako testuinguru naturalean. Anguera-ren ustez (2003), behaketak agerian uzten ditu jokaerak, eta horretarako inportantea da erregistro antolatu bat egitea eta analisia egitea tresna eta parametro egokien bidez. Horrela, detektatu daitezke hainbat erlazio eta bere ondorengo ebaluazioa egin.

Azken finean, behaketak ekintzaren garapen naturalari zein esperientziari buruzko datu-bilduma aberasgarria eskaintzen du (Martí, 2002; Wood eta Smith, 2018) eta landa-ohar pertsonalek aukera ematen dute parte-hartzaileen arrazonamendua (zer esaten duten) eta bihotzetik ateratako emozioa (nola eta zergatik esaten den) biltzeko (Rekalde, Vizcarra eta Macazaga, 2014). Guztira, 16 behaketa egin dira.

- Bertsolaritza nola irakasten duten, irakasleek erabiltzen dituzten metodologiak (estrategia pedagogikoak, klaseratutako jarduerak) eta irakas-estiloa (komunikatzeko gaitasuna, motibatze trebetasuna, inplikazioa) zeintzuk diren.
 - Bertsolaritza irakasteen lantzen dituzten edukiak.
 - Baliabide material eta didaktikoak.
 - Alderdi sozio-emozionalen zaintza.
 - Kontzientzia eta ikuspegi feminista

Eskolen grabaketan transkribapena egin da. Prozesu guztian zehar aditu desberdinen laguntza jaso da, bai metodologian laguntzeko eta bai fidagarritasunean eta balioztatzean orientazioa eta sostengua emateko. Puntu honetan, Angrosinok (2012), baliagarritasuna lortzeko behatzaile anitzekin edo talde batekin lan egitea komeni dela adierazten du, batez ere ikuspegi desberdinak sortzen badira. Talde horietako partaideek ikerketan

lortutako aurkikuntzak bildu ditzakete zehazgabetasunak deskubritzeko eta ezabatzeko.

1.3.1.4.- Grabazioak eta landa oharrak

Datu kualitatiboen analisisa konplexua da, hainbat iturritik lortutako informazioaz arduratu behar da ikertzailea. Transkripzioa egitean audio-erregistroetan eta landa-oharretan jasota dagoena kontu handiz interpretatu behar du, eta informazioa behar duen aldiro kontsultatzeko aukera ematen dio ikertzaileari. Transkripzio bat edukitzeak talde lana ere errazten du, zereginak partekatu daitezkeelako eta adostasuna bilatzeko aukera ematen diolako taldeari (Gibss, 2012). Puntu honetan, esan beharra dago elkarrizketa sakonak, eztabaida taldeak eta behaketak grabatu direla eta hori guztia transkribatu egin dela. Transkribapen literalak egin dira, lehen mailako iturria lortu da eta ikertzaileek hartutako landa-oharrekin osatu da lana. Landa oharrak behatze prozesuan gehien erabilitako erregistro narratiboa izango dira (Vizcarra, Macazaga eta Rekalde, 2009). Landa-oharrak jasotzea ikertzen ari den momentuan egiten den ekintza da; ez planifikatuak, irekiak, normalean araurik gabe idatzitako ideiak dira (Gibss 2012) Laburbilduz, hainbat erregistroetatik abiatu eta elikatu da lana.

1.3.1.5. Galdetegia

Goetz eta Lecompte-k (1988) aipatzen duten bezala, galdetegiei esker galdetutako pertsonen hainbat konstruktore buruz zein esanahi eraikitzen duten jakin dezake ikertzaileak. Hau eginda, horrelako tresna bati esker parte hartzaileei buruzko irudipen bat lortu dezake ikertzaileak eta, bide horretan, bere lana antolatu dezake (Rekalde et al., 2014). Puntu honetan, Goetz et al., (1988) autoreekin bat egiten dugu galdetegen helburua azpimarratzen dutenean. Autore horien esanetan ezinbestekoa da parte hartzaileek dituzten portaerak, sinismenak eta beste zenbait konstruktore zenbateraino partekatzen dituzten jakitea.

Lanean egindako galdetegiak kontuan hartuta, 200 emakume bertsolarirekin harremanetan jarri ginen posta elektronikoko bidez, ikerketa azaldu genien eta haien parte-hartzea eskatu. *Google Forms*en bidez disenaitutako galdetegi bat pasatu zitzaion.

Galderak disenatu ziren bertso-eskoletako emakumeak ezaugarritzeko hiru ardatz nagusiren arabera: datu sozio-demografikoak, bertsoekiko grinaren iturriak (bertso-eskolak bereziki), eta emakume horien feminismoarekiko lotura (eta horren barruan etorkizuneko bertso-eskola feministaren balizko ezaugarriak). Tresna honekin 121 galdetegi jaso genituen eta emaitzak interpretatzeko SPSS.22 programa erabili zen.

1.3.2. Ikerketarekin prozedura eta analisia

Ikerketa honekin hasi nintzen 2015eko irailean doktorego programan matrikulatu nintzen momentuan eta tesi zuzendariak bilatzen hasi nintzen momentuan. Hala EHU 15/27 ikerketa proiektuan lanean aritu nintzen, aldi berean, proiektu horrek bestelako beka bat jaso zuen: 2015eko Emakunderen ikerketa proiektuen saria eta sari horri esker bekadun moduan aritu nintzen IkHezi taldean. Proiektuak eta nire tesiak ez dute bide bera eraman, baina proiektuotan jorratu ditudan hainbat aspektu baliagarriak izan dira nire tesia egiteko.

Askotariko jendeak parte hartu du ikerketa honetan: bertsolariak, bertso-ikertzaileak, bertsolaritzan adituak, bertsozaleak, bertso-eskoletako ikasle gazteak, gai-jartzaileak, Bertsozale Elkarteko langileak, eta emakume bertsolari-irakasleak.

Horretarako, eztabaida taldeei eta narratibei dagokienez, esan beharra dago hasieran Ikhezi taldea bertsolaritzaren inguruan dauden agenteekin harremanetan jarri zela eztabaida taldeak eta narratibak egiteko. Helburuak zeintzuk ziren definituta zeudenean, emakumeen ahotsak eta testigantzak jaso ziren eta bigarren maila batean, bertsolaritzaren egunerokoarekin harremana duten pertsona batzuei galdekatu zitzairen ikuspuntua zabaltzeko. Galdetegiari dagokionez, lan handia egin zen emakume bertsolarien izenak eta helbide elektronikoak bilatzen, galdera-sorta interneten bidez zabaltzeko. Kontaktuak lortu eta gero, emakume bertsolariekin harremanetan jarri ginen ikerketa-egitasmoa azaltzeko eta haien parte-hartzea eskatzeko. Puntu honetan, emakume bertsolarien profila ezagutu nahi genuen. Baietza lortu ostean, posta elektronikoaz baliatu ginen inkesta emakume interesatuei helarazteko. *Google Forms* izeneko aplikazioa oso tresna baliagarria izan zen inkestak eta galdera-sortak bidaltzeko, batez ere lagina geografikoki dispertsoa zelako. Gure lanaren helburuak aurreikusita,

elkarrizketa sakona egin genien 10 emakume bertsolariri. Horrela, gure ikerketa azaldu genien eta onartu zuten haien parte-hartzea. Deitu eta egunak adostu genituen; egoki eta eroso sentitzen ziren leku batean bideratu ziren elkarrizketa sakonak: bertso-eskoletan, tabernan, eta kultur etxean, besteak beste. Azkenik, bertso-eskoletan eta hezkuntza arautuan egin ziren grabaketak. Gure helburua zen emakume bertsolariak irakaskuntzan egiten duten ekarpena ezagutzea eta horretarako 4 emakume bertsolari-irakasle hautatu ziren. Horren aurretik, irakasleekin harremanetan jarri ginen ikerketaren helburua azaltzeko. Ikerketa honetan parte hartzea onartu zuten eta grabaketak aurrera eramateko haien eskola ordutegia bidali ziguten, behaketak egiteko egunak adosteko. Adostu genituen egunak eta aurretik, datu babesari buruzko klausula sinatu zuten ikasleen gurasoek. Horrela bideratu ziren behaketak.

Informazioaren analisia, landa-lanarekin batera, ikerketaren etapa garrantzitsuenetakoa da. Behin informazio guztia bilduta, edukiaren analisia egin da eta kategoriak antolatzeko kategoria-sistema bat sortu da, analisi-tresna izango dena; honek arrazoinamenduak (zer esaten den) eta emozioak (nola eta zergatik esaten den) batzea ahalbideratzen du (Rekalde, Vizcarra eta Macazaga, 2014). Sistema kategorialean kategoriak antolakuntza hierarkikoa jarraitu dute, kategorizazio axiala egin baita, eta sorrera induktibo-deduktiboa izan du. Deduktiboa aurretik egin diren ikerketak gainbegiratu direlako, eta induktiboa, beti uzten geniolako tarte bat bertsolarien ahotsetatik jasotzen zenari. Horregatik, esan daiteke, planteamenduak induktibo-deduktiboa izaera duela, alde batetik espero diren erantzunak aurreikusi direlako (deduktiboa) eta bestetik espero ez diren erantzunak kategoriatan bildu direlako (induktiboa), oinarritutako teoriak eskatzen duen bezala (Sandin, 2006; Sabariego, Vila eta Sandin, 2014). Metodo horrek jasotako iritzien esanahiak ezagutzea, aukeratzea, sailkatzea, alderatzea eta interpretatzea eskatzen du (Goetz eta Lecompte, 1988).

Hainbat tresnatatik (eztabaida taldeak, elkarrizketa sakonak eta grabaketak) eskuratutako informazioa sailkatzeko eta antolatzeko sistema kategorialak erabili dira. Fenomenoetatik lortutako informazioa kontzeptu nagusi batzuen arabera antolatu da dimentsioak definituz. Ondoren, eta eskuratutako informazioaren arabera, dimentsio horiek ere xehatu dira kontzeptu zehatzagoetan, kategoriak eta azpikategoriak

definitzeko (Coffey eta Atkinson, 2003; McMillan eta Schumacher, 2005; Rapley, 2014; Rodríguez, Gil eta García, 1996). Sistema kategorialaren bidez erantzunak antolatu eta ordenatu dira, kategoria-sistema horren arabera informazioa sailkatu ahal izateko eta esanahiak egituratzeko. Hau guztia egiteko, *Nvivo 11 plus* tresna digitala erabili da, kategoria eta dimentsioen antolakuntza errazten baititu eta era berean, tresnak berak esan dezake kategoria baten maiztasuna zein den, hau da, zenbat aldiz tratatzen den tematika berbera. Azken hau datu interesgarria izan arren, ez da informazioaren balioaren baldintzatzailea, datu bat gehiago baino ez da izango.

1.3.3. Kategoria sistemak eta kodeak

Esan bezala, jasotako informazioa kategoriatan sailkatu zen eta taldeko hainbat ikertzailek berrikusi zuten. Hori egindakoa, sistema kategorialak erabili ziren analisia egiteko. Horrela, lortu ziren datuak sailkatzeko dimentsio diferenteak erabili eta emaitzak *NVivo11 plus* programaren bidez tratatu ondoren, interpretatu ziren. Kontzeptualizazio eta interpretazioa egin zen kategoria-sistemaren bidez. Ezinbestekoa zen jasotzen zen informazioa ordenatzea eta antolatzea (Rodríguez, Gil eta García, 1996).

Esan beharra dago, lan honetan erabili ziren kategoria-sistemak behin baino gehiagotan aldatu eta berrantolatu egin zirela, diskurtsoetan agertzen zen informazio eta esanahi berriak jaso behar zirelako. Lau kapituluetan ikusten den bezala, kategoriei buruz hitz egiten da eta lehenengo artikuluan izan ezik, beste guztietan sistema kategoriala ikus daiteke.

Lehenengo kapituluaren, galdetegiak, eztabaida-taldeak, narratiba eta elkarrizketa sakonak erabili ziren informazioa jasotzeko. Informazio horretan emakume bertsolaria aldaketaren agente gisa, bertsolarien profila, botere harremanak bertsolaritzan, emakumearen presentzia eta ahalduntze prozesuari buruzko informazioa jaso zen. Hau guztia interpretatu zen emakumeen gorputza ardatz gisa kontuan hartuta eta gai horiek nola bizi izan zituzten.

Bigarren kapituluaren 10 eztabaida taldeetako informazioa eskuratu zen. Informazio hori antolatzeko hurrengo kategoria-sistema erabili zen. Ikus daitekeen bezala bertsotarako gaiak, estiloak eta rola kontuan hartu ziren (ikusi 1.5. taula).

1.5. *taula*. Bigarren artikulua-ren kategoria-sistema

Dimentsioa	Kategoria
1. Bertsokerak: bertsoarako gaiak, estiloak eta rolak	1.1. Emakumea gai gisa (tradizioan eta gaur egun)
	1.2. Gai motak
Bertsoei genero ikuspegitik begiratzen dietenean eta bertsoak kantatzean gertatzen direnak jasotzean esandakoak, prozesu eta egoera komunikatibo horrekikoak	1.3. Gaietan planteatutako rolak
	1.4. Estilo motak

Iturria: Norberak egina

Hirugarren artikuluan, behaketa eta elkarrizketa sakonetatik informazioa kategorietan antolatu zen. Puntu honetan, metodologiari buruz ikertu nahi zen eta 1.6. taulan agertzen den kategoria sistema erabili zen.

1.6. *taula*. Hirugarren artikulua-ren kategoria-sistema

Dimentsioak	Kategoriak	Azpikategoriak
Bertso-eskoletako irakaskuntza metodologia garaikidea (metodo aktibo, berritzaile eta kritikoak)	Metodologia tradizionala eta metodologia berritzaileak (ikaskuntza-irakaskuntza lortzeko diren eta estrategiak, jarduerak, lehen eta orain)	Metodo tradizional-patriarkala (egun bertso-eskoletan irakasle dabilzan emakume bertsolariek ikasle gisa jaso zutena). Metodo berritzaile kritiko-feministak (egungo emakume bertsolariek bertso-eskoletan irakasle gisa erabiltzen duten metodologia.
		Irakaskuntza metodoak Metodologia aktiboak eta lidergo motak Kontzientzia feminista/pedagogia feminista Bertsolaritza hezkuntzan: euskal curriculumean, baliabide eta materialak.

Iturria: Norberak egina

Azkenik, laugarren artikuluan hainbat aspektu kontuan hartu ziren: aspektu sozio-emozionala eta ahalduntze eta agentzia prozesuak, kasu. Horretarako behaketa eta

elkarrizketa sakonetan lortutako informazioa 1.7. taulan jasotzen den kategoria-sisteman sartu zen.

1.7. taula. Laugarren artikulua kategoria-sistema

Dimentsioak	Kategoriak	Indikatzaileak
Hezkuntza-arautua eta bertso-eskolen metodologia (eskolen egoera orokorra eta irakaskuntza eredu proposamena)	Metodologia	Erabiltzen diren metodoak (jaso dutena eta proposatzen dutena)
	Aspektu sozio-emozionala banakakoa (ikasle-irakasle)	Feedback (positiboa, negatiboa, zuzentzailea). Nola zuzentzen duen, noiz, arazo kognitiboak, ikaskuntza esanguratsua.
		Agentzia (ahaldundu, baliabideak eman, arriskuen aurrean prestatu)
		Segurtasuna, autokonfiantza
	Aspektu sozio-emozionala: taldekoa	Talde lana, kohesioa
		Generoaren trataera

Iturria: Norberak egina.

Ikusi den bezala, hainbat iturritako informazioa lortu da: galdetegiak, eztabaida taldeak, elkarrizketa sakonak, behaketak eta landa oharrak. Horrela, informazio guztia kudeatzeko kodeak erabili dira.

Lantaldeen oharrak LO1 eta LO2 izendatu ziren, eztabaida taldeak ET1, ET2, ET3, ET4 eta ET5 eta narratibak Er1, Er2, Er3, Er4 eta Er5 kodeekin. Puntu honetan emakumezkoen ahotsak baziren E letra erabiltzen zen eta gizonezkoen ahotsak agertzen baziren G letra. Galdetegian 121 erantzun lortu genituen, baina datu horiek interpretatzeko SPSS. 22 programa erabili zen eta ez genuen koderik sartu. Programak atera zituen gerora erabili genituen estatistikak.

Elkarrizketa sakonetako partaideak izendatzeko honako kode hauek erabili ziren: Berts1 20151112; Berts2 20151119; Berts3 20151201; Berts4 20151201; Berts5 20151203; Berts6 20151224; Berts7 20160104; Berts8 20160109; Berts9 20160115; Berts10 20160131. Elkarrizketatutako bertsolari bakoitzari zenbaki bat eman zitzaion eta

kodea elkarrizketaren egunarekin osatu zen. Bukatzeko, behaketetako partaideak honako kode hauekin izendatu genituen: Irakas1, Irakas2, Irakas3 eta Irakas4.

1.3.4. Egiazkotasuna

Lehen aipatu den bezala, datu ugari bildu ziren ezagutu nahi zen errealitatea ulertze aldera, horrelako datu kualitatiboen bilduma baten azterketa egin ahal izateko logika eta koherentzia kontuan izan behar dira (Mendizabal, 2006). Parte-hartzaileen ahotsak hartu ziren bezala transkribatu ziren eta informazioa biltzeko hainbat kategoria-sisteman bildu ziren. Colas-ek (1992) esaten duen bezala, egiaztagarritasuna lortzeko erregistro batzuk daude eta lan honetan transkribapenak ditugu bideo eta audio grabaketetatik eskuratutakoak. Horrela, testu dokumentuak eskuratu ziren egiaztagarritasun hori bermatu ahal izateko (Aristizabal, 2011).

Triangulazio estrategia aproposa da ikertutako fenomenoari buruzko interpretazio aberatsa egiteko (Vizcarra et al., 2008). Honi dagokionez, Elliot-ek (1980) aipatzen du triangulazioa datuak konparatzeko eta kontrastatzeko prozesua dela, ikuspuntu desberdinetatik lortutako datuak, kontaktak besteak beste, mahaigaineratzen zirelako. Begirada bakarra erabiltzeak bere mugak dituela onartzean ikertzaileak estrategia berriak erabiltzera jo behar du eta triangulazioaren bidez datuei buruzko konfiantza handiagoa lortu daiteke (Mendizabal, 2006).

Triangulazioan oinarrituta, Denzinek (1970) lau triangulazio mota aipatzen ditu bere lanean: datuen, ikertzaileen, teoriaren eta metodologiaren triangulazioa hain zuzen. Datuen triangulazioari esker, denbora, espazio eta pertsona desberdinak kontuan hartzen dira. Ikertzaileen triangulazioari dagokionez, hainbat ikertzailek eta profesionalak parte hartzen dute datuen interpretazioan. Triangulazio teorikoan aztergaia azaltzen duten korrante teoriko desberdinak kontuan hartzen dira, eta horrela, errealitate soziala aztertzean ikuspegi teoriko bakarra erabiltzeak dakartzan joerak gainditzen dira. Laugarren triangulazio motari dagokionez, metodologian oinarritzen da eta bi metodo edo gehiago erabiltzean datza.

Gure lanari begira, esan daiteke, triangulazio anizkoitza egin dela, datuen, ikertzaileen eta metodoen triangulazioak erabili direlako. Hiru mota hauek funtsezkoak

izan dira ikerketa bideratzeko eta baliozko ondorioak lortzeko. Horrela, bertsolaritzaren hainbat pertsonarekin egin da ikerketa, denbora eta espazio desberdinetan. Gainera, hainbat arlotako pertsonak parte hartu dute lanaren datuen analisian, hainbat angelu eta perspektiba kontuan hartuz. Azkenik, batez ere ikerketa kualitatiboa egin da kategorizazioen analisi-unitateetan oinarrituz, izan ere datu kuantitatibo gutxi lortu dira pasatu diren galdetegietan.

1.4. Ikerketen antolakuntza

Ikerketaren antolakuntzari dagokionez, 1.8. taulan agertzen da lanaren lau kapituluaren laburpen-taula:

1.8. taula. Lanaren artikulua eta ezaugarriak

Artikuluak	Ezaugarriak
2. kapituluak: Las mujeres bertsolaris, agentes en su incorporación a la escena pública	Helburua: gaur egungo emakume bertsolarien profila ezagutzea, ahalduntze prozesua errazten duten faktoreak zeintzuk diren ezagutzea; gorputza oholtzan nola dagoen ezagutzea.
	Aldizkaria: <i>Boletín de Literatura oral</i>
	Sinatzaileak: Gema Lasarte Leonet, Maria Teresa Vizcarra Morales, Andrea Perales de Gamboa eta Vanesa Fernández Rodríguez
	Partaideak eta tresnak: 121 galdetegi eta 36 pertsona (5 eztabaida talde, 5 narratiba eta 10 elkarrizketa).
	Marko teorikoa: emakume bertsolariak aldatetaren agente gisa; ikusezintasuna vs. ikusgarritasuna; bertsolariaren profila, nola sortzen den aldatetaren beharra eta agentzia izatearen beharra; bertsolaritza espektakulu gisa, emakumearen presentzia, ahalduntze prozesua; botere harremanak bertsolaritzan.
Ondorioak: Ikertutako emakume bertsolariak, nagusiki emakume gazteak dira, unibertsitate ikasketak dituztenak eta ekonomikoki independenteak. Bertso-eskolak leku seguruak dira	

	<p>emakumeentzat eta hainbat faktorek eragin dute emakume horiek oholtzarako pausoa ez emateko. Bertsolaritzaren alorrean genero sentsibilizazioa behar dela ondorioztatzen da.</p>
<p>3. kapitulua: Women bertsolaris: reclaiming the past and singing the present</p>	<p>Helburua: emakumeen rolak, emakumeen tematikak, eta emakumeen kantu estiloak ezagutzea.</p> <p>Aldizkaria: <i>Prisma Social</i></p> <p>Sinatzaileak: Gema Lasarte Leonet, Vanesa Fernández Rodríguez; Amaia Alvarez-Uria eta Ainhoa Gómez Pintado.</p> <p>Partaideak eta tresnak: 25 emakume 10 eztabaida taldetan.</p> <p>Marko teorikoa: Bertsolaritzaren definizioa, kantua eta testua, ahalduzko ereduak, emakumea eta kultura, emakumeen irudia historian, emakumeen estiloak nolakoak diren.</p> <p>Ondorioak: emakumeak objektu izatetik subjektu izaterako bidean emakumearen irudikapena aldatze bidean jarri dute. Emakume bertsolaria kontzientzia politikoa hartzen doan neurrian ordea, estereotipoak eta rolak deskodetzen hasi da eta aldaketa honetatik emakumeen irudikapen anitz eta errealak edota rol berriak abian jarri dira emakume bertsolariak sortzen ari diren diskurtsoetan.</p>
<p>4. kapitulua: Poto berriro ez egiteko. Bertso-eskoletako emakume bertsolari- irakasleen ekarpen metodologikoa</p>	<p>Helburua: egun bertso-eskoletan emakume bertsolari-irakasleek zer-nolako metodologia eta irakaskuntza estilo erabiltzen duten ezagutzea eta behatzea.</p> <p>Aldizkaria: <i>Fontes Linguae Vasconum</i> aldizkariara bidali da, oraindik errebisio fasean dago.</p> <p>Sinatzaileak: Vanesa Fernández Rodríguez, Amaia Alvarez-Uria eta Maria Teresa Vizcarra Morales.</p> <p>Partaideak eta tresnak: 16 behaketa egin ziren 4 bertsolari</p>

	<p>irakasleri. Gainera 10 elkarrizketa sakon egin ziren.</p>
	<p>Marko teorikoa: bertsolaritza euskal curriculumean, bertsolaritzaren irakaskuntzan erabilitako metodologia eta baliabideak, irakasle estiloak eta lidergo motak.</p>
	<p>Ondorioak: egungo emakume bertsolariek erabilitako metodologiek, irakaste estiloek eta materialek ikasleen beharrak kontuan hartzen dituzte. Genero perspektiba ere txertatu da eta ondorioztatzen da emakumezkoen identitate eta kontzientzia feministak aldaketak ekarri dituela bertsolaritzaren irakaskuntzara.</p>
<p>Kapitulu 5: Bertso-eskolak: alderdi sozio-emozionalaren garrantzia ahalduntze prozesuan.</p>	<p>Helburua: Zer-nolako aspektu sozio-emozionalak lantzen diren ezagutzea, ahalduntze prozesua laguntzen ikasten da?</p>
	<p>Aldizkaria: <i>Revista de Lenguas y Literaturas Catalana, Gallega y Vasca</i> aldizkarira bidali da, oraindik errebisio fasean dago.</p>
	<p>Sinatzaileak: Vanesa Fernández Rodríguez, Maria Teresa Vizcarra Morales eta Amaia Alvarez-Uria.</p>
	<p>Partaideak eta tresnak: 16 behaketa eta 10 elkarrizketa sakon.</p>
	<p>Marko teorikoa: adimen emozionala, emozioen kudeaketa bertsolaritzan, bertsolarien trebetasun pertsonalak eta sozialak, agentzia eta ahalduntzea.</p>
	<p>Ondorioak: egungo bertsolaritzaren irakaskuntzak kontuan hartzen du adimen emozionalaren lanketa, bai pertsonala eta bai taldekoa. Genero perspektiba txertatu da metodologian eta irakasleek haien ikasleak ahalduntzen saiatzen dira, bide horretan agente aktibo bihurtze aldera.</p>

1.5. Erreferentziak

Agirre, M. (2014). *Arabako bertso-eskoletako gazteak eta euskararekiko atxikimendua*.

Retrieved from:

http://hiznet.asmoz.org/images/stories/ikerketa_lanak/2014/HIZNET_Manex%20Agirre.pdf atxikimendua (Gradu Amaierako Lana). Hiznet 2013-2014.

Agirreazaldeggi, A. & Goikoetxea, A. (2007). Verse Schools. *Oral Tradition Journal*, 22(2), 65-68.

Aierdi, X. (2007). *Bertsolaritza tradizio modernoa*. Bilbao: UPV/EHU.

Alberdi, U. (2019). *Kontrako eztaeratik. Emakume bertsolarien testigantzak*. Zarautz: Susa.

Angrosino, M. (2012). *Etnografía y observación participante en investigación cualitativa*. Madrid: Morata.

Aristizabal, M. P. (2011). *Emakume eta gizonen berdintasuna irakasleen formazioan: Gasteizko Irakasle Eskolaren Kasua*. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea.

Armistead, S. G. & Zulaika, J. (2005). *Voicing the Moment: Improvised Oral Poetry and Basque Tradition (No. 3)*. Reno: University of Nevada Press.

Artetxe, M. (2019b). *Ipar Euskal Herriko bertso-eskoletako gazteen hizkuntza ibilbideak. Gazte identitateak, hizkuntza mudantzak eta legitimazio prozesuak*. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Artetxe, M. & Labaka, A. (2019). *Bertsolaritza feminismitik (bir)pentsatzen*. Bilbao: Udako Euskal Unibertsitatea.

Aubert, A., Garcia, C. & Racionero, S. (2009). El aprendizaje dialógico. *Cultura y educación*, 21 (2), 129-139. DOI: <https://doi.org/10.1174/113564009788345826>

Barandiaran, A. (2011). *Beste larogei urtian. Basque Country*: Euskal Herriko Bertsozale Elkarte.

Barbour, R. (2013). *Los Grupos de discusión en la Investigación Cualitativa*. Madrid: Morata.

Baroja, J. (1972). *Los Vascos y la Historia a través de Garibay*. San Sebastian: Txertoa.

Becker, H. (1970). *Sociological Work. Method and Substance*. Chicago: Alan Lane The Chicago Press.

- Begiristain, E. (2011). *El bertsolarismo, en el camino de la igualdad*. Retrieved from: <http://emakunde.blog.euskadi.eus/2011/08/el-bertsolarismo-en-el-camino-de-la-igualdad/>
- Bertsozale Elkartea. (2019-2020). *1800 lagun, bertsotan trebatzen eta ondo pasatzen*. Retrieved from: https://www.bertsozale.eus/eu/albisteak/1-800-lagun-bertsotan-trebatzen-eta-ondo-pasatzen?set_language=eu
- Bertsozale Elkartea. (2020). *Bertsozale elkartea gero(r)a mugitzen*. Retrieved from: <https://www.bertsozale.eus/eu/elkartea/bertsozale-elkartea-gero-r-a-mugitzen>
- Bertsozale Elkartea. (2021). *Bertsoa hezkuntza arautuan: etengabe egokitzen eta berritzen*. Retrieved from: <http://www.bertsolari.eus/bertsolaritzaren-hemeroteka/bertsoa-hezkuntza-arautuan-etengabe-egokitzen-eta-berritzen/>
- Bisquerra, R. & Sabariego, M. (2004). *Metodología en la investigación cualitativa*. Madrid: La Muralla.
- Bogdan, R. & Biklen, S. K. (1982). *Qualitative research for education: an introduction to theory and methods*. London: Allyn and Bacon.
- Bolívar, A. & Gijón, J. (2008). Historias de vida que deshacen profecías de fracaso. *Cuadernos de Pedagogía*, 382, 56-59.
- Borrás, L. (2000). Introducción a la crítica literaria Feminista. In M. Segarra & A. Caribí (eds). *Feminismo y crítica literaria* (13-30 or.). Barcelona: Icaria.
- Coffey, A. & Atkinson, P. (2003). *Encontrar el sentido a los datos cualitativos*. Medellín: Contus.
- Cohen, J. (1960). A coefficient of agreement for nominals scales. *Educational and Psychological Measurement*, 20(1), 37-46. doi: 10.1177/001316446002000104
- Colás, P., González, T. & de Pablos, J. (2013). Young People and Social Networks: Motivations and Preferred Uses. *Comunicar*, 20(40), 15-23. doi: 10.3916/C40-2013-02-01
- Colás, M. P. & Buendía, L. (1992). *La investigación educativa*. Sevilla: Alfar.

- Denzin, N.K. (1970). *The research act: A theoretical introduction to sociological methods*. New Jersey: Transaction publishers.
- Denzin, N. K. (2000). The practices and politics of interpretation. In N. K. Denzin eta Y. S. Lincoln (eds.), *Handbook of Qualitative Research* (897-922 or.). London: Sage.
- Denzin, N. K. (2009). *The Research Act: A Theoretical Introduction to Sociological Methods* (2nd edition). New Jersey: Aldine Transaction.
- Dicharry, E. (2013). *L'écologie de l'éducation: Un anthropologue à l'école du bertsularisme en Pays Basque*. Paris: Editions L'Harmattan.
- Dorronsoro, J. (1981). *Bertsotan I (1789-1936)*. Donostia: Gipuzkoako Ikastolen Elkartea.
- Dorronsoro, J. (1988). *Bertsotan II (1936-1980)*. Donostia: Gipuzkoako Ikastolen Elkartea.
- Downing, N. & Roush, K. (1985). From passive acceptance to active commitment: A model of feminist identity development for women. *The Counseling Psychologist*, 13(4), 695-709. <https://doi.org/10.1177/0011000085134013>
- Elliot, J. (1980). The Implication of Classroom Research For Profesional Development. In E. Hoyle (Ed.), *Professional Development of Teacher* (208-234). Londres: Kogan. doi: 10.1111/1467-9566.ep11340322
- Elliot, J. (2010). *La investigación-acción en educación*. Madril: Morata.
- Euskaltzaindia. (2021). *Plazandre*. Retrieved from: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=plazandre&option=com_hiztegia&view=frontpage&lang=eu
- Flick, U. (2014). *El diseño de la Investigación cualitativa (The design of qualitative research)*. Madrid: Morata.
- Freire, P. (1997). Dialogicidad. In P. Freire (ed.). *A la sombra de este árbol* (100-111 or.). Bartzelona: El Roure.
- Garzia, J. (2001). *Bat bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak*. San Sebastian:

Bertsozale Elkartea.

- Garzia, J. (2012). *Bertsolaritza. Etxepare*. Donostia: Basque Institute
- Garzia, J., Sarasua, J. & Egaña, A. (2001). *El arte del bertsolarismo. Realidad y claves de la improvisación oral vasca*. Donostia: Euskal Herriko Bertsozale Elkartea.
- Gibbs, G. (2012). *El análisis de datos cualitativos en investigación cualitativa*. Madrid: Morata.
- Goetz, J. & Lecompte, M. (1988). *Etnografía y diseño cualitativo en investigación educativa*. Madrid: Morata.
- Habermas, J. (1994). *Teoría de la acción comunicativa*. Madrid: Cátedra.
- Hernandez, J. M. (2014). Emakume bertsolariak: bertsoetik bertsoara, hanka puntetan. In G. Lasarte & A. Alvarez Uria (eds.) *Gorputza eta generoa: Teoria didaktika eta esperientziak* (37-48 or.). Eibar: UEU.
- Iguaran, O. (2020). *1.800 lagun 259 taldetan, bertsoak herrietan dituen oinarritzko kanpalekuetan*. Retrieved from: <https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gaur8/20200222/1-800-lagun-259-taldetan-bertsoak-herrietan-dituen-oinarritzko-kanpalekuetan>
- Kemmis, S. (1988). Action research in prospect and retrospect. In S. Kemmis, C. Henry, C. Hook & R. McTaggart (koordk.), *The Action Research Reader* (11-31 orr.). Geelong: Deakin University Press.
- Krueger, R. A. (1991). *El grupo de discusión. Guía práctica para investigación aplicada*. Madrid: Piramide.
- Kvale, S. (2011). *Las entrevistas en investigación cualitativa*. Madrid: Morata.
- Larrañaga, C. (1994). El bertsolarismo: habitat de la masculinidad. *Bitarte*, 4, 29-51.
- Larrañaga, C. (1995). El Bertsolarismo: una tradición oral transitada por el género-sexo. *Cuadernos de Sección. Historia y Geografía*, 23, 405-425.
- Larrañaga, C. (1997). Del bertsolarismo silenciado. *Jentilbaratz, Cuadernos de Folklore*, 6, 57-73.

- Larrañaga, C. (2000a). Mujeres bertsolaris en la historia. *Hika*, 98, 44-45.
- Larrañaga, C. (2000). Teatralidad y poética alternativas: El bersolarismo y las mujeres. In I. M. Zavala (ed.) *Breve historia feminista de la literatura española, en lengua catalana, gallega y vasca* (399-424 or.), Bartzelona: Anthropos, 6.
- Larrañaga Arriola, J. (2013). *Jolas sakona: Txapelketaren prozesu errituala eta bertsolariaren arrazoi sortzailea XXI mendeko Agoran* [Tesis doctoral]. Bilbo: EHU/UPV. Accesible en: http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Jexux_Larranaga_TESIA.pdf
- Lasarte, G., Álvarez-Uria, A., Ugalde, A., Lekue, P. & Martinez, J. (2016). *Emakume bertsolariak. Ahanzturatik diskurtso propiora*. Gasteiz: Emakunde.
- Latorre, A. (2005). *La investigación-acción. Conocer y cambiar la práctica educativa*, 3ª edición. Bartzelona: Graó.
- Lekuona, M. (1974). El Bertsolarismo, idazlan guztiak. *Ahozko literatura, Kardaberaz bilduma*, 22, 43-73.
Lidergoa ulertzeko modua eboluzionatzen joan da garaiaren arabera. Lidergoari buruzko ikerketen hastapenak 1930eko eta 1940ko hamarkadetan koka daitezke, orduan garatu zirelako lehenengo teoriak. Ikuspegi horiek liderren edo gidarien ezaugarriak berezkoak zirela defendatzen zuten. Lewinek proposaturiko teoria oso garrantzitsua izan zen. Hiru lider mota proposatu zituen (Lewin, Lippit & White, 1939): 1.- Autokratikoa edo autoritarioa. 2.- Parte-hartzailea edo demokratikoa. 3.- Laissez faire erakoa edo lidergo liberala.

Ondoren, beste ikertzaile batzuek lider baten portaera testuinguruaren arabera aldatzen dela adierazi zuten (Fiedler, 1967; Hersey & Blanchard, 1977). Handik urte batzuetara, 1980ko hamarkadan, 'irakaskuntzako lidergoa' agertu zen. Horrela komunitate baten kide guztien lidergo-praktikak sortu, garatu eta finkatzeko prozesu gisa definitzen den lidergo dialogikoa sortu zen (Padrós & Flecha, 2014). Berdinen arteko elkarrizketek, partaidetzak eta ahots guztiak kontuan hartzeak praktika

inklusiboak garatzen laguntzen dute. Lidergo dialogikoak kulturaren aldaketak ekarri zituen, besteak beste, komunitate osoaren konpromisoa eta erantzukizuna kontuan hartzen ditu eta ikastetxearen funtzionamenduan eta kudeaketan inplikatzeko da (Escudero, González & Rodríguez, 2014; Murillo 2006; Sánchez, 1999).

Aurreko lerroetan planteatutakoa kontuan hartuta, egiaztatu daiteke gaur egun garrantzi handia duela ikasleak bere ikaskuntza-prozesuan duen jokoerak (Bernal, et. al., 2009). Gaur egungo metodologia aktiboetan ikaslea bere ikaskuntza-prozesuaren protagonista aktiboa da. Nabarmenezkoa da, halaber, ikasleek asko ikasten dutela prozesu honetan sortzen den besteekiko elkarreraginetik.

Azkenik, ikaskuntza esanguratsuaz hitz egiten da. Ikaskuntza horrek lotura du ikasitako ezagutzekin: ezagutza horiek eduki erabilgarria dute, errealista da eta egunerokotasunean aplikagarria da (Bernal, et.al, 2009).

Bertsolaritzaren Curriculum Lehen Hezkuntzan liburuan (Lanku, 2008) aipatzen den lez, teoria eraikitzaileetan oinarritzen dira egun ildo psikologikoak. Hala, ikaskuntza zentzuduna bermatzeko beharrezkoak ikusten dituzte harremanen zaintza, segurtasuna, onarpena, konfiantza, elkarrekiko errespetua, eta ikasleen autokontzeptua sustatzea, besteak beste. Proiektu honek, ikasle-irakasle elkarreraginari garrantzia ematen dio, eta azpimarratzen du komunikazioa, harremana eta negoziazioa sustatzea izango dela irakaslearen zeregina. Gainera, irakaslea saiatuko da ikasleen testuinguru ezberdinak aintzat hartzen eta bakoitzaren autonomia sustatzen. Esanenez, Lankuren eta Bertsozale Elkartearen proiektuak lidergo dialogikoaren filosofian oinarritzen dela; bere ezaugarriak proposaturiko proiektuan islatzen dira eta.

4.1.3.- Kontzientzia eta ikuspegi feminista

Eskola gizartearen eredu soziokulturalak islatzen dituen espaziotzat hartzen da. Eskolak leku eta garai bakoitzeko gizarte-sistema erreproduzitzeko joera du, eta jendarte bakoitzean indarrean dauden botere- eta hierarkia-posizioen aldeko eta kontrako joerak agertzen diren agertoki bat da. Hori dela eta, garrantzitsua da espazio horiek birpentsatzea, eta, horren bidez, praktika diskriminatzaile, sexista eta

baztertzailleetatik urruntzea (Montenegro & Corbalán, 2020). Ildo horretan, funtsezko puntu bat da feminismoaren teoriak hezkuntzan sartzeara (León, Martínez, Gamito & Vizcarra, 2020). Bi kultura egon dira. Bata, gizonena, eskoletan irakatsi, ikasi eta positiboki baloratu dena eta martxan jarraitzen duena. Eta bestea, emakumeena, ikusezin bihurtu, etxe-eremura baztertu eta negatiboki baloratu dena (Alvarez-Uria, Vizcarra & Lasarte, 2019) Egun, gizon eta emakumeen kategoriak gainditzen dituzten aniztasun berriak kontuan izan behar dira, sexua, generoa eta sexualitatea ditugulako elkarrekin gurutzatzen. Horregatik, hezkidetzak pixkanaka binarismoa gainditzearekin, transexualitatearen presentziarekin edo heterosexualitatearen deszentralizazioarekin lotzen hasi da (Alvarez-Uria, et.al., 2019).

Pedagogia kritikoaren eta feministaren arteko lotura interesgarria da. Pedagogia kritikoak zalantzan jartzen ditu eskola barruan dauden botere eta menpekotasun-harremanak. Pedagogia honek planteatzen duen bezala, hezkuntza-prozesuak etengabe egon behar du modu kritikoan hausnartzen. Pedagogia kritikoak hezkuntza praktika politiko, sozial eta kultural gisa ikusten du, eta, aldi berean, helburu nagusi gisa planteatzen du ekitate ezak sortzen dituen subordinazio moduak zalantzan jartzea, edo diferentziak onartzen ez dituzten harremanek salatzea, besteak beste (Montenegro, et.al., 2020). Horregatik, eskolan bi norabidetan proposatu beharko liriteke zereginak eta jarduerak: alde batetik, neskek genero-rola gainditzen jarraitzeko lekua izan behar dute eskolan haien autonomia eta askatasun maila handitu dezaten. Beste alde batetik, mutilek maskulinitate hegemonikoaren berrikuspen kritikoa egitea ezinbestekoa da (Alvarez-Uria, et.al., 2019).

Bertsolaritzaren alorrean emakume bertsolariak eremu publikoan gizonen pare egoteko eskubidea aldarrikatzen ari dira, generoari buruzko hausnarketa kritikoa bultzatzen dute eta ikuspegi androzentrikoa salatzen dute (Alberdi, 2019). Izan ere, bertsolari kopuruari begiratuz gero, argi dago emakumeen zapalketa sozialaren ondorioz desoreka handia dagoela (%75 gizonak eta %25 emakumeak dira) (Zubiri et al., 2019). Egoera horren aurrean diskriminazio positiborik ez egoteaz gain, emakume bertsolariei ematen zaien espazio sinbolikoa ere nahiko mugatua izan da orain arte, osagarri izaten baitira gehienetan. Horri gehitu behar dizkiogu legitimazio falta eta publikoaren zati bat deseroso eta aurka agertzea generoarekin lotutako gai honen

aurrean (Zubiri et al., 2019).

Bertsolaritza, plazagizonena izan da historikoki eta emakumeek haien presentzia eta parte-hartzea lortzeko bidea egiten ari dira, plazandre izateko eta aritzeko eskubidea borrokatzen (Lasarte, Vizcarra, Perales eta Fernández, 2020). Emakume bertsolariek azken hamarkadan euren egoerari buruz hausnartu dute eta kolektiboki kontzientzia hartze prozesu bat bizi izan dute. Ikuspegi feministatik bertsolari izatea haientzat zer izan den, eta bereziki testuinguru horretan emakume izatea zer den izan dute gogoetagai (Alberdi, 2019).

Emakume bertsolari askok, esan bezala, kontzientzia feminista bat eraiki dute, edo eraikitzen ari dira, bertsolari izateko eredu hegemonikoa den plazagizona izan zuten erreferente horretatik aldenduz eta haien irudia sortuz, baina horra heldu ahal izateko krisi garai bat pasatu behar izan dute, aldaketarako inflexio puntu bat. Krisi edo aldaketa-une horretan konturatu dira bere bertsolari-identitatea eta bere emakume-identitatea eraiki dituztela tradizioak emandako menpeko rol bereiztuetan oinarrituta, rol maskulinoaren imitazioa eginez edota egokitu zaien rol femeninoa jokatuz (Alberdi, 2019).

Beraz, baieztatu daiteke XXI. mendearen hasieratik hona emakume bertsolariak zenbait topaketetan elkartu direla eta jabetasun prozesu batean dabiltzala. Topaketa horietatik abiatuta, genero ikuspegia eta begirada feminista bertsoaren munduan txertatzeko eta lantzeko ekimenak sortu dituzte, (Artetxe, 2019a), pertsonalaren eta politikoaren arteko loturak urrats bakoitzean eginez.

Horrela, bertsolaritza tradizioetik modernitateko bidea egiten ari den honetan, emakume bertsolariak aldaketa prozesuan daude eta haien ingurune hurbilean horren eragina sumatzen ari dira. Ahots subalternoa izatetik (Spivak, 1993), agente izatera pasa dira (Kabeer, 1999), hau da, ahanzturan eta isilik egotetik ahots propioa aurkitu eta erabiltzeko bidea hartzerara pasa dira (Lasarte, et al., 2016). Agentzia kontzeptuak emakumeek duten ekiteko, aktibatze gaitasuna eta biktima edo objektu izatetik subjektu edo agente izatera pasatzea adierazten du. Horren arabera, emakume bertsolariak bidean modu batean edo bestean ukatu zaien boterea hartzen eta ahalduz joan dira (Rowlands, 1997). Beraz, esan daiteke kontzientziadun diskurtso

bat sortzen ari direla, maila pertsonalean eta maila kolektiboan.

Nancy Downing-ek eta Kristin Roush-ek (1985) azaldu zuten identitate feminista eraikitzeko ezinbestekoa dela kontzientziazioa eta generoaren inguruan dauden aurreiritzi eta diskriminazioei aurre egitea. Bertsolaritzari dagokionez, bide horretan hainbat lan eta hainbat estrategia jarraitu dira. Hausnarketa eta gogoeta asko mahai gaineratu dira bertsolari izateko eredu patriarkal edo maskulinoa imitatuz bizi izandako esperientziei buruz eta Jone Miren Hernándezek (2019) aipatzen duen bezala, prozesu hori bukatu gabe dago.

Egun esparru ezberdinetan genero perspektiba txertatzen ari dira bertsolaritzaren komunitatean dauden pertsona kontzientziadunak eta Bertsozale Elkarteko Genero taldeak eta zuzendaritza talde berriak. Egun norabide honetan ekimenak eta taldeak daude abian bertsoaren munduan; emakume bertsolarien arteko sareek eta beste emakume feminista batzuekiko harremanek eraman dituzte emakume eta bertsolari sentitzera modu kontziente, kritiko, banaezin eta kolektiboan (Lasarte, Fernández, Alvarez-Uria & Gómez-Pintado, 2019).

Bertsolaritza gaurkotzen, eraldatzen eta bere kalitatea hobetzen laguntzen ari dira emakume bertsolariak diskurtso berriak sortuz (Zubiri et al., 2019), eta egindako lanketa islatuko da irakasle gisa erabiltzen dituzten irakaskuntza metodo, gai eta baliabideetan ere. Izan ere, bertsoaren munduan aldaketa handiak gertatzen ari dira eta prozesu honetako ardatzetako bi bertso-eskolak eta emakume bertsolarien sareak dira. Batak neskei atek zabaltzen dizkie bertsolaritzaren komunitatera sarbidea parekidetasunez emanez, eta besteak kontzientziazteko, kidetasuna bermatzeko, eta subjektu aktibo eta ahaldundua sortzeko aukera ematen die.

Ikerketa honetan emakume bertsolari eta bertso-irakasle diren profesionalak izandako irakasle esperientziak kontatu dizkigute eta haien ahotsak kotuan izan ditugu, haien eskola-saioetan egindako behaketarekin batera, testu hau gauzatzeko. Haiek, haien emakume, bertsolari, eta irakasle izaera, pentsamolde eta jardueretatik abiatuta, bertsolaritza ulertzeko modu berri batera heldu dira, eta horren ondorioz arte edo kultura-ekintza horren metodologia eta irakaskuntza eraldatzen eta gaurkotzen ari dira.

4.1.4.- Bertsolaritza hezkuntzan: euskal curriculumean, metodologia eta baliabideak

Bertsolaritza euskarari eta euskal kulturari lotua egon da, kulturaren biziberritzean erreferente gisa hartua izan da eta, era berean, hizkuntzaren iraupenean eta estrategian ere zer esan handia izan du. Genero literario-komunikatibo hau mende aldaketarekin batera landa eremutik ingurune hiritarrera zabaldu da (Lasarte et al., 2016; Zubiri et al., 2019) herriko plazatik eskolarako bidea eginez, besteak beste.

Egunotan, esan bezala, bertsolaritza bertso-eskoletan eta hezkuntza arautuan lantzen da eta Euskal Curriculumean leku garrantzitsua du (Armistead & Zulaika, 2005; Sarasua, 2007). Hezkuntza legeen artean 236/2015 dekretua dugu, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen dena. Bertan, hasteko, bertsolaritza pentsamendu sortzailearekin harremanetan jartzen da:

Pentsamendu sortzailea kanal ugariaren bidez adierazten da, gorputzaren, musikaren, plastikaren, hizkuntzaren eta bestelako adierazpen-kanalen bidez, bai horietako bakar baten bidez, bai horietako batzuen bidez. Hizkuntza-komunikazioaren barruan, adierazpen-modu guztiek dute sormenaren arrastoa neurri handiagoan edo txikiagoan: norberaren komunikazioak (egunerokoak, agendak...), komunikazio funtzionalak (eskutitzak, eskabideak, elkarrizketak, jarraibideak...) eta pertsuasiorako komunikazioak (iritzia, publizitatea, iragarkia, eslogana...). Hala ere, irudimena eta fantasia bitarteko dituela, pentsamendu dibergentearen edo albokoaren bidez adierazten da sormenaren arrastoa, sorkuntza poetikoaren, ipuinen, txisteen, hitz-jokoen eta antzeko formulazioen bidez, besteak beste. Euskal Herriko kultura-eremuan, pentsamendu sortzailearen adierazpen pribilegiatua da bertsolaritza (236/2015 dekretua, 77.or.).

Oinarrizko Hezkuntzako Curriculumean bertsolaritzak eta ahozko literaturak edukietan leku aipagarria dute, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBHn) zehazki. Eduki horien artean ahozko euskal literaturan koplak (Santa Agedako koplak, dantza koplak), genero epiko-lirikoa (ipuinak, ele zaharrak, baladak), heziketa generoko

testuak (haur jolasak, igarkizunak), bertsolaritzaren historia, bat-bateko testuak (atzekoz aurrerako teknika, betelana), metrika (doinua, neurria, errima), bertso moldeak, doinu eredugarriak, eta bertso-paperak ditugu, (236/2015 dekretua).

Edukiekin jarraituz interesgarria da aipatzea hainbat gairen artean, bertsolaritzaren historian emakumearen parte-hartzea lantzen dela. Aro historiko bakoitzeko bertsolari “garrantzitsuenak” agertzen dira zerrenda orientagarri gisa eta haien artean hurrengo gizon-emakumeak daude: XVIII-XX (lehen erdia) mendeak: Fernando Amezketarra, Etxahun, Iparragirre, Bilintx, Xenpelar, Txirrita, Urretxindorra, Pello Errota eta Otaño. Milia Lasturkoa, Santxa Ozaetakoa, Bizenta Mogel, Josepa Aranberri “Xenpelar”, Plazida Otaño, Mikaela Elizegi... 1940z gerozkoak: Xalbador, Lazkao Txiki, Balendin Enbeita, Inaxi Etxabe, Kristina Mardaras... Bertsolari txapeldunak: Basarri, Uztapide, Xabier Amuriza, Sebastian Lizaso, Jon Lopategi, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus. Gaur egungoak: Unai Iturriaga, Igor Elortza, Jon Maia, Arkaitz Estiballes, Beñat Gaztelumendi, Aitor Mendiluze, Julio Soto, Sustrai Colina, Uxue Alberdi, Miren Amuriza, Fredi Paya, Alaia Martin... (236/2015 dekretua).

Heziberriren laguntzarekin, irakaskuntza-metodologiari begira jarriko gara orain. Metodologia definitzeko curriculum horretan ‘Ikaskuntza-prozesua kudeatzeko hautatzen den bidea edo estrategia’, nola irakasten den, eta hautatutako aldagaien emaitza aipatzen dira (236/2015 dekretua: 112).

Hezkuntza ezagutzen transmisio hutsa baino gehiago da, izan ere bizitzarako hezi behar duela dio dekretuak. Horrez gain, jakintzaren teoria batean baino gehiagotan oinarritzen dela azaltzen da eta horien artean konstruktibismoa da azpimarratzen dena. Ikuspegi horren arabera ikaskuntzaren subjektua da aurrezagutzak eta ezagutza berriak egokituz bere jakintza eraikitzen duena. Horretarako dimentsio soziala, dimentsio konstruktibista eta dimentsio interaktiboa jorratu behar dira, hots, ikasleak taldean kokatuko du bere burua, ezagutzak osatu eta eraikiko ditu, eta bere kultura eta komunitatearekin harremanetan sartuko da.

Kompetentzien garapenaren bidez modu integratuan ebatziko dituzte arazo-egoerak, baliabideak erabiliko dituzte ahalik eta errealitateak hurbilen, eta motibatuta

eta aktiboki arituko dira ikasleak irakasleek tutorizatzen dituzten bitartean (ikaskuntza-egoerak prestatuz eta eskolak bideratuz, bitartekari lana eginez, gidatuz edo lagunduz) (236/2015 dekretua: 113-114).

Metodologia egokia eta eraginkorra ezartzeko ikaskuntza-irakaskuntza prozesu batean kontuan hartu beharko litzateke zer-nolako testuingurutan ezartzen den. Hala, Catalina Alonso et al.-entzat (2004), ikasleek dituzten ikaskuntza-estiloak ezagututa, laguntza pedagogikoa ikasleen ezaugarrietara egokitu daiteke, hezkuntza-kalitatearen eta errendimendu akademikoa handitzen laguntzeko (Gutierrez, García & Vieira, 2012).

Gutierrez et al.-ek (2012) eta Frank Coffield eta bere laguntzaileek ikaskuntza-estiloak neurtzen dituzten tresnak behar bezala aplikatzeak abantailak dituela diote, eta ikasleek eta irakasleek haien ahulezien eta indarguneen ezagutza areagotzen lagunduko lukeela. Bestalde, Eugene Saddler-Smith iritziz (2001) autoezagutza horren potentziala ohiko jokabideak behatzean eta zalantzan jartzean agertuko litzateke.

Bertsolaritzaren ikaskuntza-irakaskuntzari begira, bi eredu nagusi bereiz ditzakegu: metodologia tradizionala eta metodologia berritzailea. Bertsotan ikasteko hastapenetan erabiltzen zen metodologia eredu tradizionala edo zurruna eta patriarkala edo androzentrikoa zen (Lasarte et al., 2016). Ikerketa batzuen arabera (Alberdi, 2015; Lasarte et al., 2016), oinarritzko teknika ikasi eta ikasleek oso gazte eman behar zuten oholtzarako jauzia, ez zen elkartasunik, konplizitaterik, autoestimurik ezta konfiantzarik lantzen bertso-eskoletan; bertsolari eredu bakarra zegoen eta eredu maskulino hori emulatzen zen. Esan daiteke, eredu tradizional horretan irakaslea izaten zela protagonista, komunikazioa norabide bakarrekoa zen, ikaslea pasiboa zen eta berehala bakarka inprobisatzen hasten zen beste ikasleekin lehian, oholtzan. Irakasleak soilik ezagutzak transmititzen zituen eta bertsolaritzaren alde teknikoari garrantzi handia ematen zion (edukiari eta ez harremanei).

Joxerra Garzia, Andoni Egaña eta Jon Sarasuaren *Bat-bateko bertsolaritza* liburuan (2001) Amurizaren bat-bateko bertsolaritzaren definizioa aipatzen dute. Horren arabera, doinua, errima eta neurria dira bertsolaritzaren alderdi teknikoak, ikaskuntzaren edukiak. Gaiak ere aipagarriak dira, bertsolariak bere inprobisazioan

poesia, gogoeta eta txantxa tartekatuz, hainbat arlotako informazioa eskaintzen duelako. Bertsolariaren ekarpena, hain zuzen, maila desberdin horien erabilera sortzaile eta erakargarrian datza: gizarte albisteak, politika aipamenak, sexu-kontuak, kultura aferak, herriko gorabeherak... Halaber, ikus-entzuleen egoerari buruzko aipamenak ekartzen dituzte testuingurua aintzat hartuz, maiz dena beste bertsolariek esandakoaren aurkako bat-bateko erantzun eta zirikadaz ziprztinduta (Garzia, 2011).

Bat-batekotasuna ez da prozesu erraza, teknikaren ezagutza sakona behar da eta diskurtsoak eta garatzen diren ideiak landuak izan behar dira (Amuriza, 1982). Bertso idatzien kasuan aldiz, sortzeko prozesuan bat-batekoaren teknika berbera erabiltzen da, baina bertsolariak behar beste denbora izaten du bertsoa prestatzeko (Lasarte et al., 2016).

Egungo metodologia berritzaileak kontuan izaten ditu bertsoaren alde teknikoa eta bertsolarien alde sozio-emozionala (Lasarte et al., 2016). Bertsolaritzak Lehen Hezkuntzako curriculumean ezartzen den metodologia eraikitzailea izango luke gidari. Ikaskuntza horien loturari eusteko, ezinbestekoa da jarduera esanguratsuak, motibagarriak eta praktikoak egitea, hurbileko ingurunera egokitutakoak (Lanku, 2008). Prozesu horretan irakasleak aldarmioak ezartzeko lana egiten du, ikasleak ikaskuntzaren eraikuntza bermatzeko (Vigotski, 1983). Hainbat helbururen artean, ikasleak autonomoak eta aktiboak izan daitezen hor egongo da irakaslea, bidelagun, ikasle-irakasle elkarreraginari garrantzi handia emanez, azkenik, komunikazio harremana eta negoziazio gaitasunak sustatzen saiatuko da (Lanku, 2008).

Ikasle bakoitzaren hazkuntza eta hobekuntza pertsonalean laguntzeaz gain, bidean aurkituko dituen gatazkak ebazteko baliabideak eta trebakuntza eman behar dizkio. Jendaurrekotasunak, adibidez, hainbat trebetasun eskatzen ditu: emozioen erregulazioa, edozein egoeratarara egokitzea, autokonfiantza, edo komunikatzaile ona izatea, besteak beste. Helburu horrekin trebetasun pertsonalak eta sozialak kontuan izango ditu aipatutako metodologiak. Bukatzeko, materialei dagokienez, baliabide ohikoena testu liburua da. Baina ikus-entzunezko tresnak eta hormirudiak, argazkiak edo marrazkiak ere erabiltzen dituzte edukien ulermena bermatzeko (Lanku, 2008).

Bat-bateko ahozketasunera ez da heltzen lan egin gabe, esan bezala, eta metodologiez, estiloez eta lidergo motez jardun ostean bertsoak ikasi eta irakastean

erabiltzen diren materialei ipiniko diegu arreta orain. Hortxe ditugu hainbat obra erreferentzial bertsogintzan trebatzen laguntzeko: Xabier Amurizaren *Hiztegi Errimatua* (1981), *Zu ere Bertsolari* (1982), eta *Hitzaren Kirol Nazionala* (1981) dira ezagunenak.

Egun, trebakuntza hori egiteko joera berriak daude, era berean, sortutako lehen material horri genero perspektiba txertatu zaio (Lasarte et al., 2016). Emakumeen zapalkuntzarekiko sentsibilizazioa lortu da eta emakumeak azaltzen hasi dira Bertsozale Elkarreak argitaratutako materialetan. Horrez gain, bertsozaletasuna lantzeko irakasleak material funtzional eta erakargarriak erabiltzen saiatzen dira. Oso inportantea da, gainera, ikus-entzunezko baliabideak erabiltzea, horrela ikasleen ekoizpenak erregistratu daitezke. Halaber, paperezko euskarririk ezean, bat-batekotasunak oroimena erabiltzen du transmisiorako tresna eta teknika lez (Lanku, 2008).

Hezkuntza arautuari begira, egun *Gu ere bertsotan* proiektua (2010) lantzen da ikastetxeetan (Bertsozale Elkarrea, 2019). Euskal Herrian garatutako proiektua da eta Bertsozale Elkarreak publikatutako datuen arabera 20.532 haur eta gaztek jorratzen dute. Oinarri pedagogiko bezala kontuan hartzen dute behin eta berriro aipatu dugun *Bertsolaritzaren Curriculum* Lehen Hezkuntza lana. Zehazki lau arlo lantzen dira haren bidez: hizkuntza, musika (ahotsa), trebetasun pertsonalak eta trebetasun sozialak. Material didaktikoak eskuratzeko webgune espezifikoak ditugu. Esaterako, www.bertsoeskola.eus webgunean gaiak, doinuak eta errimak lantzeko jarduerak eta materialak aurkezten dira; www.bertsoikasgela.eus webgunean ordea, ikus-entzunezko jarduerak eta material gaurkotuak ditugu aukeran.

Hau guztia esanda, lanaren helburu nagusia da emakume bertsolari-irakasleek bertso-eskoletan erabiltzen dituzten metodologiak (estrategia pedagogikoak, klaseratutako jarduerak, baliabide material eta didaktikoak), irakasteko moduak (estilo pertsonalak, komunikatzeko gaitasuna, motibatze trebetasuna, inplikazioa eta konpromisoa) eta horretarako erabilitako bitartekoak nolakoak diren ezagutzea.

4.2.- Metodoa

Artikulu honetan, esan bezala, emakume bertsolariek bertso-eskoletan erabilitako metodologia ikertzen da. Kasu-azterketa bat da, izan ere, emakume bertsolariek irakasle gisa garatu duten ibilbide propio bat aztertzen da. Informazioa biltzeko erabili diren tresnak bi izan dira: elkarrizketa sakonak eta eskoletan egindako behaketa etnografikoak. Egiatzotasuna bermatzeko, informazioa biltzeko hainbat metodo eta hainbat pertsonaren iritziak alderatu dira eta horretarako triangulazioa erabili da. Puntu honetan, garrantzitsua da ezagutzea zein motatako esanahiak ematen dizkieten emakume bertsolariek hainbat bizipen eta egoerari.

Hartu den ikuspegia formatiboa izan da, ezinbestekoa delako irakasleen prozesua ulertzea eta testuinguru horretan kokatzea aztertutako emakumeak; bertsolari eta irakasle gisa aldi berean.

4.4.1. Kasu-azterketa

Esan daiteke kasu azterketa baten aurrean gaudela (Colás & Buendia, 1992): emakume bertsolariek bertso-eskoletan erabiltzen duten metodologiak eta irakasteko moduak aztertuko baitira. Ikerketak bi fase nagusi izan ditu, alde batetik, bertsolaritzaren irakaskuntzari buruz emakume bertsolari eta irakasleen pentsamenduak eta sentimenduak jaso ditugu elkarrizketa sakonen bidez. Tresna horien bidez honako informazio hau jaso da: metodologia (erabiltzen diren metodoak, bai jaso zutena, bai beraiek proposatzen dutena) eta irakaste moduak (marka pertsonalak, komunikatzeko gaitasuna, motibatze trebetasuna, inplikazioa). Beste alde batetik, bigarren fase batean, egungo emakumeek bertso-eskoletan erabiltzen dituzten metodologiak ezagutzeko eta euren ekarpena zuzenean jasotzeko behaketak egin dira haien eskola orduetan.

Errealitate baten ulermena eta interpretazioa egin nahi izan da diskurtsoen eta praktiken bilketaren bidez, zehazki emakume bertsolarien ekarpena bertsolaritzaren irakaskuntzan nolakoa den ezagutu nahi izan da. Horrek eskatu du ikertzaileak testuinguruan murgiltzea eta aztertutako pertsonarekin mintzatzea bertatik bertara

(Rekalde, Vizcarra & Macazaga, 2014; Vallés, 2003). Hori lortu ahal izateko ikertzaileak erantzunak bilatu ditu modu sistematiko eta metodikoan (Flick, 2014).

4.4.2. Testuinguruaren deskribapena

Ikerketa honen testuingurua bertsolaritza da, zehazki, bertso-eskoletan zein hezkuntza arautuan burutu da, bertsogintza jorratzen den ohiko lekuetan. Toki horietan emakume bertsolariekin egon gara, haien irakasle rola hobeto ezagutu nahian. Hori lortzeko, alde batetik, behaketa eta bestetik elkarrizketa sakonak egin dira.

Bertsozale Elkarteak adierazten duen bezala bertso-eskolak bertsolaritzaren ezagutzan sakontzeko eta hizkuntzaren alde ludikoa lantzeko eratzen diren guneak dira, eta era berean, euskal kultura modu sortzaile eta aktiboan bizitzeko. Hainbat ikastolatan bermatu da bertsolaritzaren irakaskuntza. 2011-2012 ikasturtean akordio bat sinatu zuten Bertsozale Elkarteak eta Ikastolen Elkarteak, bertsolaritzari euskal ikastolen curriculumean dagozkion esparruak zehaztuz.

4.4.3. Partaideak eta informazioa jasotzeko estrategiak

Elkarrizketa sakonetako partaideak: ikerketa honetan 10 emakume bertsolari elkarrizketatu dira, eta elkarrizketatuak izendatzeko honako kode hauek erabili dira; Berts1 20151112; Berts2 20151119; Berts3 20151201; Berts4 20151201; Berts5 20151203; Berts6 20151224; Berts7 20160104; Berts8 20160109; Berts9 20160115; Berts10 20160131. Elkarrizketatutako bertsolari bakoitzari zenbaki bat eman zaio eta kodea elkarrizketaren egunarekin osatu da.

Elkarrizketatutako emakumeak bertsolariak izateaz gain, bertso-irakasleak ere badira. Horietako 6, 10 urte baino gehiagoz aritu dira kantuan, eta horietako 4k 60 bertso-saiotik gora egiten dituzte urtean. Elkarrizketatutako emakume bertsolari-irakasle batzuei haien irakas-saioak behatzeko baimena eskatu zitzaion

Behaketetako partaideak: Behaketak ikastetxe arautuetan eta bertso eskoletan burutu dira, hala, 4 emakume bertsolari-irakasle eta haien ikasleak behatu dira orotara, eta 16 saio grabatu ziren. Behatutako emakume guztiak elkarrizketa sakonetan parte hartu zuten bertsolari-irakasleak dira. Honako kode hauekin izendatu

ditugu: Irakas1, Irakas2, Irakas3 eta Irakas4.

4.4.4. Prozedura eta analisirako tresna

Elkarrizketa sakonak eta behaketak aurrera eraman dira eta gerora transkribatu da guztia. Informazioaren analisia landa, lanarekin batera, oso etapa garrantzitsua da (Goetz & Lecompte, 1988). Kasu honetan, jasotako informazioa analizatzea prozesu bat izan da, funtsean induktibo-deduktiboa, dinamikoa eta sistematikoa, eskatu duena jasotako iritzien mezua ezagutzea, aukeratzea, sailkatzea, alderatzea eta interpretatzea. Prozesu honi esker, fenomenoak gorpuzten dituzten kontzeptu gisa ordezkaturako informazioetatik ideia nagusiak atera ahal izan dira (dimentsioak eta kategoriak), eta fenomeno horietatik atera diren kontzeptuek (azpikategoriak) (Coffey & Atkinson, 2003; Rodríguez, Gil & García, 1996) sistema kategorial bat osatzen dute (4.2. taula).

Sistema kategoriala analisia egiteko, emaitzak antolatzeko eta narrazioa eratzeko baliagarria da. Narrazioaren hari argumentatiboa eratzeko sistema kategoriala eraiki da NVivo11 pakete digitalaren bidez eta jarraian kategoria bakoitzean bildutako edukia interpretatu da.

4.2. taula: analisi tresna, sistema kategoriala

Dimentsioak	Kategoriak	Azpikategoriak
Bertso-eskoletako irakaskuntza metodologia garaikidea (metodo aktibo, berritzaile eta kritikoak)	Metodologia tradizionala eta berritzaileak (ikaskuntza-irakaskuntza lortzeko erabiltzen diren estrategiak, jarduerak, lehen eta orain)	Metodo tradizional-patriarkala (egun bertso-eskoletan irakasle dabilzan emakume bertsolariek ikasle gisa jaso zutena). Metodo berritzaile kritiko-feministak (egungo emakume bertsolariek bertso-eskoletan irakasle gisa erabiltzen duten metodologia.
		Irakaskuntza metodoak Metodologia aktiboak eta lidergo motak Kontzientzia feminista/pedagogia feminista Bertsolaritza hezkuntzan: euskal curriculumean, baliabide eta materialak.

4.5. Emaizak

4.5.1. Emakume bertsolariek ikasle gisa jasotako metodologia

Hasierako bertso-eskoletan, 1980ko hamarkadan, garrantzitsuena bertsolariak prestatzea eta ahalik eta bizkorren plazara kantatzera ateratzea zen. Alderdi horretatik, jaso zuten **metodologiak bertsogintzan trebatzea** zuen helburu, modu horretan, irakasteko estrategiak horretara bideratuta zeuden eta hala ‘errepikapena’, ‘errimak’ eta ‘doinutegia’, ‘bertsoak idaztea kantatu baino lehen’, ‘bertso jarraiak egitea’, eta ‘bat-batekotasuna’ lantzea ezinbestekoak ziren. Oholtzan izan beharreko jarrera eta jokaera oso garrantzitsuak izanda ere, emozioen kudeaketari eta komunikazioaren lanketari ez zitzairen lekurik egiten; honela aipatzen du elkarrizketatutako emakume bertsolari batek horren inguruan.

Nik diferentzia argia ikusten nuen gure bertso-eskolako garaian eta agian hala behar zelako baina eske... Iparraldean ez zegoen bertsolaririk, ez zegoen inor. Amets eta Sustrai. Miren Artetxek egiten zuen baita ere, eta Xumai, baina ez zegoen bertsolaririk. Eta bertsolariak behar ziren eta orduan bertso-eskolaren helburu bakarra zen bertsolariak ateratzea (Berts5 20151203).

Elkarrizketatutako bertsolari gehienek bertso-eskolako ‘giroa oso serioa zela’ gogoratzen dute. Horietako batzuk oso goiz hasi ziren bertso-eskoletan, eta orduan egoera horretan giroa ez zegoen prestatua txikientzat.

Hor jolasa izateari pixka bat uzten zion, akademikoagoa zen edo askoz zehatzagoa, bestea librea zen. Orduan ia hori pixka bat kuadratuagoa zen eta nik, egia esan, gogoan daukadana da, gelan izango baldin baginen 18, pare bat geunden guretzako oso oso erraza zena eta oso basikoa zena egiten genuena. Eta agian etxeko lanak: ‘ba hurrengo asterako hau bukatu behar duzue’ eta egiten genituen gureak (Berts5 20151203).

Ikasle hasiberrientzat **metodo tradizionala** ‘errepikapenak’ egitea eta memoria lantzea zen, hots, bertsoa buruz ikasi eta behin eta berriro kantatzea. Beste kasu batzuetan ‘errima’ eta ‘doinutegia’ aipatzen dira. Baina kasu guztietan, bertsogintza hobetzeko asmoz, errendimendua eta kalitatea ziren ardatz. Gazteagoak direnek berriz, beste korrante irekiago batzuk aurkitu zituzten memoria, errima eta doinua jorratzeko,

adibidez kantautoreen abestiak bertsoarako aprobetxatzea. Honela gogoratzen du emakume bertsolari batek.

Lopategirekin ez genuen hainbeste lantzen, doinutegia adibidez, eta Lopategik esaten zuena: 'egin, bertsoan egin, bapatean egin, errima eta hori, baina egin'. Eta hemen igual landu genuen doinutegia, niretzako oso inportantea zen, ez bakarrik doinuak kantuak behai, kantuak ikasi nituen. Igual zaleak behai, bueno honek ez dauka zerikusirik, baina adibidez egon zen bat oso zalea zena....Silvio eta Sabina gustokoak zituena, eta orduan Sabina eta Silvioren kantuak ikasi genituen. Azkenean ez da bakarrik bertsoa, orduan hori zabaltzen zen, lehenengo igual lagunen artean (Berts5 20151203).

1980ko hamarkadaren amaieran, 'bat-batekotasuna' hasiera-hasieratik garatzen zen, baita umeein ere, izan ere, oso goiz hasten ziren txapelketetan parte hartzen, 10 urte ingururekin.

Lopategik egiten zuen guk adin horretakoak ginenean, apur bat praktikora. Dena bat-batekoa, hasiera-hasieratik dena bat-batekoa. Eta gaur egun ez da hainbeste, bueno gero bakoitzak bere metodoak izango ditu, baina bueno, gaur egun 8 edo 9 urteko umeei pixka bat lasaiago hasten zaie, eta ez zaio hainbesteko garrantzia ematen... Klaro! guk 10 urterekin txapelketak geneuzkan! 10 urtetik 14 urtera txapelketa zegoen, gaur egun ia ez dago. Eta orduan 10 urtetik 14 urtera Iparralde osotik 2 pertsona, bueno, berez 6 joan behar zuten, baina gu 2-3 joaten ginen (Berts10 20160131).

Bat-batekotasuna menderatzea bezain garrantzitsua zen oholtza gainean ematen zen 'itxura'. Sendotasuna, ziurtasuna, ausardia, seriotasuna transmititu behar zuten, gorputz jarrerak horretaz hitz egin behar zuen.

Paparra atera eta kantatu (Berts3 20151201).

13 urterekin gainera "bueno, bueno aurrera, eta sekula ez kikildu eta sekula ez umildu eta beti disimulatu". Klaro, zure bizitzaren etapa batean zaude non oraindikan zure gorputza desarrollatzen ari da. "Atera petxua" esaten dizute "ostia ba atera petxua". Nik justu disimulatu nahi nuena garai horretan (Berts8 20160109).

4.5.2.Emakume bertsolariek irakasle gisa erabilitako metodologia

Elkarrizketatutako emakume bertsolari-irakasleek **metodologia propio** bat eraiki dute, hala, erabiltzen dituzten estrategia pedagogikoaz mintzo dira, baina baita irakasteko moduez ere. Atal hau osatzeko, behaketetan eskuratutako elkarrekintzak eta elkarrizketa sakonetatik ateratako adierazpen edo ahotsak erabiliko dira; horrekin batera saiatuko gara adibideen iturriak esplizitatzen atal bakoitzean.

4.5.2.1. Irakaskuntza metodoak

Metodologia planteatzeko helburua motibazioa piztea izan da, horren arabera, **gazteen behar eta nahiak ezagutzea** da lehentasunetako bat, horrela, bertsogintzarekiko gustua hartzea ahalbidetuko da, jolasaren bidez, esaterako. Kasu honetan, elkarrizketa sakon batean lortutako hausnarketa aukeratu da adibide gisa.

Nik uste dut beti saiatu naizela ariketak, jolasak, asteburu pasak egiten, ba engantxatzeko gazteak eta hortako hor nire energia gehiago joan dela hortikan, eta ez hainbeste hausnartzera nire bertsokera, nire irudi, nire irudi mediatiko, nire kantaera, igual pixka bat beraiek... Eta gero ia pixka bat garapena edo eskatzen duten taldeetan ba baita ere eureri hurbil egingo zaizkien gaiak, bertsoak, ariketak, monotonian ez erortzeko (Berts4 20151201)

Gazteengana ailegatzeko nahi hori ikusten da eskoletan, irakasleak gaia jartzen duenean, hurrengo ahotsean ikusten dugun bezalaxe. Irakasleak aprobetxatzen du gelan sortutako egoera eta hari emandako erantzuna taldeak osatzeko.

Irakaslea (gaia jartzen): Bueno, asmatu behar duzue, gaia emango dizut. Eider mozkortu egin da. Orduan hiruretarako bueltan egon biozue. Araitzek dio onena dala ebatzie Eiderri eta jutie institutora. Benga eta buelta institutora. Irunek dio ezin dela irakasleen aurrean horrela aurkeztu....ze bestela...eta Eider hor dago erdixen hor gustora. Orduen erabaki biozue zer egin. Jun zarie institutotik, goiz pasa, eguerdiko buelta eta txispau da pixka bat. Alaitzen ustez onena da bueltetie irakasleengana, Irunek dio ezetz, behintzat apur bat pasau arte. (Irakas1)

Beste adibide bat dugu esandakoa ilustratzeko: klasean proposaturiko ariketa bat.

Ikaslea: meloia antza du, baina ez da bera, pipak marroiak ditu eta ugari gainera, batzuk aurrera doaz, besteak atzera, oso goxoa dago, joango gara jatera.

1. Ikaslea: sandia.

Irakaslea: sandia bai, oso ondo. Bale listo, bueno zuek zarete lehenengo bikotea.

Altxa. Bale, doinua uztailek gora gora....zati hori bale? (Irakas2)

Metodologiarekiko kezka egonda ere, **askotan intuizioaz baliatzen dira**; topatzen dituzten arazoei erantzuna emateko plazan bezala inprobisatzen dute egoerara egokitzeko, izan ere, askok ez dute formazioa jaso (bertsogintzan) irakasten aritzeko eta horren ondorioz, haien ibilbide eta bizipenetatik edaten dute aurrera egiteko. Hona hemen elkarrizketatutako emakume bertsolari batek adierazitakoa.

Ez da erraza, ni ez naiz pedagogo, ez naiz psikologoa, nik kazetaritza ikasi nuen. Orduan gauza asko egiten ditut intuizioz, pentsatzen ondo, egiten ditudala eta ez dakit gero lortzen dudan hori ez? (Berts3 20151201).

‘Taldea egiteko’ estrategiak erabiltzen dituzte, taldekideen arteko ezagupena hobea izan dadin eta konfiantza giro bat sortzeko, hau da, sareak sortzen dituzte **konfiantza** hori aldameneko ikaskideekin giro ona, eroso, askea egon dadin.

Taldea ez hausteko dinamikak, elkar ezagutzarena, hori ere uste dut oso inportantea dela, horretan ere beti saiatu gara asko, ez? (Berts4 20151201).

Irakasteko moduari begira, lantzen dituzte doinua, errima eta neurria (Amuriza, 1981a eta 1981b), eta historia eta doinutegia (Dorronsoro, 1988 eta 1995) bertsogintzan trebatzeko, modu horretan **bertsogintza era tradizionalan ikasita**. Hala gogoratzen zituzten batzuek euren txikitako esperientziak:

...Pixka bat nola erakutsi zortziko txikia, amaiera pentsatu behar dela lehenengo, errima batzuk eman, errimak lantzeko oin batzuk eman. Gero Santutxukoa erabili ere, ba kantu batzuk eta bertso zahar batzuk hartu eta horrekin egiten genituen horrelako liburuxka potolo batzuk eta handik kantatzera. Eta gero umeak zirelako ba bertso jolas batzuk sartzen nituen, igual hori amaieran 5-10 minutu ba errimen joku eta beste joku batzuk egiten genituen. (Berts5 20151203).

4.5.2.2. Metodologia aktiboak eta lidergo motak

Bertsoak egiteko, progresioarekin jokatzen dute, teknika errazagoak erabiliz hastapenetan, adibidez, puntuka, koplaka, zirtoak eginez edo neurri txikiko bertsoak osatuz hasieran, laburragoa delako eta errazagoa bat-batean asmatzeko, edota hurbileko gai ezagunak jarriz:

Irakaslea: Orduen ipiniko dizuet gai bat, gai orokor bat eta zuek bina koplak bota biozuek. Bueno elurre, oingo astien elurre egonda ... Orduen, bakoitzak berie, eh?. Irune zu izango zara kalien bizi dan neska bat eta zu Araitz baserri batean bizi zea. Orduan Irune oso pozik dau, elurre egin duelako, kalien egongo dalako, oso polita izango dalako...igual eskolara ez dalako joango, baina Araitz ez dago hain pozik ze elurre egiten dabenien, kotxien ezin da jun auzora, argixe jun eiten da, eta dana buruhauste izaten dabe. Orduan bina koplak bota biozuek bakoitzak. (Irakas1)

Saiakuntza eta errakuntza bidezko ikaskuntzaren alde egiten dute maiz, horrela hainbat proba egiten dituzte, eta funtzionatzen duena berriro proposatzen da. Hurrengo ahotsetan ikus daiteke irakasleak nola kontatzen duen ikaskuntza prozesuaren izaera.

Eta gero ia ariketatxoak, ez? Ba esperientziak erakusten dizuna zeinek funtzionatzen duten eta zeinek ez. Eta zein, igual, balio duten aitzinera joateko eta zein egiten dituzu, kontzienteki bada ere, jolasteko bakarrik, baina bueno. Jolas horretan ere gauza pila bat ikasten da, nahiz eta ezin izan zehazki bertsogintzara zuzendutako ariketak. (Berts4 20151201)

Elkarrizketatutako irakasle batek **irakaskuntza dialogikoa** bultzatzen duela dio eta hala ikasturte amaieran ebaluazioa egiteko ikasleei galdetzen diela jardueri buruz, zer izan duten duten gustuko, zer egingo luketen hurrengo ikasturtean, zer nolako gaiak jorratu nahi lituzketen, eta modu horretan, guztien artean, egindakoa baloratzen da eta aurrera begirako hobekuntza proposamenak egiten dira.

Irakaslea: Orduan jaialdi inguruan utziko dugu, eta galdera bat egingo dizuet, orokorragoa da, pentsatzeko. Galdera da...bertsolaritzari buruz gehien gustatu zaizuenena ... Jolas hau edo... dena delakoa, jaialdia barne. Gogoratu bertso paperetan parte hartu zenutela. Orduan bertsolaritzatik gehien gustatu zaizuenena eta zer gustatu zaizuen gutxien. Guk honelako gauzak kontuan hartzen ditugu

datorren kurtsorako. Orduan horixe...bi galderak horiek. (Irakas2).

Gaur egun irakasteko estilo eta **metodologia desberdinak** erabiltzen dituzte bertso-eskoletan, baina garai batean kasu guztietan erabiltzen zen metodologia bera, pedagogia tradizionala. Egun irakaskuntza pertsonalizatu da eta irakasle batengandik beste batengana irakasteko moduak aldatzen direla diote, nahiz eta gehienen oinarria pedagogia berritzailea izan (erabilitako material eta ikusi dugunez). Elkarrizketatutako emakume bertsolari batek honela aipatzen du:

Metodo aldetik, bertso-eskolek daukaten ona hori da, bertso-eskola bakoitzean esango nuke irakasle bakoitzak daukala berea, bere estiloa eta bere 'rolloa' dauka. Ni ikasle nintzenean egiten genuena zen juntatu, banatu oinak edo gaiak euskarrietan eta bertsoak egin eta punto. Eta nik nire ikasleekin daukadana guztiz bestelako gauza bat da (Berts1 20151112).

Elkarrizketatuetako batek adibidea jartzen du eta hala esaten du: idatziz hasita eta koplak eta zortziko txikia bide, bertsoak idaztetik bertsoak kantatzera pasatzen direla ikasleak, baina berak bertso-zaharrak erabiltzen dituela bide lagun, ereduak memorizatzen. Eta txikiek kantatzen ikasten dute jolasten duten bitartean.

Ba hasteko niri bertso paper zaharrak kantatzea beti gustatu izan zait, jende askok ez du ezagutzen, iruditzen zait oso polita dela, asko ikasi daitekeela hortik, eta baita ere doinuak ikasteko balio du. Gauza askotarako balio du eta aukeratuz gero izan daitezke zaharrak edo berriagoak. Baina ondo aukeratuz gero, ba, umeentzako oso gustagarriak izan daitezke. Hortik aurrera ia mailaren arabera, ba, dependitzen du, ez? Ba txikiagoekin gustatzen zait jolastea, hasieran zortzi urtekoekin edo horrela ez ditut jartzen bapatean kantatzen, gai bat ematen diet edo dena delakoa, normalean koplekin hasten dira. (Berts5 20151203)

Egoerak antzeztzen dituzte, simulatzen dituzte eta dramatizazioak egiten dituzte. Kasu batzuetan izan daiteke 'role playing'a egiteko aukera ematen duen metodologia, aurreikusi daitezkeelako gertatuko diren zenbait egoera eta bitarteko horrekin landu. Horrela, bertsolaritzaren **egunerokotasunean aplikagarriak eta errealistak diren egoerak** eramaten dira klasera, ikaskuntza esanguratsua ahalbidetuz.

Guk antzerkian esaten genuen 'zergatik zaude urduri? badakizu zer kantatu, badakizu zer esan behar duzun, nola jarriko zara urduri?'. Baina bai, nik uste dut

asko laguntzen duela bertsoak horretan, nor bere buruagan jendaurrean segurtasun hori izaten, ba horixe, ba aurkezpenetan edo edozein gauzetan, jendaurrean egin behar diren edozein gauzatan erakusten du horretan. (Berts5 20151203)

Bertso-antzerkia erabiltzearekin batera ezagutzen dituzten bestelako estrategia batzuk ere erabiltzen dira, hala bertsoen bidezko ipuinen kontaketa **publikoaren aurrean jartzeko** beste bide bat da, bertsoak buruz ikasteko tresna egokia izan daitekeena.

Eta txikiekin saiatzen naiz antzerkiak, bertso antzerkiak. Behin eraman nuen batzuk bertso antzerki batera, ipuin bat, Txanogorritxuren ipuina, bertsoan kantatuta. Eta hurrengo astean iritsi zitzaizkidan denak bertsoak buruz zekizkitela eta esan zidaten antzerkia egin nahi zutela. Irakasleak esan zidan aste osoa pasatu zutela elkarren artean entrenatzen eta ensaiatzen. (Berts5 20151203)

Elkarrizketetan kontatu zigutena, saio praktikoan ikusteko eta konprobatzeko aukera izan genuen eskoletan. Saiotako batean bertso antzerki bat egin zuten ikasleek. Hurrengo lerroetan ikus daiteke grabatutako pasarte bat, non 'Nork egin dit hori buruan?' ipuina antzezten duten.

Ikasle 2: ez, ez, ez dut egiten nik horrela. Albondigak egiten ditut platerak bezala.

Ikasle 1: ardia ikusita, zatoz neregana. Zu izan ote zara hau egin didana?

Irakaslea: benga ardia...!

Ikasle 3: ez, ez, ez dut egiten nik horrela....

Ikasle 1: aizu! Antoni ahuntza, zatoz neregana! zu izan ote zara hau egin didana?

Ikasle 4: Ez, ez, ez dut egiten nik horrela, nireak egiten ditut kongito bezala.

Ikasle 1: behi haundi polit hori, zatoz neregana! zu izan ote zara hau egin didana?

Ikasle 5: ez, ez, ez dut egiten nik horrela, gauza berde-marroi bat opila bezala.

Ikasle 1: txerri txiki itsusia zatoz neregana, zu izan ote zara hau egin didana?....

(Irakas3)

Beste batzuetan **egungo joera kulturalak aprobeztatzea** nahiago dute, esate baterako

bertso-rapa eta bertso-hopara. Eredugarriak diren bertsoak hartzen dituzte klasera eramateko, baina beste estilo batzuetan kantatutakoak, hala ikasleek ikus dezakete bertsoak egiteko modu asko daudela. Hori buruz hitz egin du elkarrizketatutako emakume bertsolari-irakasle batek.

Orain asko sartzen gara ere bai raparekin, base batzuk jarri, koplak egin eta bueno, pixka bat antzekotasun hori bilatu, hurbildu nahia ere, ez? ... (Berts4 20151201).

4.5.2.3. Kontzientzia feminista/pedagogia feminista

Kontzientzia feminista eskoletan landu nahi den funtsezko alderdietako bat da, ikasleak kontzientziatzeko gizartean dagoen patriarkatuaz eta sistema horrek berekin dakartzan praktika diskriminatzaileak mahaian gainean jartzeko. Hori dela eta, garrantzitsutzat izan genuen irakasleei zuzenean galdetzea haien kontzientzia feministaren eragina haien klasean emateko moduan nabaritzen duten. Horregatik, beraz, atal honetan pertsona horiek esplizituki azaldutakoa zehazten saiatuko gara.

Haien erantzunei erreparatuta ez dago zalantzarik; **Kontzientzia feministak lagundu die gaur diren bertsolariak bihurtzeko bidean**, hainbat arrazoiengatik.

Noski eragin didala, nola ez ba! , bertsolari bezala, aitzindari faltak hor iraultza txiki bat egiteko egotearen kontzientziak beti motibatu izan nau, mundua aldatzeko gure aportazio txikia hortik joan zitezkeela hizkuntzaren berreskuratze prozesuarekin batera. Gozamenetik ere iraultza egin zitezkeela jakinik, aurrera egiteko motibazio handia izan da. (Berts2 20151119).

Baieztazen dute haien kontzientzia feministak eragina duela euren irakaskuntzan. **Feminismoak tresnak eman dizkie** jardun horretarako, eta irakasle batek nabarmendu du feminismoak aukera eman diola bere praktika birplanteatzeko, diskurtsoa zainduz, aniztasuna kontuan hartuz, eta taldea ahaldunduz, beste irakaskuntza-praktika eta ikuspegi batzuen artean.

Bai, zalantzarik gabe. Feminismoak funtsezko erraminta asko eskaini dizkit. Alde batetik, diskurtsiboki: genero, arraza edota klase zapalkuntza identifikatzeko, gizon-emakume binomiotik harago pentsatzeko, aniztasuna zentzu guztietan baloratzeko (ideologikoa, emozionala, fisikoa...). Eta bestetik, klaseetako

praktikak birplanteatzeko: nesken ahalduntzea, mutilen autokritika/deseraikuntza irakasle-ikasle botere harremana, asertibitatea, jarduera motak, leihakortasuna (txapelketak, sariketak), ikasleei aurkezten dizkiegun erreferenteak etab. Ahal dudan neurrian, aspektu hauek kontuan hartzen ahalegindu izan naiz beti (Irakas1).

Irakasle batek uste du **kontzientzia feminista** horrek beti gidatzen duela bere jardueran, bere **nortasunaren parte** delako, eta ulertzen du zeharka eragina duela bere irakaskuntza osoan.

Baietz esango nuke. Hasteko, inkontzienteki edo zeharka. Izan ere, kontzientzia feminista ez da niganik aparte kokatzen dudan zerbait, uneka eta modu etenean heltzen diodan zerbait. Kontrara, nigan integratuta dagoen zerbait dela esango nuke eta egiten ditudan gauza guztietan zeharkatzen nauela, nolabait; egiten ditudan gauza guztiak kontzientzia edo begirada horretatik egiten ahalegintzen naizela beti (Irakas2).

Genero-sistema esparru sozial guztietan dago presente, eta horren ondorioz, bertsolaritzari ere eragiten dio. Horregatik, garrantzitsua da feminismotik lan egitea, **egiturazko zapalkuntzak agerian uzteko**.

Gainera, bertso-eskoletako kasu konkretuan, are kontzienteagoa da feminismotik eragiteko eta egiteko gogo hori. Genero-sistemak gizarteko espazio guztietan eragiten duela ulertzen dut eta horietako bat da bertsolaritzarena eta, beraz, bertso-eskola bera ere bai. (Irakas2).

Hori dela eta, **patriarkatuaren mekanismoak ikusarazi nahi dira**, ikasleek gaiari buruzko ikuspegi kritikoa gara dezaten, zapalkuntzez eta bereizkeriez kontzientzia hartuz eta haien burua diferentzien artean parekide kokatuz.

Kontzientzia feminista hartzeak asko lagundu zidan gizartean (eta bertso munduan) patriarkatuak nola operatzen duen ulertzen eta nik neuk, emakumea izateagatik, erreproduzitzen nituen mekanismoak identifikatu eta deseraikitzen. Faktore horiek denak ikasleei ere ikusarazten saiatu izan naiz beti, bertso-eskolan (eta handik kanpo) ikuspegi kritiko horrekin pentsatu eta jardun dezaten (Irakas1).

Irakasle batek dio ondo ezagutzen duela bertsolaritzaren sistema, txikitatik hasi zela mundu honetan eta neska bakarra zela bertso-eskolan egokitu zitzaion taldean.

Bertsolaritzaren alorrean emakume gisa bizi izandako esperientziek hausnarketarako aukera eman diote eta ikasle-taldearekin **pribilegioez jabetzeko eta zapal dutako egoeratik ahalduntzeko proposamen desberdinak** lantzerantz eramane dute.

Nire bizipen propioak dauzkat, 12 urterekin hasi nintzen bertso-eskolan eta neska bakarra nintzen orduan. Badakit nola banatzen zen bertso-eskolako protagonismoa, umorea, zentraltasuna... Badakit nori jotzen zitzaion txalo, eta noren ateraldiei egiten zitzaaien barre. Nork zuen bertsoaren erdian gelditu edo hanka sartzeko zilegitasuna, eta nork pasatzen zuen bertso-eskolako ordu osoa isilik buruan bertso perfektua ondu arte. Ni neu nintzen bertso ustez perfektu hori buruan izan arte ahoa irekitzen ez zuena. Bizipen horietxengatik saiatu izan naiz bertso-eskolako klaseak kontzientzia feminista batetik ematen. Saiatu naiz protagonismoa orekatzeko moduko dinamikak proposatzen, zentraltasuna banatzen, beldurrari eta lotsari buruz hitz egiten, ikasleei nik beraien adinean bizitakoak kontatzen, neskak akuilatzen eta ahalduntzeko tresnak eskura jartzen... (Irakas2).

Kontzientzia feminista transmititzearen garrantzia nabarmentzen da, **gizarteak emakumeoi (eta zapal dutako kolektiboek) ezartzen dizkigun oztupoak gainduitzeko**. Hala, irakasle-bertsolari batek uste du kontzientzia feminista batetik lan egitea ezinbestekoa dela pertsona bakoitzak konfiantza landu dezan, aske izan dadin, oholozan egoteko eta jarduteko modu propioa aurkitu ahal izateko.

Irakasle bezala nesken talde asko izan ditut, baita neska solteak ere mutil taldeetan, eta utzi ez dezaten, oholoz gainera igotzean gizarteak ezartzen dizkigun baldintza extra eta konplexuek asko markatu digute gaztaroa, erabat kontziente izan eta hori transmititu nahi izan dut beti, beren buruarengan konfiantza izan dezaten, beren oholoz gainean egoteko modu propioa bilatu zezaten/genezan eta aske izateko eta aurrera egiteko motibazio extra moduan kontzientzia feministak berebiziko garrantzia izan du, batzutan korrontearen eta barruaren kontra izan arren. Nire motoreetako bat izan da kontzientzia feminista. (Berts2 20151119).

Klaseetan, esperientzia pertsonalak partekatu eta eremu sozialean gauzatzen diren egoerei buruz hausnartzen da. Irakasle bat gai honen inguruko albiste bat klaseratu zuen **ikasleak hausnar zezaten, kritikoak izan daitezzen eta kontzientzia piztu dadin**

haiengan.

Irakaslea: Beste gauza batzuetan adibidez... eraso eta erasotzaile eta beti erasotzailie beti imajinetan igual kalien pertsona ezezagun bat, inkluso kanpotarra...Baina beitu, justo honetan...kasu honetan eta kasuen ehuneko handi baten, erasotzaileak ez dira izaten kanpokoak, izaten dira etxeoak. Atzo twitterrean ez dakit, zabaldu zuten argazki bat, hori, erre kara bota zuen tipoak...

Ikasle 1: parece majete, ez?

Ikasle 2: ba, hori izan da....

Irakaslea: hori da. Ez dala...edozein...Bueno orduen bota dugun guztiagatik...bakoitzari ze ideia...iruditzen jatzue garatzeko modukoa bertso batean? Aber...

(pentsatzen dute)

Irakaslea: zuk esan duzu hori. Behin eta berriro, ez? Eta aguantetan garela bakarrik...idatziko duzu horri buruz bertso batean?

Ikasle 1: bai... (Irakas1)

Adibide gisa, genero indarkeria gai bezala erabiltzen du irakasle batek ikasleek gai honi buruz duten ikuspuntua haien produkzioetan isla dezaten.

Irakasle 1: zer geixau...zuek?...badakizue urruntzeko ordena ez? Eukin dabilela gizon askok bainaandrie 40 urte eta gizonak 20... zeukan orden de alejamiento. Orduan zuk hortik idatziko duzu bertso bat...

Ikasle 2: Bai.

Irakasle 1: nik lagunduko jatzut gero. (Irakas1)

Askotan oholtzarako aukera sortzen denean **neskak atzean geratzen dira** eta horrelakoak ekiditeko irakasleoi iruditzen zaie hainbat **ekintza antolatu behar direla ikasle guztiak motibatuzko**. Horri begira aipatzen dituzten ekintzen artean eskolarteko txapelketak (erakustaldi moduan antolatutakoak, puntuaziorik gabekoak), ikasturte bukaerako jaialdiak, bertso-eskoletako eguna, neguko bertso-udalekuak, edo udako bertso-udalekuak daude. Baina azkenean, saio bakoitzean lasaitasuna eta normaltasuna lantzea izaten da aukerarik onena, konfiantza hartzen joateko progresiboki.

Jaialdirako kurtso osoa daukagu lantzeko eta egiten ditugu beldurra gainditzeko

unitate batzuk (Berts7 20160104)

Jendaurrean kantatzeko beldurra uxatzeko motibazioa pizten saiatzen dira, lehenago aipatutako aurrelanketarekin batera.

Irakaslea: ja buruz ikasi behar duzue e, paperik gabe. Bueno badakizue datorren astean bukatzen dela bertso lehiaketarako bertsoak aurkezteko epea. Baduzue gogoia egiteko, ala ez? (Irakas2)

Ez da errepikatzen 'paparra ateratzea'ren eredua, baina **presentzia** minimo bat eskatzen zaie ikasleei hainbat eta hainbat kasutan. Izan ere, oholtza gainean publiko baten aurrean kantatu beharko dute eta **segurtasuna** sentitzen ez badute ere, horren planta egin beharko dute.

Ezin duzu oholtza batera igo zure eztarriari kantatuz, ba atera behar duzu ahotsa eta hori bai erakusten diet eta saiatzen naiz behintzat ba jendaurrean presentzia bat izan behar dutela erakusten, baina bueno, umeak dira, eta garrantzi gehiegi gabe, baina bai saiatzen naiz hori erakusten. Baina egia da niri ez zaidala tokatu erakustea, ba ia jendaurrean bertsoetan egin behar zutenak. (Berts5 20151203)

Eta aurreko irakasleak elkarrizketan kontatu zuena beste irakasle baten klasean behatzeko eta grabatzeko aukera izan genuen:

Irakaslea: bale, beste bat. Bigarrena bardin baina eskue bajau lepotik eta pixka bat altutxo eta lasaiago kantau. Eta aurrera begire.

Ikasle 1: bertsoetan ari gara taulara igota. (Irakas1)

Beste batzuetan estrategia izan daiteke bertsoetan zentratzea, horretan kontzentratzea eta beste guztia ahaztea, edo ingurukoengandik isolatzea, eta hori probatzeko bertsoak begiak itxita eta etzanda kantatzen dituzte. **Simulazioak** ere egiten dituzte; kantatzen dutenean besteek ez txalotzearena, edo publikoak muzin egingo balizu bezala egitearena. Beti ere irakaslearen babesa senti dezakete horrelako jardueretan, hori aipatzen du irakasle batek elkarrizketa sakonean galdetu genion momentuan.

Orduan nik ere oholtzarik ez, sekula, baina bueno, nik umeak jarri ditut mahai gainean etzanda eta danak bertsoetan eta begiak itxita. Sentsazioa sentitzeko, eta ematen du txorakeria bat dela, baina bertsoetan ari direnean atzean norbait

daukatela sentitzea, beste batzutan, ba bueno, erreakzioa ba "gaur ez dugu txalotuko", edo zer sentitzen da. Klaro guk egiten duguna da. (Berts8 20160109).

Emakume bertsolariek kontziente dira eta onartzen dute ikuspegi feministatik lan egiten dutela, eta kontzientzia horretatik lan egitera bultzatu dituzten arrazoiak desberdinak direla aipatzen dute. Baina oro har bat datoz ideia batean; gizarte patriarkalak inposatzen dizkigun oztopoak gainditu behar ditugu nagusi den sexu/genero sistemaren biolentziak kolektiboki borrokatuz, eta horretarako sentsibilizazio, deseraikitze eta ahalduntze lana egin behar da.

4.5.2.4. Bertsolaritza hezkuntzan: euskal curriculumean, baliabide eta materialak

Baliabide materialak azken urteotan joan dira gaurkotzen, teknifikatzen eta birsortzen, eta elkarrizketatutako bertsolari gehienek parte hartu dute sorkuntza horretan. Baina ezin da ahaztu **lehenengo bertso-eskoletako materialak egun ere erabiltzen direla**, metodo tradizionala berritzailearekin osatu eta gaurkotu da eta. Elkarrizketetan honi buruz hitz egin da.

Gero badugu nahiko material ona ere hasierako bertsozale elkarteak daukan USBan dena, ba, bertso klasikoak doinu klasikoak, oinarrizkoak, baina power pointekin eta irudiekin eta nahiko oinarri, euskarri sendoa ematen dutenak. (Berts4 20151201)

Nik uste dut baietz, erabiltzen dela gaur egun material hori, eta heldu bada behintzat gaur egun dauden irakasleengana, hor badago lan bat eginda. Amurizak atera zuen *Hitzaren Kirol Nazionala* nik uste dut zela... eta *Ni ere bertsolari*. Eta berak esplikatu zuen lehenengo metodo hartan eta hori zen guk tabernan geneukana, hori bakarrik zegoen. Eta zen teknika erakusten zuen nola bertsoak osatzeko, bukaera pentsatu, esplikatzen zuen ariketa batzuk, AEKk argitaratu zuen gainera. Hori zen lehenengo material ezaguna eta zegoen bakarra. Eta hortik aurrera sortu den guztia ba hor egon garen irakasleak, azkenengo bi urteetako irakasle talde hori. (Berts2 20151119).

Bertso klasikoak ezagutzen dituzte eta eurekin jolas egiten dute. Kasu honetan

irakasleak jakin nahi zuen zein puntura arte ezagutzen dituzten bertsolari klasikoak eta asmakizuna jolas bihurtzen da. Hona adibide bat, klasean proposaturiko ariketa bat.

Ikaslea 1: Mundurat eman ninduzun

Irakaslea: Mundurat eman ninduzun. Sonau jatzue?

Guztiok: ez.

Irakaslea: Nori buruz izan daiteke? Ama. Mundurat, hori bizkaitar batek idatziko luke edo nork idatziko luke?

Ikasle 1: Iparralde...

Irakaslea: Iparralde, Nafarroako batek... ze bertsolari pentsatzen duzue...iparralde, Nafarroakoa? Pista bat emango dotzuet eta hilda dago ja.

Ikasle 1: Xalbador?

Irakaslea: bai. (Irakas4)

Elkarrizketetan hainbat posibilitate aipatzen dira baliabideen artean, hain zuzen, esaten dute **IKTen erabilpenak** erraztu duela irakaslearen egunerokotasuna, leku batetik bestera askoz material gutxiago mugituz, tresna hobekak topa daitezkeelako internet bidez, adibidez youtuben dauden bideoak. Gainera USB giltza batean gorde daitezke eta edonora eraman. Bertso-movie-a ere aipatu da ikus-entzunezko erabilgarrien artean.

Gaur egun errazagoa da, ze lehenago joaten ginen kriston maletarekin, fotokopiak, hau ez bada bestea, kaseta antzera. Orain goaz USB batekin eta askotan ez da hori ere behar interneten dagoelako. [...] Gaur egun ze material? ba horrela, adibidez bertso mobidako materiala asko gustatzen da, eta irudi bat emateko ona da. Hor ditut Goierrin lehiaketa bat urtero, badago bat oso bertso frikia edo... bertso movie ... (Berts4 20151201)

Sartzen zara youtuben, bertso frikia, eta hori da gehien gustatzen zaiena. Hori ez dakit, Oñatiko bertso-eskolakoak edo egin dute eta haiek badaukate beste bat ere nahiko polita. Edo irabazi zuena, Lander Garrona, nola da paradisua lurpean? Paradisua lurpean oso Maddalen Arzallusen bi bertsoekin horrela, korto bat oso

polita. Esan nahi dut estilo horretako gauzak. (Berts4 20151201)

Behaketa egitean, egun batean, bideo bat ikusten ari dira, bertso-movie bat, adibidez, eta ondoren, sortzen dira galderak eta zalantzak, bideoa aitzakia eta bidelagun bihurtu da. Hausnarketarako aukera.

Irakaslea: gustatu zaizue?

Batzuk: bai

Ikasle 1: bat deitzen da Afrika.

Irakaslea: Etbko kazetari batek horrela deitzen da. Aber, nork nahi du ikusi ispiluarena?

Ikasle batzuk: nik bai.

Irakaslea: hori ez da desafinatua, hori da silaba, aparatua. Bueno, beste bat ikusiko dugu. Bueno azkena, hau uste dut bideoa grabatu dutela eta gero bertsoa sartu dute.

Irakaslea: ulertzen duzue bertsoarena, ezta? Irudiak erabiltzen dituzte bertsoari laguntzeko. (Irakas3)

Azkenik, hezkuntza arautuan *Gu ere bertsoan* liburuarekin lanean aritzen dira. Behatutako eskoletan hori ikusteko aukera izan genuen, baina alde zuzenetik ere, elkarrizketetan esanda zuten elkarrizketetan aipatu berri dugun eskuliburua erabiltzen zutela.

4.6.- Eztabaida eta ondorioak

Bertso-eskoletan metodologia eboluzionatzen joan da, hala, elkarrizketatutakoek eta behatutako irakasleek ikasle zirenean bizi izan zutena eta gaur egun beraiek irakasle gisa egiten dutena oso ezberdina da, eta erabiltzen dituzten irakaskuntza-metodoak ere bai. Elkarrizketatutako emakumeek esan digute bertsolaritza egiteko modu bat jaso zutela; bertan bat-batekotasunera pasatu baino lehen bertsoen errepikapena eta idazketa oso jarduera ohikoak ziren. Eredua zurruna zen, seriotasuna eta indarra islatzeko asmotan egindakoa, kideen arteko saretzea eta partaide bakoitzaren emozioak ez ziren lantzen eta jolas egiteko espazio gutxi gelditzen zela diote (Alberdi,

2015; Larrañaga, 2013; Lasarte et al., 2016). Ikaskuntzaren ikusmolde hori, pedagogia tradizionalarekin egiten du bat, non eskolaren helburu bakarra zen bertsolariak produzitzea, garaian zegoen urritasunari aurre egin eta etorkizunean galdu ez zedin. Eskolen helburua edukien irakaskuntzan zentratzen zen (Prieto, et.al, 2009).

Pedagogia tradizionalak azterna sakona utzi duela ikusteko aukera izan dugu, errimak eta doinuak, txikitik handira joan, bertsoak buruz ikasi eta paperean idatzitako bertsoak kantatzea aspaldidanik nagusitu den ohiko praktika bat da bertsolariaren alderdi teknikoa barneratzeko, hau da, eduki hutsen lanketa soila. Baina badirudi ohiko jardunean jasotzen zen eredu pedagogikoarekin kezka bat zegoela belaunaldi berrietan, eta horrek XXI. mendean dauden bertso-eskoletako irakasleak estrategia pedagogiko berriak bilatzera eraman zituen. Eredu tradizionala osatu eta gaurkotu dituzten metodologiak aurrera eramaten dira. Horrela, XX. mendean zehar hezkuntza kritiko eta dialogikoaren erreferenteek bultzatutako korranteak izan zuten garrantzia nabarmendu behar da puntu honetan: Lev Vigotskik eta Paulo Freirek bultzatutako teoriak eragina izan dute hezkuntzari eta gizarteari pedagogian ekarpen handiak eginez.

Metodologiarekiko kezka egonda ere askotan intuizioaz baliatzen dira egungo bertso-irakasleak topatzen dituzten arazoei erantzuna emateko, izan ere, askok eta askok ez dute formazioa jaso irakasten aritzeko. Hori dela eta, saiakuntza eta errakuntza bidezko ikaskuntza erabiltzen dute eta eredu dialogikoak erabiltzen dira. Modu horretan, ikasleei jarduerari buruz galdetzen zaie haien parte hartze aktiboa sustatuz, horrela proposatutako metodologia ikasleen beharretara eta gustuetara egokitzen da haien motibazioa eta inplikazioa handituz. Era berean, praktikaz gain hausnarketarako aukera dute ikasleek eskola hauetan eta bakoitzak bizitako esperientziak partekatzen eta ateratako gaiak eztabaidatzen dira (Apple & Beane, 1997, Arostegui, Darretxe eta Beloki, 2013, Freire, 1997, Padrós & Flecha, 2014, Peterson, 1995, Rosenstock & Steinberg, 1997, Sánchez, 1999).

Ilido honetan, irakasle hauek taldea indartzen eta kideen arteko konfiantza sortzen ahalegintzen dira espazio seguru eta atsegin bat eskainiz. Helburu horrekin hainbat jarduera proposatzen dira ikasleak motibatuz eta gatazkei aurre egiteko (236/2015 dekretua). Irakaslearen rola aldatu da, ezagutzaren jabe zen autoritatea

izatetik ikasleek haien ikaskuntza prozesuan duten bidelaguna izatera pasatu da. Hori guztia, lidergo eta pedagogia dialogikoan oinarrituta dago, bakoitzak bere diferentziak izanda, berdinen arteko elkarrizketa baita ezagutza eraikitzeke modua (Apple & Beane, 1997; Arostegui Darretxe & Beloki, 2013; Freire 1997; Padrós & Flecha, 2014; Peterson, 1995; Murillo, 2006; Sánchez Aroca, 1999). Horrela, aniztasuna kontuan hartzen da eta ikaslea bere ikaskuntza-prozesuan protagonista aktibo gisa ulertzen dute irakasleek. Proposatutako jarduerak esanguratsuak, errealistak eta egunerokotasunean aplikatu daitezkeenak dira. Hortaz, esan daiteke metodologia aktiboen filosofia presente dagoela bertso-eskoletan (Bernal, et.al, 2009).

Ezin dugu ahaztu bertsolaritzan metodologia berriekin batera genero ikuspegia eta feminismoa txertatzen ari direla. Emakume bertsolariek ekimenak sortu dituzte bide hori urratzeko. XXI. mendean emakume sortzaileek eremu publikoan egoteko eskubidea eta beharra aldarrikatu dituzte (Alberdi, 2019), eta horrekin batera plazandre izena erabiltzen hasi dira zenbait emakume-bertsolari, generoari buruzko hausnarketa kritikoa sustatuz eta euskal kulturak eta hizkuntzak duten ikuspegi androzentrikoa salatzeke asmoz. Azken urte hauetan emakume bertsolariek eman dituzten pausoak nekez uler litezke Bertsozale Elkarteak parekidetasunaren alde garatu duen zeregina kontuan hartu gabe. 2008an Genero Taldea sortu zen. Horrek saretzea eta horren ondoriozko hazkuntza eta askatasun pertsonalak eta hausnarketa kolektiborako giroa bultzatzeaz gain, material didaktikoak sortzeaz eta formazioaz arduratzen da (Lanku, 2008).

Eskola, espazio soziala denez, gizartean dagoen genero-sistema erreproduzitzen du, hortaz begirada feministatik bertako praktika diskriminatzaile, sexistak eta baztertzailak salatzen dira (Montenegro & Corbalán, 2020). Feminismoaren teoria eta praktika bertso-eskoletan sartu dira eta pedagogia kritikoa bidez gizartearen patriarkatuaz eta sistema horrek berarekin dakartzan praktika diskriminatzaileak azaleratzen dira. Ikasgelan proposatzen diren jarduerak bide horretatik doaz, eta gizon/emakume binarismoa eta botere-harremanak gainditzeko, aniztasuna kontuan hartzeko eta eredu hegemonikoaren berriskupen kritikoa egiteke (Alvarez-Uria, et.al., 2019) urratsak ematen ari dira irakasleok. Emakume-bertsolariek aitortzen dute ikuspegi feministatik lanean dihardutela eta

sentsibilizazio eta ahalduntze lana ezinbestekotzat dela haien eguneroko jardunean.

Azkenik, bertsolaritza nagusiki egungo bertso-eskoletan lantzen da, baina hezkuntza arautuan ere leku inportantea du (Armistead & Zulaika, 2005; Sarasua, 2007). Baliabide materialak azken urteetan joan dira gaurkotzen, eta azken urteetan argitaratutako materialen sorkuntzan elkarrizketatutako emakume bertsolariek ere parte hartu dute. Baina ezin da ahaztu lehenengo bertso-eskoletako materialak erabiltzen jarraitzen direla edukiak lantzeko, hortxe ditugu Amurizak sortutako materialak, bertsoaren teknika jorratzen laguntzen duten lanak (Egaña, 2007). XXI. mendean globalizazioak eraldaketa sozialak ekarri ditu eta ezagutzen transmisioa eraginkor izan dadin ahozko kodifikazioa, idatzizko kodifikazioa eta ikonosfera digitala kontuan hartu behar dira (Pallarès, 2014). Horrela, IKTen erabilpenarekin eta *Gu ere bertsoan* proiektuari esker, bertsolaritzaren irakaskuntza teknifikatu eta digitalizatu dute egungo profesionalek. Izan ere, euskarri informatikoak, teknologikoak eta ikus-entzunezkoak nagusitzen dira bertso-eskoletan. Materialak askotarikoak izatea ezinbestekoa da, horri esker gaitasun pertsonaletara egokitu daitezke eta garapen-prozesuak bermatuko dituzte (Lanku, 2008). Ezin dugu ahaztu material horri, ikuspegi aktibo, dialogiko eta kritikoaz gain, genero perspektiba ere txertatu zaiola (Lasarte et al., 2016), bai baliabideetan bai prozeduretan, eta IKTen erabilera dela ikaskuntza-irakaskuntza berritzailearen ezaugarrietako bat.

Laburbilduz, bertsolaritzaren irakaskuntzan azken urteotan hainbat aldaketa gauzatu direla esan daiteke. Hasteko, globalizazioak ezagutza transmititzeko moduan aldaketak ekarri ditu. Beraz, bertsolaritzaren metodologiak aldaketa horiek kontuan hartu ditu gizartean sortutako eskakizun berrietara egokitzeko, ikus-entzunezko baliabideak edo euskarri digitalak kasu. Jarraitzeko, beharrezkotzat jo izan da aurreko mendean zehar sortu ziren teoria pedagogiko berritzaile eta kritikoak ezagutzea eta aplikatzea, eta argi ikus daiteke horien lekua Bertsozale Elkartearen materialetan. Amaitzeko, nabarmentzekoa da aniztasuna kontuan hartu behar dela ikasle guztien kalitatezko ikaskuntza inklusiboa bermatzeko, eta horretarako beharrezkoa da ahots guztiak kontuan hartuko dituen lidergo dialogikoa sustatzea, hots, berdinen arteko elkarrizketan oinarritzea bertsoaren ikaskuntza-irakaskuntza. Horrekin oso lotuta dago begirada feminista, izan ere, kontzientzia feminista berarekin dakarren pedagogia

feminista erabiltzen dute egungo emakume bertsolari-irakasleek, bertsolaritza jorratzen ari diren ikasleak kritikoak izan daitezzen eredu hegemoniko patriarkalak inposatutako praktika diskriminatzaileak erreproduzitu edo jasan ez ditzaten bertsozale (eta pertsona) gisa. Horregatik, sentsibilizazio, deseraikitze eta ahalduntze lan horretan dihardute, bai pentsamenduz, bai ekinez, bai pertsonalki, bai kolektiboki, eta ikusitako eta ikasitako guztia klasera daramate, ikasleekin partekatuz eta elkar elikatuz.

4.7. Erreferentzia bibliografikoak

236/2015 Dekretua, Abenduaren 22koa. Oinarrizko Hezkuntzako Curriculum. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. EHAA, 9, 1-724. Retrieved from <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/eli/es-pv/d/2015/12/22/236/dof/eus/html/>

Alberdi, U. (2015). *Bertsolaritza eta generoa*. Errenteria: Memorandra aurkezpena.

Alberdi, U. (2019). *Kontrako eztaarritik*. Zarautz: Susa.

Alonso, C. M., Gallego, D. J. & Honey, P. (2004). *Los estilos de aprendizaje: Procedimientos de diagnóstico y mejora*. Bilbo: Mensajero.

Alvarez-Uria, A., Vizcarra, M. T., & Lasarte, G. (2019). El significado y la evolución del término «coeducación» con el cambio de siglo: el caso de los centros escolares de Vitoria-Gasteiz. *Tendencias Pedagógicas*, 34, 62-75. doi: 10.15366/tp2019.34.00

Amuriza, X. (1981). *Hitzaren kirol nazionala*. Bilbo: AEK.

Amuriza, X. (1982). *Zu ere bertsolari*. Donostia: Elkar.

Apple, M. W. & Beane, J. A. (1997). La defensa de las escuelas democráticas. In M. W. Apple & J. A. Beane (eds.). *Escuelas Democráticas* (pp. 13-47). Madrid: Morata.

Apple, M. W. & Beane, J. A. (1997). Lecciones de las escuelas democráticas. In M. W. Apple & J. A. Beane (eds.). *Escuelas Democráticas* (pp. 155-162). Madrid: Morata.

- Armistead, S. G., & Zulaika, J. (2005). *Voicing the Moment: Improvised Oral Poetry and Basque Tradition*. Reno: University of Nevada.
- Arostegui, I., Darretxe, J., & Beloki, N. (2013). La participación de las familias y de otros miembros de la comunidad como estrategia de éxito en las escuelas. *Revista Iberoamericana de Evaluación Educativa*, 6(2), 187-200.
- Artetxe, M. (2019a). Emakume bertsolari garaikideak. Ahalduntze-prozesu baten kontaketa posible bat. In M. Artetxe & A. Labaka (eds.). *Bertsolaritza feminismotik (bir)pentsatzen* (pp.257-277). Bilbao: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Artetxe, M. (2019b). *Ipar Euskal Herriko bertso-eskoletako gazteen hizkuntza ibilbideak. Gazte identitateak, hizkuntza mudantzak eta legitimazio prozesuak*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Bernal, M.C. & Martínez, M.S. (2009). *Metodologías activas para la enseñanza y el aprendizaje*. *Revista panamericana de Pedagogía*, 14, 101-106.
- Coffey, A., & Atkinson, P. (2003). *Encontrar el sentido a los datos cualitativos*. Medellín: Contus.
- Colás, M. P. & Buendía, L. (1992). *La investigación educativa*. Sevilla: Alfar.
- Downing, N. & Roush, K. (1985). From passive acceptance to active commitment: A model of feminist identity development for women. *The Counseling Psychologist*, 13(4), 695-709. doi.org/10.1177/0011000085134013
- Egaña, A. (2007). The process of creating improvised bertsos. *Oral Tradition Journal*, 22(2), 117-142. <https://hdl.handle.net/10355/65108>
- Escudero, J. M., González, M. T., & Rodríguez, M. J. (2014). La mejora equitativa de la educación y la formación del profesorado. *Multidisciplinary Journal of Educational Research*, 3(3), 206-234. doi:10.4471/remie.2013-2014.
- Fiedler, E. (1967). *A theory of leadership effectiveness*. New York: McGraw-Hill.
- Flick, U. (2014). *El diseño de la Investigación cualitativa*. Madrid: Morata.

- Freire, P. (1997). Dialogicidad. In P. Freire (ed.). *A la sombra de este árbol* (pp.100-111). Barcelona: El Roure.
- Fullan, M. (2011). Investigación sobre el cambio educativo: presente y futuro. *Revista digital de Investigación lasaliana*, 3, 31-35. Retrieved from http://revista_roma.delasalle.edu.mx/numero_3/michael_fullan_3.pdf
- Garzia, J. (2012). *Bertsolaritza*. Donostia: Etxepare Euskal Institutua.
- Gutiérrez, M.G., García, J.L., & Vieira, D.M. (2012). Estilo de las variables que influyen en los Estilos de Aprendizaje de diferentes grupos de grado de magisterio de la Universidad de Valladolid, España. *Learning Styles Review*, 5(10), 55-64. Retrieved from <http://revistaestilosdeaprendizaje.com/article/view/960>
- Hernández, J.M. (2019). Hutsuneak du hitza. In L. Agirre (ed.). *Bertsoari neurria hartzen* (pp.39-57). Andoain: Jakin.
- Hersey, P. & Blanchard, K.H. (1977). *Management of Organizational Behavior 3er Edition-Utilizing Human Resources*. New Jersey: Prentice Hall.
- Lanku. (2008). *Bertsolaritzaren Curriculuma Lehen hezkuntzan*. Villabona: Euskal Herriko Bertsozale Elkartea.
- Larrañaga, J. (2013). *Jolas sakona: Txapelketaren prozesu errituala eta bertsolariaren arrazoi sortzailea XXI mendeko agoran*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Lasarte, G., Álvarez-Uria, A., Ugalde, A., Lekue, P., & Martínez, J. (2016). *Emakume bertsolariak. Ahanzturatik diskurtso propiora*. Gasteiz: Emakunde.
- Lasarte, G., Fernández, V., Alvarez-Uria, A. & Gómez-Pintado, A. (2019). Women bertsolaris, reclaiming the past, singing the present. *Prisma Social*, 25, 488-518. Retrieved from <https://revistaprismasocial.es/article/view/2707>
- Lasarte, G., Vizcarra, M.T., Perales, A. & Fernández, V. (2020). Las mujeres bertsolaris, agentes en su incorporación a la escena pública. *Boletín de Literatura Oral*, 10, 249-264. <https://doi.org/10.17561/blo.v10.5102>.
- León, I., Martínez, J., Gamito, R. & Vizcarra, M.T. (2020). Haur-hezkuntza genero-ikuspuntutik egiten den lanketa. *Uztaro*, 112, 41-61.
- Lewin, K., Lippitt, R., & White, R. (1939). Patterns of aggressive behavior in

- experimentally created social climates. *Journal of Social Psychology*, 10, 271-301.
- Matxain, X. (2020). Bat-bateko bertsolaritzaren funtsezko ezaugarriak: azterketa sinkroniko bat. *Fontes Linguae Vasconum*, 129, 87-116. doi: <https://doi.org/10.35462/FLV129.3>
- Montenegro, C. & Corbalán, A.P. (2020). Desplazamientos desde las pedagogías feministas: reflexiones posibles para un ejercicio docente situado. *Femeris* 5(3), 8-29. doi: <https://doi.org/10.20318/femeris.2020.5760>.
- Murillo, F. J. (2006). Una dirección escolar para el cambio: del liderazgo transformacional al liderazgo distribuido. *REICE. Revista electrónica sobre Calidad, Eficacia y Cambio en educación*, 4(4e), 11-24. Retrieved from <https://www.redalyc.org/pdf/551/55140403.pdf>
- Padrós, M. & Flecha, R. (2014). Towards a Conceptualization of Dialogic Leadership. *International Journal of Educational Leadership and Management*, 2(2), 207-226. doi: 10.4471/ijelm.2014.17
- Pallarès, M. (2014). El legado de Paulo Freire en la escuela de hoy: de la alfabetización crítica a la alfabetización en los medios de comunicación. *Teoría de la Educación*, 26(1), 59-76. DOI: <http://dx.doi.org/10.14201/teoredu2014261597>
- Peterson, B. (1995). La escuela Fratney: un viaje hacia la democracia. In M. W. Apple eta J. A. Beane (Ed.), *Escuelas Democráticas* (pp. 95-130). Madrid: Morata.
- Prieto, O., & Duque, E. (2009). El aprendizaje dialógico y sus aportaciones a la teoría de la educación. *Teoría de la Educación y Cultura en la Sociedad de la información*, 10(3), 7-30. Retrieved from: <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=201014898002>
- Quintero, K.T. (2019). Transformación del Aprendizaje desde el enfoque social (TADES). *Revista Scientific*, 4(13), 322-334. <https://doi.org/10.29394/Scientific.issn.2542-2987.2019.4.13.17.322-334>
- Rekalde, I., Vizcarra, M.T. & Macazaga, A.M. (2014). La observación como estrategia de investigación para construir contextos de aprendizaje y fomentar procesos participativos. *Educación XX1*, 17(1), 199-220. Retrieved from

<https://www.redalyc.org/pdf/706/70629509009.pdf>

- Rodríguez, G., Gil., & García, E (1996). *Análisis de los datos cualitativos asistidos por ordenador: agud y Nudist*. Bartzelona: PPU.
- Rosenstock, L. & Steinberg, A. (1997). Más allá del taller: reinventar la formación profesional. In M. W. Apple & J. A. Beane (eds.). *Escuelas Democráticas* (pp. 71-94). Madril: Morata.
- Rowlands, J. (1997). *Questioning Empowerment*. Oxford: Oxfman Publications.
- Salder-Smith, E. (2001) Self-perception of team-roles: some implications for business and management. In R. J. Riding, S. Rayner & S.G. Rayner (eds.). *International Perspectives on Individual Differences: Self-Perception*. (pp.101-132). Santa Barbara, US: Praeger Publishers.
- Sánchez, M. (1999). La Verneda-Sant Martí: a school where dare do dream. *Harvard Educational Review*, 69(3), 320-335. Retrieved from <https://escuelamoderna17.files.wordpress.com/2017/01/la-verneda-san-martc3ad-una-escuela-donde-las-personas-se-atreven-a-soc3b1ar.pdf>
- Sarasua, J. (2007). Social Features of Bertsolaritza. *Oral tradition Journal*, 22(2), 33-46. Retrieved from <https://core.ac.uk/download/pdf/225132229.pdf>
- Spivak, G. (1993). Can the subaltern speak?”. In P. Williams & L. Chrisman. (eds.). *Colonial Discourse and Post-colonial Theory: A Reader* (pp. 90- 105). London: Harvester Wheatsheaf. Retrieved from abahlali.org/files/Can_the_subaltern_speak.pdf
- Vallés, M. (2003). *Técnicas cualitativas de investigación social*. Madril: Síntesis Sociología.
- Vigotsky, L.S. (1983) *Pensamiento y lenguaje*. Bartzelona: Paidós.
- Zubiri, H. (2019). Kulturgintzari begiratzeko betaurreko berriak. Bertsolaritzatik ikasten. In L. Agirre (ed.). *Bertsoari neurria hartzen* (pp.11-37). Andoain: Jakin.
- Zubiri, H., Aierdi, X., & Retortillo, A. (2019). *Kultura ez da bat-batekoa. Bertsolaritza aztergai*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

5. KAPITULUA

BERTSO-ESKOLAK: ALDERDI SOZIO-EMOZIONALAREN GARRANTZIA AHALDUNTZE PROZESUAN

5.- Bertso-eskolak: alderdi sozio-emozionalaren garrantzia ahalduntze prozesuan¹¹

Aurreko mendearen amaieran bertsolaritzaren irakaskuntza tradizionala alde teknikoan eta bat-bateko sormenean zentratu zen, bertsoen ekoizpenean zehazki, eta bertsolari identitatearen edo talde izaeraren eraikuntzarako beharrezkoa den lanketa sozio-emozionalak ez zuen lekurik izan garai hartan (Alberdi, 2015; Artetxe, 2014; Lasarte, Fernández, Álvarez-Uria & Gómez, 2019).

Azken hamarkadetan ordea, gizartean gertatu diren aldaketek eragina izan dute bertsolaritzaren garapenean (Artetxe, 2019), eta horrekin batera, bertsolaritzaren ikaskuntza-irakaskuntzan. Era berean, emakume bertsolarien ibilbidean hainbat mugarri aipatu dira azken ikerlanetan eta lan horietan agertzen diren esperientziak eta testigantzek argia eman diete emakumeek bertsolaritzaren sisteman bertsolari eta irakasle gisa sartzean eta jardutean izan dituzten bizipen eta jokaerei (Alberdi, 2015; Alberdi, 2019; Artetxe, 2014; Lasarte, Fernández et al., 2019). Izan ere, sozialki diskriminatuta dagoen kolektibo honek bere eskubideak eta aukera berdintasuna lortzeko jardun behar izan du bidea urratzen azken urteotan eta horrek paradigma aldaketa ekarri du mende berriarekin batera.

Hezkuntzara eramaten badugu lanketa hori, eta irakaskuntzara zehazki, edukien transmisio hutsetik harago joan behar garela ulertuko da. Izan ere, ikaskuntza-irakaskuntzan berebiziko garrantzia dute honako ezaugarri hauek: ikasleak bere burua ikasteko eta esku-hartzeko gai ikusteak, taldearen partaide sentitzeak eta taldekideen arteko harremanak zaintzeak. Hortaz, alde batetik, irakasle lanean *adimen emozionala* jorratzeak berebiziko garrantzia du; emozioen kudeaketa bertsolari(gai)ak egin behar

¹¹ Artikulu orijinala honako hau da: Fernandez, V., Vizcarra, M.T. eta Alvarez-Uria, A. (in press), Bertso-eskolak: alderdi sozio-emozionalaren garrantzia ahalduntze prozesuan. Bidali da Revista de Lenguas y Literaturas catalana, galega y vasca.

duen prozesu kontzientea da eta hor sar ditzakegu adimen pertsonala eta sozialaren ezaugarriak. Bestetik, perspektiba feministaz hitz egitea ezinbestekoa da egungo bertsolaritza ulertzeko, azken urteetan emakume (bertsolari) asko feminismoarekin identifikatu dira eta (Alberdi, 2019). Mende berriarekin batera emakume bertsolariak kontzientzia feministaren hedapenean murgilduta ageri dira (Esteban, 2019); teoria zein praktika feministak bertsolaritzaren egunerokotasunean aztarna uzten hasi dira.

5.1. Adimen emozionala

Hezkuntza eremuan *adimen emozionalaren* gaia leku garrantzitsua hartzen joan da azken 40 urteetan zehar. Izan ere, ikasleen alde emozionalaren zaintza XX. mendearen hezkuntza eremuko ezagutzaren eraikuntzan garrantzitsua izan da, hau da, *adimen emozionalak* curriculum akademikoan ezagutza eskuratzeko leku ahaltsua izan du (Lanku, 2008). Zientziak emozioen oinarriko kudeaketa bizitzarako jokaera, gaitasun edo ezagutza garrantzitsua dela egiaztatu du; horrekin batera nabarmendu du orain dela urte batzuk arte ezagutza akademikoari soilik eman zaiola indarra (Bisquerra, 2011).

Adimen emozionala kontzeptua Michael Beldochek 1964. urtean publikatutako artikulu batean agertu zen lehenengo aldiz. Howard Gardnerrek 1983. urtean *Frames of Mind: The Theory of Multiple Intelligences* aurkeztu zuen, eta hainbat adimenen artean adimen intrapertsonala (zeure burua ulertu, zure sentimenduak, beldurrak eta motibazioak aintzat hartu) eta adimen interpertsonala definitu zituen, *adimen emozionalarekin* erlazionatutakoak. Geroago, autore batzuk haien lanetan adimen horiei buruz hitz egin dute, baina Daniel Golemanen *Emotional Intelligence* liburua argitaratzearekin (1996) izan zuen *adimen emozionalaren* kontzeptuak zabalkunde handiena (Haardep & Gowda, 2019). Horrela, Salovey eta Mayerren arabera (1990) *adimen emozionalari* esker gure pentsamenduak eta ekintzak bideratze aldera, sentimenduak eta emozioak detektatzeko eta kudeatzeko trebetasuna gara daiteke.

Ildo horretan Bisquerrak (2011), inteligentzia emozionala norberaren eta besteen emozioez jabetzeko eta emozioak erregulatzeko gaitasuna dela aipatzen du. Hots, norberak bere emozioen erregulazioa lortzeko kontzientzia emozionala ezinbestekoa

dela defendatzen du (Fragoso, 2015). Auto-erregulazio emozionala inpultsibotasun eta errepresioaren erdian kokatuko genuke, izan ere, mutur horietako edozeinetan egotea kaltegarria izango litzateke pertsonarentzat. Golemanek dio (in Bisquerra, 2011) *adimen emozionalak* honako ezaugarri hauek dituela:

- Norberaren emozioak ezagutzea.
- Emozioak kudeatzea.
- Nork bere burua motibatzea.
- Besteen emozioak ezagutzea, haiekiko *enpatia* izatea.
- Beste pertsonekin harreman positiboak ezartzea, trebetasun sozialak garatzea.

Lehenengo hiru dimentsioak auto-erregulazioarekin lotuta daude; izan ere, gure sentimenduak ezagutzea, kudeatzea eta geure burua motibatzea autoezagutzari erreferentzia egiten dioten faktoreak dira. Gardnerrek (1993) adimen intrapertsonal gisa bataiatu zuen gaitasun multzo hau, baina trebetasun emozional pertsonalak ere deitu izan dira. Azken bi dimentsio horiek, ordea, *enpatiak* eta trebetasun sozialek, adimen sozialarekin harremana dutela dio. Zehazki, beste pertsonak ulertzeko gaitasuna da, giza harremanak hobetzeko. *Adimen emozionala* duen pertsonak pertsonen arteko desberdintasun indibidualak behatu eta onartzen ditu, pertsonen sentimenduak, hausnarketak eta motibazioak ulertzen ditu, *enpatia* eta elkarrekintza erabiltzen ditu horretarako.

Aipatu den bezala, adimen emozionalean bi motatako adimen bereizten dira: pertsonala eta soziala (Gardner, 1993; Goleman, 1996). Adimen pertsonala adimen pertsonalarekin bat egiten duena da, eta adimen sozialari beste egile batzuek adimen interpertsonala deitu izan diote (Bisquerra, 2003; Losada, 2018). Bi adimenak garrantzitsuak dira pertsonaren garapena orekatua izan dadin; izan ere, pertsonak bere buruaz duen ezagutzak harreman sozialetan eragin handia izango du.

5.2. Emozioen kudeaketa bertsolaritzan

Emozioen kudeaketa ikaskuntza-prozesu etengabea da eta konpetentzia emozionalen garapenean eta giza garapena sustatzean oinarritzen da, horretarako bizitzarako erremintak sortu behar dira eta ongizate pertsonala eta soziala handitu (Bisquerra, 2000).

Bertsolari hitza aipatzerakoan hizkuntzan eta musikan pentsatzen dugu, baina bertsolariak bertsolaritzan partaidetza aktiboa duenean bere adierazpenean izaera pertsonala eta soziala islatuko ditu (Lanku, 2008). Hortaz, *Bertsolaritza Curriculumean* (2008) lana argitaratu zutenean egileek aipatu zuten trebetasun pertsonal eta sozial jakin batzuk beharrezkoak direla bertsolari izateko. Horrela adierazten dituzte trebetasun sozial eta pertsonal horiek:

Jendurreko inprobisazioa izaki, [bat-bateko bertsolaritzak] trebetasun ugari eskatzen ditu: norberareganako konfiantza, besteen lekuan jartzen jakin eta besteak ulertzea, edozein egoerataro egokitzea, norberaren emozioen erregulazioa, jendurrekotasuna, komunikatzaile ona izatea, oroimena, gauzak hainbat erataro adierazten jakitea, ikuspuntu desberdinak erabiltzeko gaitasuna... (Lanku, 2008: 57).

Uxue Alberdik puntu honetaz hitz egitean (2015) bertsolariak 'emozioen termometroa' aktibatuta izan behar duela aipatzen du, hau da, entzuleen sentimenduak kontuan izan behar ditu eta bertsoa sortzen duenean hartzaileentzat kantatu.

Ildo honetan baieztatu daiteke alde emozionalaren lanketa ezinbestekoa dela oholtzan ahal bezain ondo egoteko eta txapelketetan modu emankor, egoki eta orekatuan parte hartzeko. Bertsolaritzaren teknika ezagutzea inportantea da bertsoak kantatzeko, bestela esanda, errimak, doinuak eta neurriak ezagutu eta barneratu behar dira (Amuriza, 1982). Gainera eduki aldetik, diskurtso borobilak eta ideia landuak osatu behar dira. Hala ere, zenbaiten ustez bertsolaritzaren sisteman zerbaitek huts egin du urte batzuetan zehar, alde teknikoa bakarrik hartzen baitzen kontuan bertsolaritzaren irakaskuntzan. Sistema hori jaso zuten pertsona batzuek asko hausnartu dute horren inguruan, eta orain bertsolaritzaren irakaskuntza sistema aldatzen ari dira (Lasarte, Álvarez-Uria, Ugalde, Lekue & Martínez, 2016). Izan ere, ikasleen alde sozio-emozionala kontuan hartu eta zainduko da ikaskuntza prozesu

horretan Bertsozale Elkartearen azken materialak eta curriculum-proposamena kontuan izanik (Lanku, 2008). Zehazki, landu beharreko alderdiak hurrengo irudian argi agertzen dira (1.irudia), bakoitzari zor zaion garrantzia emanez:



5.1.irudia. Bertsoaren ikuspegi bateratzailea (Lanku, 2008: 20)

Iturria: Norberak egina

5.2.1. Bertsolari(gai)aren trebetasun pertsonalak

Lehen aipatu lez, trebetasun pertsonalen multzoan norberaren emozioen ezagutza, emozioen kudeaketa eta motibazioa sar daitezke (Goleman, 1996). Jendaurrekotasunak exijitzen duen bat-bateko sormen jarduera egoki egin nahi bada, autoestimu positiboa izan beharko du bertsolariak (Alberdi, 2015; Lanku, 2008; Lasarte et al., 2016).

Hortaz, ikasle bakoitzak momentu zehatz batean sentitzen eta esperimentatzen dituen emozioak identifikatzea lehenengo pausoa izango da bide horretan. Bestela esanda, lehenengo faseak kontziente izatea eskatzen du. Kontzientziazio momentu horretan ezinbestekoa da emozio horiek bideratzen jakitea, eta modu orekatuan jokatu beharko litzateke. Hori da bigarren urratsa. Baina gure emozioekin bat egin ondoren, salto handia egiten dugu auto-motibaziora ailegatzeko bidean. Fase honetan, pertsona baikorrak, motibatuak eta haien emozioen arduradunak izan behar dugu eta arazoei modu osasuntsu eta eraginkorrean aurre egiten dieten pertsonak izatera heldu (Goleman, 1996). Motibazioa pertsonen barne egoera bat da eta jarrera gidatu,

aktibatu eta mantentzen du. Motibazioak ikasleak ekintza burutzeko gai direla sinestea dakar eta beraiek ekintzaren erantzukizuna dutela (Printich eta De Groot, 1990).

Bertsolaritzaren sisteman zentratuz, Lasarte et al.-ek (2016) eginiko emakume bertsolariei buruzko ikerketan aipatzen dute neskek autoestimua falta izan dutela eta ez da harrizkoa testuingurua alde izan ez dutela kontuan izanik. Ikerketa horretan emakumezko bertsolarien oholtzarako jauzian eragina izan zuten faktoreak adierazi zituzten elkarrizketatutako askok, eta faktore horien artean segurtasuna, konfiantza, *agentzia* eta emozioen lanketa haiek jasotako bertsolaritzaren irakaskuntzan leku txikia izan zutela ondorioztatu zuten. "Arrunta da emakumeak ez ikustea bere burua gauza askotarako gai, batez ere, publikoaren aurrean egin behar diren ekintzetan" (Gaztelumendi, 2010: 31).

Izan ere, Zubiri et al.-en (2019) ikerketan irakurri dezakegun moduan emakumeak sozialki eta tradizionalki zapalduetako kolektibo bat izateak eta horren ondorioz eremu publikoa historian zehar debekatuta egon izanak bere eragina izan du publikoaren aurrean bat-batean aritzeko jardueran:

Baldintza sozialek eragozpen handirik sortzen ez dutenean (...) bertso-eskoletan 18 urtetik beherakoan artean (...) parekidetasuna askoz hurbilago dagoela. Aitzitik, jatorri soziala duen desberdinkeriak bereziki estutzen duenean (nerabezaroan helduarorako trantsizioa egiten denean; ahotsa publikoki hartzen denean; komunikazioa egikaritzeko entzulearekiko gutxieneko konplizitatea, hurbiltasuna eta onarpena bilatzea ezinbestekoa denean), handitu egiten da genero arloko desberdinkeria. (2019: 147)

Aipatutakoak kontuan izanda, adituek oso ondo ezagutzen dute etorkizuneko bertsolariek arreta non jarri behar duten norbanakoaren eta talde osoaren ongizatea lortzeko. Bertsolaritzaren irakaskuntzan teknikaren eta emozioaren arteko bateratzea egon beharko luke eta, jarraian ikusiko dugun bezala, norabide horretan urratsak ematen hasi dira azken urteotan.

5.2.2. Bertsolari(gai)aren trebetasun sozialak

Konpetentzia sozialari dagokio *enpatia* izatea eta beste pertsonekin harreman positiboak ezartzea (Goleman, 1996). Gainera, multzo horretan sar ditzakegu emozionalki inteligente direnak. Izan ere kapazak dira lagunak egiteko eta mantentzeko, ondo egokitzen dira edozein egoera sozialetan eta erremintak dituzte arazoei edo gatazkei aurre egiteko.

enpatiak besteen emozioak irakurtzean, ezagutzean, ulertzean eta haiekin konektatzean datza. Besteen ikuspuntua ez ezik, gertaera batean bizi diren emozioak ere ulertzea da. *Enpatiari* "kontzientzia soziala" ere deitu izan zaio. *Enpatia* hitza grekeratik dator, *em patheia* hitzetik hain zuzen eta "barruan sentitzea" esan nahi du (Bisquerra, 2011). Ohiko definizioaren arabera bestearen tokian jartzeko gaitasuna da.

Trebetasun sozialen garapena oso baliagarria da gure bizitzako hainbat arlotan (Betancourth, Zambrano, Ceballos, Benavides & Villota, 2017), gure ingurunearekin hobeto erlazionatzeko aukera ematen baitigu. Hitzik gabeko komunikazioa (jarrera, ahotsaren tonua edo intentsitatea, begirada, keinuak, eta abar) oso garrantzitsua da pertsonen arteko harremanetan (Flores, García, Calsina & Yapuchura, 2016). Pertsona enpatiko bat gai izango da horrelako seinaleak irakurtzeko, eta, aldi berean, entzuteko ahalmena garatuko du (Bisquerra, 2011).

Bertsolaritzaren alorrera bueltatuz eta trebetasun sozialei dagokienez, esan bezala, jendaurrekotasunaren lanketak garrantzi handia du (Lanku, 2008). Kontzentrazioa mantentzea, diskurtso koherentea egitea, publikoaren erantzuna kudeatzea, edo oholtza gainean bertsolarien urduritasuna murriztea trebetasun sozialei esker egoki kudeatzen jakingo du bertsolariak. Bertso-eskoletan eta hezkuntza arautuan lanketa horiek egin arren, zaila da aurreikustea egoera errealean egon arte gertatuko dena (Lasarte, et al., 2016).

Puntu honetan landu beharreko beste gaietako bat talde-lana izango litzateke. Ez da kasualitatea kontzeptu hau *Bertsolaritzaren Curriculum* *Lehen Hezkuntzan* lanean zenbait aldiz azpimarratzea, (zazpi aldiz zehazki). Bertsolari izatea prozesu autonomoa da eta bertsolariak teknikaren ezagutza, sormenaren lanketa eta bere diskurtsoaren eraikuntza osatu behar ditu, baina ezin dugu ahaztu testuinguruaren eragina eta, honekin batera, kideen laguntzaz eta publikoarentzat bat-batean kantatzen duela.

Bertsolaritza talde lana bezala ulertu behar dugu, hainbat pertsona kualifikatuk dihardutelako horretan: antolatzaileak, eragileak, epaileak, sortzaileak, gai-jartzaileak, eta entzuleak, besteak beste (Lanku, 2008; Lasarte, Vizcarra, Perales & Fernández, 2020; Sarasua, 2007). Hortaz, lankidetzak pisu handia du bertsogintzan. Bertsolariek binakako gaietan eraikitzen duten bertso alditik hasita, bertso-saio osoa taldean egitera egongo da presente alderdi soziala; elkarlana funtsezkoa izango da jarduna behar bezala burutzeko (Lanku, 2008). Egoera kontuan hartu behar du beti bertsolariak, mezu egokiak erabili behar ditu edozein testuingurutan eta entzulea harritu edo hunkitu behar du. Bakoitzaren ikuspuntua zein den ahaztu gabe besteena ulertzeko gai izan behar da bertsotan egiteko, hori da konpetentzia soziala adieraztea.

5.3. Agentzia eta ahalduntzea

“Emakume bertsolariak betidanik izan dira gurean” (Lujanbio, 2019:78). Baina bat-bateko bertsolaritza plazagizonena izan da historikoki eta emakumeek haien presentzia eta parte-hartzea bermatzeko bidea egiten ibili behar izan dira, eta oraindik horretan dihardute (Lasarte, Fernández et al., 2019). Egungo bertsolaritza gizonen jarduera izatetik, emakumeen jarduera ere izatera igaro da (Larrañaga, 2013). Hortaz, emakume idazle ingelesei begira Elaine Showalterrek 1983an argitaratu zuen *A Literature of Their Own* lanean egin zuen sailkapena bertsolaritzara ekarrita, hainbat fasetan kokatu ditzakegu emakume bertsolarien sorkuntza: femeninoa edo *feminine* (gizonen eredia jarraitzen dute), feminista edo *feminist* (haien eskubideak aldarrikatzen dituzte), eta emakumearena edo *female* (norberaren estetika aurkitzea dute xede) (Moi, 2006).

Bertsoaren munduan ordea, ez dira kronologikoki bata bestearen atzetik gertatu, izan ere, hirurak aldi berean gertatu direla esan genezake, baina egun nagusiki idazkera propioa sortzen ari direla egiaztatu daiteke, haien barruko ahotsaren bila dabilelako (Alberdi, 2019; Lasarte, Ugalde et al, 2019). Genero perspektiba kontuan hartuta, azken bi hamarkadetan aldaketa handia egon da bertsolaritzan (Alberdi, 2019; Artetxe, 2019). Emakume bertsolarien ibilbidea ulertzeko bi kontzeptu garrantzitsu kontuan izan behar dira: *ahalduntzea* eta *agentzia*.

Ahalduntze hitza aipatzen dugunean, botere harremanei buruz hitz egiten dugu,

eta hauek ezartzen duten menperakuntza egoerari buruz. Zehazki, botere eta kontrol gabezia dutenek menpeko egoera atzean utz dezaten, existitzen diren botere-harremanak kolokan jartzearen premiaz hitz egiten dugu (Lasarte, Ugalde, et.al, 2019). Horrela, botere pertsonala lortu behar du botere-gabetuak eta horretarako aurretik subordinazio egoeran dagoela jabetu behar da. Honi buruz hausnartzea izango da lehenengo urratsa. Bere zapalkuntza egoeraz kontzientzia hartu behar du eta konturatu ez dela berari bakarrik gertatzen zaion zerbait, kolektibo baten parte izatearen ondoriozko egiturazko biolentzia dela baizik. Geroago, lortu duen botere pertsonala sozializatuko du, barneko eta kanpoko esperientziak partekatuz eta integratuz. Azkenik aldaketarako botereari eta politika eraginari buruz hitz egingo da komunitate horretan (Lasarte, et al., 2020).

Ahalduntzea boterea irabaztearekin erlazionatuta dago; *agentzia* ordea, objektu izatetik subjektu izatera pasatzen denean gertatzen dena da (Lasarte, Ugalde, et. al, 2019). Sherry Ortner (1984) antropologoak esaten du *agentzia* terminoak pertsona batek egiturazko baldintzak aktiboki aldatzeko duen gaitasunarekin zerikusia duela. Honela, *Agentzia* ekintza sozial eta indibidual lez uler daiteke (Lasarte et al, 2020). Erlazio estua du subertsio, erresistentzia eta negoziazioarekin. Hortaz, ahalduntze bide horretan ezinbestekoa da lehenengo *agentzia* eskuratzea.

Lehen esan bezala, azken urteotan bertsolaritza aldaketa garaian dago, eta genero ikuspegia kontuan hartuta, emakume bertsolariek burututako zenbait ekimenei esker izan dela baieztatu daiteke, neurri handi batean. Ildo honetan, Miren Artetxek (2019) honako ideia hau aipatzen du:

Gizartean akademia eta mugimendu feministari esker maila diskurtsiboan zein praktikoan egin diren aldaketez gain, besteak beste emakume bertsolariek haien beharrei erantzuteko modu formal zein informalekoan, kontziente zein inkontzienteagoan, modu indibidual zein kolektiboagoan garatutako hainbat ekimeni esker izan da aldaketa, hain zuzen ere” (p.259).

Honela, zenbait mugarri aipatzen ditu autore honek: lehen erreferenteen ekarpena, emakume bertsolarien saretzea eta teorizazio zein praktika feministak bertsolaritzara hurbiltzea (Artetxe, 2019).

Emakume bertsolariak zenbait topaketetan elkartu dira eta jabeakuntza prozesu batean daude. Topaketa horietan, generoa bertsoaren munduan lantzeko ekimenak sortu dituzte, genero ikuspegia eta feminismoa bertsolaritzan txertatzeko, pertsonalaren eta politikoaren arteko loturak eginez eta haien kontzientzia feminista esnatuz.

Azken urte hauetan emakume bertsolariak eman dituzten pausoak nekez uler litezke Bertsozale Elkartek parekidetasunaren alde garatu duen zeregina kontuan hartuko ez bagenu. 2008an, Genero Taldea sortu zen eta haren asmoa parekidetasuna suspertzea izan zen, bai bertsoaren, bai jardueraren eta proiektuen antolaketan, egituraren, funtzionamenduan eta elkartearen harremanetan.

Lehendakaritza berria du Bertsozale Elkartek 2018tik eta zortzikoteak genero ikuspegia funtsezkoa dela uste du (Lasarte et al., 2020). Bertsozale elkarteak sustapenez arduratzen da, eta eremu askorekin du harremana. Hortaz, ezinbestekoa da gizon-emakumeen botere harremanak orekatzea, eredu tradizionalistatik alde egiteko (Lasarte et al., 2020). Baliagarria da eta izango da haien eskuhartzea elkartearen barneratutako ideia batzuk aldatzeko, joera matxistak baztertzeko eta emakumeen ahaldu bidean aldeko jarrera eta jokaera hartzeko (Lasarte et al., 2016).

Bertsozaleen Elkarteko Genero Taldean aurrera eramanez diren ekimenak gainbegiratu ditugu eta ekintzen artean honako hauek aurkitu ditugu: gai jartzaile eta epaileen formazio tailerrak, 2014ko bertso eguna generoaren gaian oinarrituta egotea, hedabideak (telebista eta prentsa) sensibilizatzea, bertso eskoletan eta ikastoletan bertsoaren buruz dauden ikasmateriak gainbegiratzeko eta aholkularitza ematea genero perspektiba txertatzeko, emakume bertsolarien arteko topaketak antolatzea, eta gaiaren inguruko formazio plana egitea.

Nancy Downing-ek eta Kristin Roush-ek (1985) azaldu zuten identitate feminista eraikitzeko ezinbestekoa dela kontzientziazioa eta generoaren inguruan dauden aurreiritzi eta diskriminazioei aurre egitea. Bertsolaritzari dagokionez, bide horretan hainbat lan eta hainbat estrategia markatu dira azken urteotan. Egun, hainbat esparrutan genero perspektiba txertatzen ari da bertsolaritzaren komunitatean dauden pertsona kontzientziadunek (Alberdi, 2019) eta Bertsozale Elkartek

(lehenengo genero taldearen bidez eta gero zuzendaritza berriarekin ere) bultzatuta.

Ekimen horien artean, “Emakumeak plazara” izeneko ekitaldia burutu zuten duela zenbait urte, edo “Ez da Kasualitatea” dago, 2009. urtean sortutako emakumez soilik osatutako saio musikatua (Artetxe, 2019). Horrekin eta bestelakoekin XXI. mendean emakume sortzaileek eremu publikoan egoteko eskubidea eta beharra aldarrikatu dituzte, eta horrekin batera plazandre izena erabiltzen hasi dira zenbait bertsolari (duela oso gutxi onartu dute Euskaltzaindiaren hiztegian hitz hau), generoari buruzko hausnarketa kritikoa sustatuz eta euskal kulturak eta hizkuntzak duen ikuspegi androzentrikoa salatzeke asmoz.

Puntu honi amaiera emateko, aipatu beharra dugu 2015ean Genero Taldeak emakume bertsolarientzako Aahalduntze Bertso-Eskola sortu zuela, non bertsotan trebatzeko lekua izateaz gain, hausnarketak eta bizipenak partekatzeko gunea da (Artetxe, 2019).

Artikulu honetan aztertu nahi izan dugu bertso-irakasleek bertso-eskoletan eta hezkuntza arautuan zer nolako metodologiak erabiltzen dituzten eta zelan kudeatu dituzten aspektu sozio-emozionalaren zaintza eta aahalduntze eta *agentzia* prozesuak euren diskurtsoetan eta euren metodologietan.

5.4. Metodoa

Aurreko atalean azpimarratu den lez, bertso-eskoletan zein hezkuntza arautuan bertsolaritza eskoletan bai metodologietan, bai diskurtsoan nola kudeatzen den alderdi sozio-emozionala ezagutu nahi da eta bide honetan, trebetasun horiek jorratzean, gerta daitekeen aahalduntze prozesuaren berri izatea.

Esan daiteke kasu azterketa bat dela eta informazioa biltzeko erabili diren tresnak bi izan direla: elkarrizketa sakonak eta eskoletan egindako behaketa etnografikoak. Informazioa biltzeko hainbat metodo eta hainbat pertsonaren iritziak alderatuko dira eta horrela triangulazioa erabiliko da.

Hartu den ikuspegia formatiboa izan da, ezinbestekoa delako irakasleen prozesua ulertzea eta aztertutako emakumeak testuinguru horretan kokatzea; aldi berean

bertsolari gisa eta irakasle gisa jokatzeko rola ezagutzeko modu aproposena da.

5.4.1. Kasu-azterketa

Esan daiteke kasu azterketa baten aurrean gaudela (Colás & Buendia, 1992) emakume bertsolari hautatuak bertso-eskoletan erabiltzen dituzten metodologiak aztertuko direlako, eta hala fenomeno zehatz bat aztertu nahi delako: zehazki alderdi sozio-emozionalaren zaintza eta ahalduntze prozesuaren sustapena metodologietan eta diskurtsoetan.

Ikerketak bi fase nagusi izan ditu, alde batetik, emakume bertsolari eta irakasleen iritziak, sentimenduak eta hausnarketak jaso ditugu elkarrizketa sakonen bidez. Tresna horren bidez honako gaien inguruko informazioa jaso da: metodologia (erabiltzen diren irakaskuntza-metodoak, bai jaso zutena, bai beraiek erabiltzen dutena) eta irakaslearen estiloa (marka pertsonalak, komunikatzeko gaitasuna, motibatze trebetasuna, inplikazioa). Beste alde batetik, bigarren fase batean, egungo emakumeek bertso-eskoletan erabiltzen dituzten metodologiak ikusteko eta euren ekarpena aurrez aurre ezagutzeko 16 behaketak egin dira haien eskola orduetan; diskurtsoak eta praktikak bildu ditugu horrela.

Errealitate baten ulermena eta interpretazioa egin nahi izan da, hau da, emakume bertsolarien ekarpena bertsolaritzaren irakaskuntzan nolakoa den ezagutu nahi izan da. Horrek eskatu du ikertzaileak testuinguruan murgiltzea eta aztertutako pertsonarekin mintzatzea bertatik bertara (Rekalde, Vizcarra & Macazaga, 2014; Vallés, 2003). Hori lortu ahal izateko ikertzaileak erantzunak bilatu ditu modu sistematiko eta metodikoan (Flick, 2014).

5.4.2. Testuinguruaren deskribapena

Ikerketa honen testuingurua bertsolaritza da, eta esparru horren barruan, bertso-eskoletan eta hezkuntza araututako bertsolaritzari buruzko saioetan jarduten duten emakume bertsolariekin egin da. Zehazki 10 elkarrizketa sakonak egin dira, eta hortxe ditugu emakume bertsolariak eta bertso-irakasleak diren elkarrizketatuak. Gure lana

bertsolaritzaren ikaskuntza-irakaskuntza gertatzen den eremuetan kokatzen da.

Bertsozale Elkartek adierazten duen bezala bertso-eskolak bertsolaritzaren ezagutzetan sakontzeko eta hizkuntzaren alde ludikoa lantzeko eratzten diren guneak dira, eta era berean, Euskal kultura modu sortzaile eta aktiboan bizitzeko aukera ematen dute. Azken urteotan hainbat ikastolatan bermatu da bertsolaritzaren irakaskuntza. Helburu horrekin 2011-2012 ikasturtean akordio bat sinatu zen Bertsozale Elkartearen eta Ikastolen Elkartearen artean, Euskal ikastolen Curriculumean bertsolaritzari dagozkion esparruak zehazten zituena.

5.4.3. Partaideak eta informazioa jasotzeko estrategiak

Ikerketa hau bertsolaritzaren testuinguruan garatu da, eta bertan hainbat audientzia kontsultatu dira, haien artean, emakume bertsolariak eta bertso-irakasleak diren emakume bertsolariak. Elkarrizketa sakonetako partaideak ikerketa honetan 10 emakume bertsolari izan dira, eta elkarrizketatuak izendatzeko honako kode hauek erabili dira: Berts1 20151112; Berts2 20151119; Berts3 20151201; Berts4 20151201; Berts5 20151203; Berts6 20151224; Berts7 20160104; Berts8 20160109; Berts9 20160115; Berts10 20160131. Elkarrizketatutako bertsolari bakoitzari zenbaki bat eman zaio eta bigarren kodea elkarrizketaren eguneko data izan da.

Behaketetako partaideak: behaketak ikastetxe arautuetan eta bertso eskoletan burutu dira, hala, 4 emakume bertsolari-irakasle eta haien taldeak behatu dira, irakasle bakoitzaren 4 saio. Orotara 16 saio grabatu ziren. Behatutako emakume guztiak, esan bezala, elkarrizketa sakonetan parte hartu zuten bertsolari-irakasleak dira eta honako kode hauek erabili dira haiek izendatzeko: Irakasle1, Irakasle2, Irakasle3 eta Irakasle4.

5.4.4. Prozedura eta analisi tresna

Elkarrizketa sakonak eta behaketak aurrera eraman dira eta jarraian transkribatu da material guztia. Informazioaren analisia, landa lanarekin batera, oso etapa garrantzitsua da (Goetz & Lecompte, 1988). Kasu honetan, jasotako informazioa analizatzea prozesu bat izan da, funtsean induktibo-deduktiboa, dinamikoa eta sistematikoa, jasotako iritzien mezua ezagutzea eskatzen duena, aukeratzea,

saillkatzea, alderatzea eta interpretatzea. Prozesu horri esker, fenomenoak gorpuzten dituzten kontzeptu gisa ordezkaturako informazioetatik ideia nagusiak atera ahal izan dira (dimentsioak, kategoriak), baita fenomeno horietatik abiatutakoak diren kontzeptuak (azpikategoriak) ere (Coffey & Atkinson, 2003; Rodríguez, Gil & García, 1996). Horiekin guztiekin sistema kategorial bat osatu da (2. irudia). Sistema kategoriala analisisa egiteko, emaitzak antolatzeko eta narrazioa eratzeko baliagarria da. Narrazioaren hari argumentatiboa eratzen da modu horretan. Sistema kategoriala eraikitzeko NVivo11 pakete digitala erabili da eta ondoren kategoria bakoitzean bildutako edukia interpretatu egin da. Metodologia eta irakasleen estiloak definituak izan dira, batez ere elkarriketa sakonen bidez eta, aldiz, 'irakaslearen diskurtsoa hezkuntza proiektuetan' kategoria nagusiki behaketen bidez osatu da.

5.2. irudia: Analisi tresna, sistema kategoriala.

Dimentsioak	Kategoriak	Indikatzaileak
Hezkuntza-arautua eta bertso-eskolen metodologia (eskolen egoera orokorra eta irakaskuntza eredu proposamena)	Metodologia	Erabiltzen diren metodoak (jaso dutena eta proposatzen dutena)
	Aspektu sozio-emozionala banakakoa (ikasle-irakasle)	Feedback (positiboa, negatiboa, zuzentzailea). Nola zuzentzen duen, noiz, arazo kognitiboak, ikaskuntza esanguratsua.
		Agentzia (ahaldundu, baliabideak eman, arriskuen aurrean prestatu)
		Segurtasuna, autokonfiantza
	Aspektu sozio-emozionala: taldekoa	Talde lana, kohesioa
		Generoaren trataera

Iturria: norberak eginikoa.

5.5.- Emaizak: Hezkuntza-arautua eta bertso- eskolen metodologia

5.5.1.Erabilitako metodologia

Bertsolari izateko moduei buruzko kontzientzia hartzea edo garai eta leku bakoitzean gertatzen denaz ohartzea da lehenengo pausoa eta, ondoren, **metodologiaren eredu berriak** bilatzea. Izan ere, bertsolaritza modernizatu aurretik zeuden bertsolari eredu bakarrak gizonezkoak ziren eta izaera maskulinoa zutenak gailentzen ziren kanon horretan, eztabaidarako ematen du zer den femeninoa eta zer maskulinoa.

Ba, Lazkao Txiki baino... niri ez zait gustatzen esatea maskulinoa edo femeninoa ze adibidez, entzun izan dudalako "bai, bertso-eskoletan erakusten direla adjektibo maskulinoak, adibidez ausardia". Baina nola ausardia adjektibo maskulinoa da? Mesedez. Zer da hori, ezta? Baina bueno, horrela hitz eginda, Lazkao Txiki baino gauza femeninoagorik ez da egon. Sentibera zen. Ba hori neskekin beti izan da eta horregatik esaten du femeninoa. Aspaldiko kontua da hori, pare bat hamarkadako kontua da, hori bazegon, baina zergatik Txirrita hautatu eredu maskulino gisa? Ba, ez dakit, ez dakit. Beste arloa, seguraski, emakumeekin gehiago garatzen ari da, edo gehiago garatu nahi da behintzat (Berts5 20151203).

Baina emakumeen eredu edo erreferente ez hegemonikoen falta orokorra izan da, edonola ere fenomeno hau ez da gertatu bertsolaritzan bakarrik. Historian atzera eginda, oraindik ere gutxi daude, oraindik ekarpena da... Ze beti esaten da "emakumerik ez da egon". Jo, ba egon, egon dira, baina literaturan, antzerkian, pinturan gertatu den bezala ba desagertarazi egin direla. Esan nahi dut, ez da bertsolaritzaren eskusiba bat, hori gertatu da historian oro har. Orain zerbait aurkitu da dokumenturen batzuk edo... garai batean egon zirela, bertsoaren bat edo beste. Gutxi dago, ezta? (Berts9 20160115).

Eremu guztietan emakumeak historiatik ezabatuak izan direla jakin arren, norberak bere esparruan ahalegin guztiak egin behar ditu gai horri buelta emateko.

5.5.2. Aspektu sozio-emozionalaren zaintza (ikasle-irakasle)

Gaur egungo irakasle batzuk kezkatuta daude emozioen kudeaketarekin, ikasleek bertsotan sufritu ez dezaten, eta eskura dituzten baliabideak erabiliz lantzen dute gaia, batez ere ikasleei segurtasuna ematen saiatzen dira.

Seguritatea transmititzekoak. Batez ere hori da, bera gustora sentitzea eta bera seguru sentitzea egiten duenarekin. Bera horrela sentitzen baldin bada, hori erakutsiko du. Bera ez bada horrela sentitzen, alperrik da, ez du disfrutatuko. Bueno, segurtasuna, hasteko nik uste dut norberak eduki behar duela transmititzeko bestela... bestela ez dago modurik (Berts5 20151203).

Horretarako, oso inportantea da ezagutzea nola sentitzen den ikaslea. Irakasleak talde-elkarrizketaren bidez ikasleak bultzatzen ditu sentimenduak kontziente egitera eta urduritasuna partekatzen dute eta hala ikusi ahal izan genuen behaketa egiterakoan.

Irakaslea 2: Nola sentitzen zarete kantatu aurretik, kantatzen duzuen bitartean eta ondoren?

Ikasle 1: Kantatu aurretik ondo, kantatu bitartean ondo...eta ondoren ondo.

Irakaslea 2: Bale, beste bat...esan.

Ikasle 2: Kantatu aurretik lasai, kantatu bitartean urduri.

Irakaslea 2: Aber zu...

Ikasle 3: Kantatu aurretik urduri eta gogotsu, kantatu bitartean lasai...

Ikasle 4: Kantatu aurretik lasai, kantatu bitartean gogotsu eta ondoren...ondo.

Ikasle 5: Kantatu aurretik urduri, kantatu bitartean ez nuen ezer sentitu...eta ondoren lasai.

Ikasle 6: Kantatu aurretik oso-oso urduri, gero kantatu bitartean urduriago, eta geroago lasai.

(Behaketa_Irakasle 2)

Horren aurrean ahalegin handia egiten da erosotasuna lantzeko eta aukera bat baino gehiago ematen da bertsoak lasai eta gustura egin ahal izateko.

Eta saiatzen naiz hori egiten. Atera behar baditut banaka, adibidez, esaten: "bakoitzak nahi duen erritmoan hitz egingo du, aulki bat nahi duenak edo zutik nahi duenak, nahi duenak bizkarra emanda...". Esan nahi dut gero gertatuko dira salbuespen horiek eta kasu askotan (Berts7 20160104).

Estrategia ezberdinak bilatzen dira lasaitasuna bilatzeko.

5.5.2.1.Feedback

Diskurtsoetan **feedback-a zaintzen** saiatu da. Segurtasunarekin batera autokonfiantza hitza agertzen da landu beharrekoen artean, izan ere, bi kontzeptu hauek oso gertu daude elkarrengandik. Zenbait ikasleri, nagusiki neskei, asko kostatzen zaie jendaurrean kantatzen hasteko urratsa ematea. Hala, batzuetan irakasleari psikologoaren papera egitea tokatzen zaiola aipatzen dute batek baino gehiago.

Nik espreski ez dut landu konfiantza edo lotsa... Ba da zu konturatzea ikasle bakoitzak non fallatzen duen. Ba igual batek igual hizkuntzaren erabilera okerra, edo besteak denbora larregi hartzen du edo lehen esan dudana bezala, problema handiena zen belozidatea. Orduan oso perfekzionistak, orduan bertsoetan ondo egiten dute, hizkuntza oso ondo landuta. Eta gero ba plazarako lotsa hori bai, orokorrean eduki ditut neskak beti bultzaka, bultzaka plazarako "benga, kantatu, joe kapaza zarela, benga ez duzula egingo txarto". Hori atzetik, psikologo papera... (Berts5 20151203).

5.5.2.2.Agentzia

Gaur egun, **emakumeak ahalduntzeko** eta bestelako gaiak lantzeko iniziatiba bat baino gehiago dago, batzuk ezagunagoak eta beste batzuk ezezagunagoak, baina bide ugari urratzen ari dira emakumeen bizitzak (ere) aintzat hartzeko, ikusgarri egiteko, eta esperientzia horiek plazaratzeko proposamena ailegatzen zaigu emakume bertsolarien eskutik.

Itxaso Paiak dauzka bertso batzuk, ba, 'Begi Umelak', kontatzen du txikitatik berak futboleari ibili nahi zuela, amak esaten ziola ezetz, futbola ez zela neskontzako, eta horrelako gaiak mahai gainean jartzen ditugu (Berts10 20160131).

Hori dela eta, elkarrizketatuek aipatzen dute, diskriminazio egoerez aritu behar direla esplizituki eta bertsolaritzaren munduko alde ilunez bertso-eskoletako klaseetan; ikasleekin hitz egin behar dela horretaz, norberak izan duen esperientzia partekatuz, eta gerta litezkeen une gozagaitzak mahai gaineratuz. Ikasleak prestatu behar dira gerorako eta bertsolaria izatea desmitifikatu behar da beraiekin.

Ba, beraiek uste dutena bertsolaritzak eskainiko diena edo telebistan ikusten duten hori, ez dela dena. Eta nire krisi hori ba beraiei kontatzen diet inongo arazorik gabe. "Ba hau niri pasatzen zait hemen", beste hitz batzuekin klaro. Esan nahi dut dena ez dela polita eta ondo ibiliko zara bertso-eskoletan, eta ondo ibiliko zara eskolarteko txapelketetan eta gero ya bertsolaria izango zara eta telebistan aterako zara. Hasteko hitz egin beraiekin pila bat, eta gero generoaren gaiari sartzen saiatzen naiz, klaro (Berts10 20160131).

Nesken kasuan bereziki, oholtzara igotzeko **bultzatu beharra** dago, lotsa gainditzeko eta aurrera egiteko ahalgaitza behar dira, seguru eta konfiantzaz egin dezaten aurrera. Haiek erabaki ahal izateko zer nahi duten egin taula gainean eta zer ez.

Orduan bueno ikasleei esaten "zu holakoa baldin bazea, holakoa izan, baina kontuan izan aspektu gehiago ere badaudela eta zure erronka pertsonala izango da zu noraino biluztu edo ez, edo nahi duzun landu edo ez". Erakutsi behintzat pixka bat ba esparru asko daudela (Berts8 20160109).

5.5.2.3. Segurtasuna, autokonfiantza

Aipatutako guztiagatik, lehiaketaren aurrean umeek beldurra pasatzen dutela argi dago, egoera gogorra izaten da jendaurrekoa, eta bereziki hasieran, umetan. Hori dela eta, horretarako **prestakuntza emozionala** ezinbestekoa da. Elkarrizketatutakoen arabera oraindik hutsune emozional asko ikusten dira lehiaketetan, batez ere, umeen artean, ez zaie erakutsi nola kudeatu sentimenduak.

Eta ni sekula ez naiz damutu nire umeak eraman izanaz inoiz ez zaidalako ume bat

bertso erdian geratu negarrez. Baina nik ikusi ditut hor barbaridadeak, irakasleei bi belarrondoko emateko modukoak. "12-13 urteko ume bat hor negarrez?". Eta gainera itxaron behar du beste bi talde kantatu bitartean beste ordu erdi, eta zuk ezin duzu joan, ezin diozu besarkada bat eman, ezin duzu lasaitu momentuan. Eta ume batzuei esan behar zaie "oraindik ez zaude prest ateratzeko" eta beste batzutan esan behar zaie kontrakoa "benga, gai zea hori eta gehiago egiteko". Jo es ke batzuk, "nik egingo dut, nik egingo dut". Bai eta gero? Han denak umiltzen dira, harroena ere umildu egiten da hor (Berts8 20160109).

Klaseetan oholtzarako prestatzen dituzte ikasleak, simulazioak egiten dira. Emozioei buruz hitz eginda, haien eraginei erreparatuta, lanketa emozionala bertsoen bidez egiten dute.

Irakaslea 1: Oso ondo. Orain botako dozue bakoitzak zortziko txikia bana. Bai, ezta? Orduen bakoitzari emongo dotzuet emozino bat. Orduen deskribatu beharko dozue egoera bat esan barik zein dan hemengo hitza, baina emozino hori sentitu duzuen edo sentitu leikena beste batek. Eta batek kantauko dau eta besteak asmau.

Ikasle 1: emozinoa zein dan...

Irakaslea 1: emozinoe zein dan. Bale? Edo koplatan. Orduen bakoitzak bat, deskribatu biozue. Zortziko txikia edo nahi dozuena. Egoera bat zuek sentitu duzuen...

(Irakaslea 1)

Konfiantza eta segurtasuna lantzeko, irakasleak erantzun edo errefortzu positiboak eta zuzenketa esanguratsuak ematen saiatzen dira.

Ikasle 1: (neurri bat botatzen du) egia esan ez zait batere gustatzen elurra.

Irakaslea 1: Aber, aber, neurrix hori. Egia esan ez zait batere gustatzen elurra. Hor zeozer faltatzen da. Benga, bota.

Ikasle 1: ez da ona niretzako eta gainera ez da ziurra, egia esan ez zait batere gustatzen niri elurra.

Irakaslea 1: oso ondo, primeran!

Ikaslea 1: zapatu gaba dugu goizeko bostetan. Abadiñotik bueltan etxeratzekotan.
Pausuek entzun dodaz nik neu hortxe bertan. Ni korrika hasi naiz urduri benetan.

Irakaslea 1: Urduri benetan. Earra, Irune!!!

(Irakasle 1)

5.5.3. Aspektu sozio-emozionalaren zaintza (taldekoa)

5.5.3.1. Talde lana, kohesioa

Bakarkako lana egiten da, baina taldeka ere ariketa asko egiten dira. Irakasleek hainbat jardueratan talde lana proposatzen dute, adibidez asmakizunak sortzea elkarrentzat.

Hirukotea: Etxera ailegatzean ikusi nuen, bertan egoten dira, argazkiak ere, sagua-teklatura, behar ditu ere, zer egingo genuke gu tresna hau gabe.

Ikasle bat: ordenagailua.

Irakaslea 2: bai, orain beste bat.

(Irakasle 2)

Bertsoak taldeka egiten dituzte, irakasleak oinak emanaz taldeka osatzen dituzte proposaturiko ariketak. Talde bakoitzak gertaera desberdinak baloratuko ditu, tartean, emozioak ere adieraziz.

Talde 1: Bukatu da ikastola, nolako pasada.

Azterketa guztiak, bota begirada.

Oso estresatuta gu ibili gara,

oso ondo pasata gozatu udara.

(Irakasle2)

Taldean hortik kanpo bizitako esperientzia adierazgarriak konpartitzen dituzte, leku berezi hori dute bertso klaseetan. Elkar ezagutzeko, taldea egiteko, eta enpatizatzeko balio duten pasarteak.

Ikasle 1: Ba...zelan da? Gabonetan, bueno, barnetegi modukoan zeuden bi iparraldeko neska eta harrapatu nituen kanta hau abesten. Ba gustatu

zitzaidan asko doinua, ba azkenean ikasi genuen danok. Eta oso polite da eta letrie bebai eta...ba horregatik aukeratu dut. Letra da, eskertzeko moduen amari. Ze bera barik ez ginen egongo hemen, hori bakarrik.

Ikasle 2: ondo. Kantatuko dugu?

Irakasle 4: Bale orduen zer egingo dugu, bideoa ikusi?

Ikasle 1: bai, ez?

(Irakasle4)

5.5.3.2. Generoaren trataera

Bukatzeko, generoaren gaia klaseetara eramaten da, irakasleak planteatzen du eta taldeka hausnartzen dute egungo jendaratean gertatzen diren diskriminazio eta injustiziei buruz ikasleek pentsamendu kritikoa gara dezaten, iritzi propioa osatu dezaten.

Irakasle 1: ...zauritu eta gero neska bat bortxatu dute Santutxun...hori...zergaitik ez dugu jarri...pentsau...Lau aste barru eta askotan egoten da eztabaidie genero indarkeria esaten dana; eztabaidi egoten da batzuk kontsideratzen danielako hori bakarrik dala bikote harremanien danean. Eta batzutan eztabaidie egoten da. Baina ez da kasualidadie beti erasotzen dauena...zer da beti?

Ikasle guztiak: Gizona.

Irakaslea 1: Eta beti eraso jaso duena andrie. Orduen genero indarkeria ez da bakarrik bikotie. Orduen aber zer...zer...zer uste duzue? Zelan ikusten duzue asuntue?

Ikasle 1: Txarto

Ikasle 2: Gertatzen dela behin eta berriro.

(Irakasle1).

5.6. Ondorioak

Bertso-eskolen ibilbideko hasierako bertsolaritzaren irakaskuntza eredutik gaur egungo eredura garapen handiena izan duena *adimen emozionalaren* lanketa izan da, izan ere, duela 30-40 urte hori ez baitzen jorratzen, askotan, bertsolari-eredua oso maskulinoa izanda, emakumeek jendaurreko bat-bateko bertsolaritza uzten zuten gaizki pasatzen zutelako jarrera mesfidatia zuen publiko baten aurrean emozioak ezkututzen eta segurtasun eza sentitzen zutelako. Izan ere, duela gutxi arte, emozioen kudeaketari eta ikuspegi feministari ez zitzaien inongo garrantzirik ematen eta autokonfiantza eta egoeraren irakurketa kritikoa ez ziren ikasketa prozesuan presente egoten. Beraz, presio sozialarekin ezin zuenak bertsolaritza uzten zuen (Alberdi, 2015; Artetxe, 2014; Lasarte et al., 2020).

Alde batetik, azpimarratu daiteke alde emozionalaren garrantzia, oholtzarako prestaketa egiten da segurtasuna izateko edo askatasunez adierazteko, eta horretarako autoestimua eta autokonfiantza garatzen dira ikasle guztien artean (Lanku, 2008; Lasarte et al., 2016). Ariketak egiten dira momentu bakoitzean sentitzen diren emozioei izena jartzeko. Kontzientziazio momentu horretan emozio horiek bideratzen ikasten dute (Fragoso, 2015) eta hori horrela eginda, bide aproposa izango lukete ikasleek bertsogintzan automotibaziora ailegatzeko (Goleman, 1996). Konfiantza eta segurtasuna bermatzen dira adimen emozionalaren lanketaren bidez eta ikasleak ekintza burutzeko gai direla jabetzen dira, sufrimendu gabe eta gozatuz, irakasleen laguntzari esker (Printich & De Groot, 1990).

Jendaurrekotasunak pisu handia dauka bertsolari(gai) bakoitzaren jardunean, oraindik hutsune emozionalak ikusten baitira lehiaketetan (urduritasuna, beldurra, segurtasun falta, mina). Diskurtsoak koherentzia izan dezaten eta ikasleek ahalik eta erosoan kanta dezaten irakaslea hor egoten da beti, oholtzarako prestatzen ditu ikasleak. Irakasleak feedback positiboak eta zuzentzaileak erabiltzen ditu diskurtsoek eta praktikek oreka izan dezaten (Lanku, 2008; Lasarte et al., 2016).

Beste alde batetik, ezin da ahaztu testuinguruaren garrantzia, bertsolariak publikoari kantatzen diolako eta hau ez da beti aldeko jarrerarekin egoten. Hori dela

eta, taldeka ariketa asko egiten dira, jarduera dialogiko eta interaktibo asko proposatzen dira; bertsolaritza talde lana lez ulertu behar da eta (Lanku, 2008; Lasarte, et al., 2016; Sarasua, 2007). Bertso-saioak elkarreraginean eraikitzen dituzte bertsolariek, ahaztu gabe testuingurua kontuan izan behar dutela eta publikoarengana ailegatu behar direla haien bertsoak (Garzia, Sarasua & Egaña, 2001; Lanku, 2008).

Enpatiak leku berezia du jarduera horretan, izan ere, sentimenduen truke horretan bakoitzaren ikuspuntua zein den ahaztu gabe bestena ulertzeko gai izan behar dira (Bisquerra, 2011). Taldekideek esperientziak partekatzen dituzte eta gai desberdinei buruz hausnartzen dute elkarrekin; horrek guztiak eragina du bertsolarien diskurtso eta praktiketan eta talde izaera indartzen laguntzen du, ikasle bakoitzak taldearen babesa senti dezan (Artetxe, 2019).

Egun bertsolaritzaren esparru formal eta ez formaletan genero perspektiba txertatu da, eta behatu den bezala, pertsona kontzientzadunek (Alberdi, 2019) aurrera eramaten dute bertsolaritzaren irakaskuntza, zein bertsoan trebatzeko tokia izateaz gain, hausnarketarako lekua ere bihurtu den (Artetxe, 2019; Lasarte et. al, 2016). Irakasleak planteatzen du hausnarketa kritikoa, injustiziei eta diskriminazioei aurre egiteko xedearekin, jendartean dagoen ikuspegi androzentriko hori salatze aldera.

Bertsolaritzaren irakaskuntzaren alorrean dihardutenak kontziente dira bertsolari emozionalki konpetenteak behar direla oholtzan eta bertsolaritzan dagoen lehiakortasunari aurre egiteko funtsezkoa dela arrazoi eta argudioez harago joatea eta sentimenduak aintzat hartzea klasean (Lasarte, et.al, 2016). Ezinbestekoa da trebetasun pertsonalak eta sozialak lantzea eta garatzea hortaz, eta puntu horretan lanean dihardute bertso-eskoletan eta hezkuntza arautuan, elkarriketatu ditugun emakume bertsolari-irakasleek esandakoak kontuan izanda.

Autoezagutzari indar handia ematen ari zaio beraz. Ezinbestekoa da emozio bat agertzen den momentuan hura detektatzea, emozio hori ondo bideratu ahal izateko. Egungo irakasleek alde teknikoa zein sozio-emozionala irudikatzen dituzte gaurko bertsolari erreferenteetan. Horrela, bidenabar, ikasleen konpetentzia pertsonala lantzen ari da (Gardner, 1993; Goleman, 1996). Horretarako oso garrantzitsuak dira irakaslearen lana eta honek erabilitako metodologia: feedback positiboa eta

zuzentzailea erabiltzea inportantea da, ikasle-irakasle harreman dialektikoa sustatu behar du, arriskuen aurrean gai izateko prestatu behar ditu ikasleak, eta talde izaera indartu behar du, besteak beste.

Gero eta aniztasun handiagoa dago bertsolarien estilo eta bertsotarako gaietan. Emakume erreferente garrantzitsuak daude eta emakumeen bizi-esperientziak gero eta ohikoagoak dira bat-bateko jardunean. Hala ere, diskriminazio eta zapalketei buruz hitz egiten eta hausnarketara bultzatzen jarraitu behar da (Downing & eta Roush, 1985). Bertsolaritza kultur adierazpena eta praktika soziala izanik ez baitago botere harreman eta bereizkeriez libre.

Esan genezake emakume bertsolariak emakumeen subordinazioa dagoela konturatu direla eta horren kontzientzia hartu dute (Lasarte, Ugalde et.al, 2019), eta hortaz aldaketarako aukera ikusi dute haien bizipenak partekatuz eta egunerokotasunean ikasitakoa erabiliz, ikasle guztiak ahalduntzeko eta agente aktibo bihurtzeko bide horretan (Ortner, 1984). Puntu honetan *agentzia* praktika soziala eta pertsonala dela uler daiteke (Lasarte et. al, 2020).

Baina bertsolaritza ez da bertsolariaren bakarkako lana soilik, testuinguruaren eragina aipatzen baita behin eta berriro. Bertsokideen arteko *empatia* sustatzea da egungo helburuetako bat, horri esker, besteen ikuspuntua ulertzeko (Bisquerra, 2011) konpetentzia soziala lantzen saiatzen dira eskoletan. Egungo irakasleek argi dute talde lana ezinbestekoa dela *adimen emozional* interpertsonala edo erlazio gaitasunak garatzeko (Betancourth et.al, 2017), ahaztu gabe bertsolariak publikoarekin batera osatzen duela bertsoa, baina hartzailearen rolari eta eraginari buruz beste batean hitz egingo dugu.

5.7. Erreferentziak

Alberdi, U. (2015). *Bertsolaritza eta generoa*. Erreterria: Memorandra aurkezpena.

Alberdi, U. (2019). Kontrako eztarritik. Emakume bertsolarien testigantzak. Zarautz: Susa.

- Amuriza, X. (1982). *Zu ere bertsolari*. Donostia: Elkar.
- Artetxe, M. (2014). Bertsolaritzaren eragina Lapurdiko bertso-eskoletako gazteen identitatean eta hizkuntza erabileran. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 92(2), 11-31.
- Artetxe, M. (2019). Emakume bertsolari garaikideak. Ahalduntze-prozesu baten kontaketa posible bat. In *Bertsolaritza feminismotik (bir)pentsatzen*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Betancourth, S., Zambrano, C., Ceballos, A., Benavides, V. & Villota, N. (2017). Habilidades sociales relacionadas con el proceso de comunicación en una muestra de adolescentes. *Revista Psicoespacios*, 18(11), 133-148.
- Bisquerra, R. (2000). *Educación emocional y bienestar*. Barcelona: Praxis.
- Bisquerra, R. (2003). Educación emocional y competencias básicas para la vida. *Revista de Investigación Educativa*, 1(21), 7-43.
- Bisquerra, R. (2011). *Educación emocional. Propuestas para educadores y familias*. Bilbo: Desclée de Brower.
- Colás, M. P. & Buendía, L. (1992). *La investigación educativa*. Sevilla: Alfar.
- Coffey, A. & Atkinson, P. (2003). *Encontrar el sentido a los datos cualitativos*. Medellín: Contus.
- Downing, N., & Roush, K. (1985). From passive acceptance to active commitment: A model of feminist identity development for women. *The Counseling Psychologist*, 13(4), 695-709. <https://doi.org/10.1177/0011000085134013>
- Esteban, M. (2019). Begirada bat bertsolaritzari feminismotik. In *Bertsolaritza feminismotik (bir)pentsatzen*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Flick, U. (2014). *El diseño de la Investigación cualitativa*. Madrid: Morata.
- Fragoso, R. (2015). Inteligencia emocional y competencias emocionales en educación superior, ¿un mismo concepto?. *Revista Iberoamericana de educación superior*, 16(6), 110-125.

- Flores, E., Garcia, M., Calsina, W., & Yapuchura, A. (2016). Las habilidades sociales y la comunicación interpersonal de los estudiantes de la Universidad Nacional del Altiplano-Puno. *Comuni@cción*, 7(2), 05-14.
- Gardner, H. (1993). *Multiple Intelligences: The Theory and Practice*. New York: Basic Books.
- Garzia, J., Sarasua, J., & Egaña, A. (2001). *The Art of Bertsolaritza: improvised Basque verse singing*. Donostia: Euskal Herriko Bertsozale Elkarte.
- Goetz, J., & Lecompte, M. (1988). *Etnografía y diseño cualitativo en investigación educativa*. Madrid: Morata
- Goleman, D. (1996). *Emotional Intelligence*. New York: Bantam books.
- Haardep, & Gowda, P. (2019). Emotional intelligence for better self-perception of social ability. *International Journal of Research and Analytical Reviews*, 1(6), 990-993.
- Lanku (2008). *Bertsolaritzaren Curriculuma Lehen hezkuntzan*. Villabona: Euskal Herriko Bertsozale Elkarte.
- Larrañaga, J. (2013). *Jolas sakona: Txapelketaren prozesu errituala eta bertsolariaren arrazoi sortzailea XXI mendeko agoran*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Lasarte, G., Álvarez-Uria, A., Ugalde, A., Lekue, P., & Martínez, J. (2016). *Emakume bertsolariak. Ahanzturatik diskurtso propiora*. Gasteiz: Emakunde.
- Lasarte, G., Ugalde, A., Alvarez-Uria, A., & Martínez, J. (2019). Emakume bertsolariak ezagutzen. *Uztaro*, 110, 39-60.
- Lasarte, G., Fernández, V., Alvarez-Uria, A. & Gómez-Pintado, A. (2019). Women bertsolaris, reclaiming the past, singing the present. *Prisma Social*, 25, 488-518.
- Lasarte, G., Vizcarra, M. T., Perales, A. & Fernández, V. (2020). Las mujeres bertsolaris, agentes en su incorporación a la escena pública. *Boletín de Literatura Oral*, 10, 249-264. DOI: 10.17561/blo.v10.5102
- Losada, L. (2018). Reflexión y construcción del conocimiento en torno a las habilidades sociales y la competencia social. *RECIE. Revista Caribeña de Investigación Educativa*, 2(1), 7-22. <https://doi.org/10.32541/recie.2018.v2i1.pp7-22>

- Lujanbio, M. (2019). Arbola hazten, azala zartatzen. Azken 40 urteak bertsoaritzan: bertso-eskolaren sorrera eta emakumeen sarrera. In *Bertsolaritza feminismitik (bir)pentsatzen*. Bilbao: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Moi, T. (2006). *Teoría literaria feminista*. Madril: Catedra.
- Ortner, S. (1984). Theory in Anthropology since the Sixties. *Comparative Studies in Society and History*, 26(1), 126-165.
- Printrich, P., & De Groot, A. (1990). Motivational and self-regulated learning components of classroom academic performance. *Journal of Educational Psychology*, 82, 33-40. <https://doi.org/10.1037/0022-0663.82.1.33>
- Rekalde, I., Vizcarra, M. & Macazaga, A. (2014). La observación como estrategia de investigación para construir contextos de aprendizaje y fomentar procesos participativos. *Educación XX1*, 17(1), 199-220.
- Rodríguez, G., Gil, J., & Garcia, E. (1996). Análisis de los datos cualitativos asistidos por ordenador: aquad y Nudist. Barcelona: PPU.
- Salovey, P. & Mayer, J. D. (1990). Emotional intelligence. *Imagination, Cognition, and Personality*, 9, 185-211. <https://doi.org/10.2190/DUGG-P24E-52WK-6CDG>.
- Sarasua, J. (2007). Social Features of Bertsolaritza. *Oral tradition Journal*, 22(2), 33-46.
- Soroa, N. (2010). Abiatu beharko genuke ikasle bakoitzak dauzkan ezaugarrietatik. In B. Gaztelumendi (elkarrizketatzailea). *Bertsolari Aldizkaria*, 78, 18-33.
- Vallés, M. (2003). *Técnicas cualitativas de investigación social*. Madril: Síntesis Sociología.
- Zubiri, H., Aierdi, X., & Retortillo, A. (2019). *Kultura ez da bat-batekoa. Bertsolaritza aztergai*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

6. KAPITULUA

EZTABAIDA ETA ONDORIOAK

6.- Eztabaida eta Ondorioak

Hurrengo paragrafoetan lau artikuluen eztabaida, hasieran adostutako helburuen asebetetze maila, gure lanaren ondorio orokorrak, ekarpena, mugak eta etorkizunerako erronkak agertuko dira.

6.1.- Eztabaida

Lehenik eta behin aipatu beharra dago errebisioa egitean ikusi dela, batetik, bertsolaritza eta emakume bertsolarien ikerlerroa hasi berria dela, eta bestetik, horren inguruan ikertu dena oso baliagarria izan dela orain aurkezten den lana bideratzeko. Gure lanean hezkuntza alorrera mugatu gara, baina arlo horretan gertatutakoa ulertzeko, lehenengo emakume horien esperientziek, hausnarketek eta formazioak haien identitate pertsonala eta profesionalean izan duten eragina ikertu behar izan dugu. Ondoren, identitate horiek darabiltzaten metodologietan duten eragina ikertzen saiatu gara, eta horrekin batera, baita euren irakasle-estiloak eta euren generoaren lanketaren kudeaketa ere, besteak beste.

Egindako lana kontuan hartuta, ikertutako emakume bertsolarien profilaren argazkia lortu da eta esan daiteke gehienbat **emakume gazteak direla**, unibertsitate ikasketak dituztenak eta ekonomikoki independenteak direnak (%70,8 lanean dihardu). Esan daiteke, emakume bertsolarien profilak agentziaren aldeko adierazle argiak erakusten dituela. Alde batetik, hezkuntza-kualifikazio altuagatik eta, bestetik, lan ordaindua izatearen ondorioz, alderdi inportanteak agentzia bide horretan, bestelako ikerketetan ikusi den bezala (Kabeer, 1999).

Agentzia eta ahalduntze prozesuei dagokienez, emakume bertsolarien testigantzek esaten digute emakume bertsolarien egoera eta hazkuntza pertsonala indartzeaz gain, bertso-eskolek jende artera eramaten dituztela, sozializatzen dituztela, eta horretarako sare eta leku seguruak behar dituztela eta bertso-eskolek betetzen dutela funtzio hori, hainbat ikerketatan ikusi den moduan (Murguialday, 2013). Hori

egin ahal izateko, behin baino gehiagotan aipatu den bezala, aztertutako emakumeek esan dute bertso-eskoletan aurkitu dutela leku seguru hori. Bertso-eskolak konfiantza ematen duten espazioak izateaz gain, leku horietara **hurbiltzen diren emakumeen kopurua esanguratsua** dela diote, eta kopuru horri erreparatuta esan genezake agentziaren beste adierazle bat dugula, izan ere, ugaritasunak aktibotasuna ekarri ohi du, eta aurreko ikerketetan (Kabeer, 1999) baieztatu den moduan, emakumeak eredu bihurtzen dira horrelakoetan.

Esan bezala, bertso-eskoletan aritzen den emakumeen kopurua handia da. Baina oholtzarako pauso horretan emakume askok ez dute aurrera jarraitzen, haien ahozko bat-bateko sorkuntza-ibilbidea eten egiten da. Hurrengo arrazoiak aipatzen dira horretarako: nesken **segurtasun falta, lehiakortasuna** handia denez emakumeak kikildu egiten direla, **gizonezkoek okupatzen duten lekua** ez dutela nola edo hala utzi nahi. Emakume bertsolarien esanetan, bertsolaritzan generoaren inguruan formazioa egitea ezinbestekoa da. Antolatzaileek, babesleek eta epaileek genero-sentsibilizazioa izan behar dute, eta sentsibilizazio hori ez badago, landu beharko da, eta horretarako hobetu beharko dira irakasteko metodologiak, emozioen kudeaketaren ikaskuntza, eta beldur eszenikoa, segurtasuna eta konfiantza garatzeko bideak. Emakume bertsolarien esanetan, publiko aurrera salto egin duten kasuetan ordea, haien gorputzekin izandako esperientziei buruz ez dutela hausnarketa kontziente eta espliziturik egin baieztatzen dute askok. Bestelako ikerketak kontuan hartzen baditugu, (Hernández, 2014; Alberdi, 2015), bi gorputz ibilbide bereiz daitezkeela ikusten da (1970ko hamarkadan jaiotakoak eta 1990koan jaiotakoak).

Ikerketa honetan ikusi ahal izan dugun bezala, 1990eko hamarkadan emakume bertsolariak agertokian agertu ziren, “drag king” lez, hau da, diskurtso androzentrikoak eskatzen zuen maskulinitatea irudikatzea onartu zuten. Eta, bestetik, mende aldaketarekin etorritako belaunaldia ikusi ahal izan dugu, “panpinak” izango liratekeena eta feminitatea irudikatuko luketen irudikapena. Galdetuak izan diren emakumeen testigantzen bidez ikusi ahal izan dugu emakume hauek **ordena maskulinoa hausten dutela haien gorputza erakutsiz**, baina patriarkatuak ezartzen dituen emakumezko rolaen ezaugarriak betetzen dituztela. Ikusteko dago azken belaunaldia (1990ko eta 2000ko hamarkadetan jaiotakoak) nola datorren, baina gauza

dezente gainditu dituztela dirudi lehen azterketan.

Gorputzaren ahalduntzea hura aurkitzean datza, bere gorputzarekin eta bere adierazpen moduarekin adiskidetzeta da bidea; eta, gorputz bakoitza adierazpen eta identitate eragile gisa onartzea. Hasieran emakume bertsolariek ezaugarri maskulinoak emulatzen zituzten, zurruntasuna, hitzaren dialektika, ahots indartsua (Hernández, 2014), hori zelako eremu horretako araua. Urteak pasa ahala, feminitateak lekua hartu du beste adierazpen batzuei aukera emanez. Prozesu bat hasi behar izan dute emakume bertsolariek elkar hobeto ezagutzeko, haien pentsamenduak, bizipenak eta emozioak partekatzeko, haien modua topatu eta erabiltzen hasteko, eta oraindik oro har genero ikuspegirik ez duen publikoari aurre egiteko. Badakite **osagai femeninoak txertatzen hegemonikoki gizonezkoena den munduan**. Modu horretan, galdetutako emakumeek aipatzen dute bertsolari izateko modu berriak ekarri dituztela oholtza gainera (Esteban, 2014) eta horren ondorioz, emakume bertsolari izateko modu desberdinak dituztela aukeran plazara heldu berri direnek.

Emakume bertsolariak formatzen direnean ikasi beharreko doinuen letretan sexismoa agertu ohi da eta bere horretan erreproduzitu dute. **Emakumeek ere sexismoa jaso eta pasa dute**. Emakumearen gai estereotipatua ez da soilik gizonezko bertsolarien irudikapenetan agertu, emakumeek ere transmisioaren bidez ikasi eta erreproduzitu dute euren bertsoetan. Edonola ere, emakumearen irudikapena eta harekin lotutako gaien trataera aldatzen joan direla diote emakumeek elkarrizketetan, emakumeak oholtzan kantatzen hasi diren neurrian, hots, batez ere emakumez kantatzen baino emakumeekin kantatzen hasi direnean. Gaia aldatzen hasi zen **emakumea objektu izatetik subjektu izatera pasa denean** (Segarra eta Caribi, 2000). Aipatzen dute amak, alabak, emazteak bere errealitatetik hitz egiten hasi direla eta ez diskurtso edo ikuspegi maskulinoetik. Halere, nahiz eta gai-jartzaileen eskutik gaien berrikusketa eta gaurkotze lan handia egin den, oraindik asko dago egiteko eta ondorioz zailtasunak agerikoak dira ohiko saioetan. Esan nahi da, emakume izateari beste rol bat gehitzen zaionean, politikari edota enpresari izatearena, emakume bertsolariari nekeza egiten zaio rol horri generoa kentzea, hots, enpresari izaerari emakume izatearen marka kentzea. Androzentrismoaren ondorioz, enpresari hutsa izateko, gizonezkoa izan behar da. Rol femeninoak eta rol maskulinoak, aurreiritziak

eta estereotipoak, XXI. mendean oraindik ere bizi-bizirik dirautela diote; lehen agerikoa zena orain inkontzienteki egiten dela, edo ez hain agerian. **Androzentrismoak oso presente jarraitzen du**ela diote rol bakoitzaren irudikapenean. Sozialki rol maskulinoak eta rol femeninoak dituzten arau eta mugen eraginez mugak eta baldintzak aurkitzen dituzte bertsolariek rol berriak proposatzeko edo jokatzeko garaian. Sinbolo sistema hegemonikoa gainditzeak lan eta neke handiak ekartzen dizkiete bertsolariei, eta zenbaitetan, publikoaren arbuioa ere bai.

Emakume bertsolariek emakumeei buruzko gaiak kantatzen dituztela diote. Baina gai jakin batzuk eman zaizkionean, hala nola, indarkeria, haurrak, etxea, edo familia, askotan emakume bertsolariek biktimaren paperetik kantatzea ekarri duela esaten dute. Ikusi da emakumezkoen eta gizasemeen ematen zaizkien gaien artean diferentziak daudela. Emakumeek generoaren ideologiarekin loturiko gaiak kantatuko dituzte eta gizonezkoek politikarekin edo ekonomiarekin harilkatutakoak. Baina, emakume hauen esanetan, emakumeek erraztasunak dituzte haien roletik irteteko, gizonek ez bezala, izan ere, emakumeak kontzientzia politikoa landu dute edo lantzen ari dira. **Emakume bertsolaria kontzientzia politikoa hartzen doan neurrian**, estereotipoak eta rolak deskodetzen hasi dela diote eta aldaketa horren ondorioz emakumearen irudikapena berri dela, rol berriak agertu direla eta 'emakume berria' abian jarri dela emakume bertsolariak sortzen ari diren diskurtso propioetik.

Eredu hegemonikoak eta horien ondoriozko estereotipoak haustea oso ariketa zaila dela aipatu dute, sozialki konpartitzen dena kantatu behar delako elkarren ulermenerako minutu batzuk besterik ez daudenean (Lujanbio, 2012). Elkarrizketatutako emakumeen ustetan zaila da irudi alternatiboak proposatzea bertsoa sinesgarritasun ariketa delako, publikoa ikustera eta entzutera ohituta dagoen errealitatearen gaineko fikzioa sinesten duelako errazen. Zaila da, baina egingarria, erresistentziak erresistentzia, rolak zehazterakoan topikoei ihes egitea dagoelako, eta norberak ere bere inertziei aurre egin diezaiekeelako.

Kultur adierazpide ezberdinetan eta denboraren joanean gaiak errepikatu egiten dira, aldatu beharrekoa gai horien tratamendua da eta hortxe dago zailtasuna. Estilo tradizionalistak talka egin du emakume bertsolari batzuek eskatzen eta eskaintzen hasi diren gai, rol eta estilo desberdinekin. Sexualitatea eta generoa bestela

irudikatzen dituzten pertsonaia eta egoerak ere probatzen hasi dira. Bertsomolde diferentea belaunaldi diferenteekin etorri da, zehazki, 1990eko hamarkadan plazaz plaza hasitako bertsolariekin, eta gai moderno nahiz posmodernoekin gertatu da. Emakume gehienen ahotan **estilo berri baten paradigma Maialen Lujanbio** dela entzun da, bere belaunaldi kideekin batera. Bertsoak egiteko era maskulino batetik abiatuta eta bertsolaritzan garatu diren erregistro guztietan kantatuta bere estilo pertsonalizatua lortzera heldu da, gainera genero ikuspegia integratuz.

Bertsolaritzaren munduan errealitate patriarkalari buelta emateko emakume bertsolarien saretzea eta agentziaztea proposatu dituzte. Horrela, **esparru horretan genero ikuspegiaren txertaketa ezinbestekoa dela** aipatzen dute. Gizon eta emakumeak formatzea, bertsoaren munduan parte hartzen duten antolatzaileek, babesleek eta epaimahaikideek, gaietan genero perspektiba hori kontuan hartzea, bertsotarako kideekiko elkarlana eta publikoak aipatu dituzte. Izan ere, beharrezkoa ikusten dute irakasteko metodologiak hobetzea eta, zehazki, emozioak kudeatzen ikastea, segurtasuna eta konfiantza lantzea bertsogintzan aritzen direnen artean. Era berean, publiko konplize batekin molde berriekin esperimentatu eta sortzeko egokitasuna azpimarratu dute.

Irakaskuntzari dagokionez, bistan da **emakume bertsolariek metodologia propioa** erabiltzen hasi direla, eredu tradizional arrazional eta zurruna alde batera utzi dela eta belaunaldi berriek eta genero perspektiba dutenek sortutako metodologia zabaltzen ari dela. Aldi berean, maila pertsonal eta kolektiboan bizitako esperientziak eta bertsolaritzaren alorrean sortutako harreman sareek ekarritakoak identitate profesionalean txertatu dituzte (Lasarte et al, 2020) eta haien eskoletako irakaskuntza-metodologian islatzen dira.

